

SANTUEN BIZITZA

— LABURAK —



1925  
EDITORIAL VASCA  
BILBAO

Donation Form  
Rotaxke

SANTUEN BIZITZA LABURAK

# URTAÍLA'KOAK ETA EPAÍLA'KOAK

MANTEROLA'TAR GABIREL JAUPARIAK

ETA

# OTSAÍLA'KOAK

OYARTZABAL'DAR MARTIN JAUPARIAK

IDATZIAK



BILBAO  
EDITORIAL VASCA  
1925

Victoriae, 21 Augusti 1924.

*Nihil obstat*

FR. JOSEPH DOMINICUS A STA. TERESIA, C. D.

*Censor.*

**Imprimatur.**

Victoriae 23 Augusti 1924.

*Vicarius generalis,*

ASSUMPTIO GURRUCHAGA.

## URTAÏLA 1

### Jesus Umearen Bilebikunde ta Izen Deuna



OIZPAR edo Ebangelioak di-  
ñonez, Jesus'en Yayotzatik  
zortzigaren egunean, Mois'  
en legez mutilezko gustiai  
lez, Bilebatzea egin eutsen.  
Jesus oretara beartuta eze-  
goan, baña alan da be Bile-  
batzera eroan eben, eta  
Jesus izentzat ezari eutsoen  
gotzonak (aingeruak) soñtu

baño len deitu eutsona. (Luk. II-21.)

Oretarako yayopariaren etxean ala sinagogan  
(yudaren batzarrokian) Mohel eritxon batek naiz aitak  
berberak, amar ziñaldarin aurean umea besoetan arñu,  
ta suañizko aizto bategaz aragi zatitxo bat kenduta  
esaten eban: «Donetsi bedi gure Yaungoikoa, bere  
aginduakaz donetu gaituana eta Bilebaikunde au emon  
dauskuna». Eta aitak naiz ingurukoen batek eran-  
tzuten eban: «Bere aginduz donetu gaitu, eta Abaían  
gure Aitaren itunben baruan sañtu gaitu». Epaleak

odola leortu, zauria osatu ta izena ezarfen eufson. Eta alkarri zorionak opa izanaz amaitzen zan. Onantxe betetan eben Yaungoikoak Abaŕan'i, bere eria bestea-kandik bereziteko agindu eufson au: «Yayoko yatzuezan mutil gustiak, bilebaituak izango dira eta bilebatze au Nire ta zuen artean eginda daukogun alkartasunaren ezeupide izango da.» (Gen. XVII).

Dakusgunez ba, Yosuk beartzen ez eban legea beteaz, menpetasuna, obendioen ikuŕa artuaz apaltasuna eta nekea gugaitik igaroaz, laztasun ta maitasun yaraibidea emon euskun.

Obenak (pekatuak) kentzen etorri zan eta *Yosu* (Gaizkatzale) izena artu eban. Izenik edefena Yaungoiko Aitak ipiñia izan zalako; egokiena bere izateaz bat bat dalako; gurgarfena berau entzunda, zeru lur eta gaiztokian belauna makuŕtzen dabelako; pozgarfena, «Izen au aifatzen dabena gaizkatuko dalako» (Rom. X-13). Izen gozo, samur-etzitsu au geure bizitzan safi erabili daigun, eta gure azken arnasa. ¡Yosut ¡Yosu! ¡Yosu! esanaz emon daigun.

## URTARILA 2

### Makari Deuna (394?)

Egipto'ko seme ospetsu au laztasunaen arigarfia izan zan. Guraso txiroen seme, bere gaztearoa ogigiñan igaro eban. Gero beaŕ, ziran ikasteak egin ondoren yaupari egin zan, eta ogetamaŕ urtearte Alexandrian egon zan. Adin onetan deun egiteko eukan garfak bultzatuta, lekaroan eskutau zan, eta Deun Andoni ospetsuaren ikasle egin be, eta antxe saspurtean bizi izan zan bedaŕak yanda. Laster deuntasunean galendu zan, bere ikasleak Goteuna bere gain eukala esateraño. Onbidean girñiak ipinten eutsezan erasgozpen guztiak, neuribako adorez azpiratzen zituau. Lizunkeru girña azpiratzeko eltxo ta listof izpi zoŕotzdunak egozan leiza baten bizi izan zan.

Aldi au igarota iñok ez ezautzeko eran agertu zan, zauriz eta andituz yosita. Yangaŕa (yan gurea) eziteko egunean lau bosŕ ontza ogi bakaŕik yaten ebazan eta garizuman igandetan bakaŕik. Bein lekaro'zeaf ogei egunean yan barik ibili zan eta aultasunez konorgetuta egoala Yaunak alatzez alikatu eban. Logurea

azpiratzeko ordu bi bakarrik egiten zituan eta bein ogei egun etxun barik igaro zituan.

Gero Tabenas'ko lekarora yoan zan Pakomio deun andiaren ikasle egiteko. Andik Nitria'ra igaro zan eta an bertako Patriarkak yaupari egin eban, nausitasun atara igoteko eukon bildurá garaitzeko alegin andiak egin ondoren. Eta bakarzale andia zalako Libia'ko lekaroan eskufau zan, baña Yaunak beste askoren irakasle izatea gura ebalako, bere inguru ikasle asko bildu yakozan, bere goi-yakituri az euren adimenak argitu ta yaumaitasunaz garáuten ebazararik.

Alatz (mirari) gile andia izan zan. Bein buruan eskua ipiñiaz beste barik yaupari bateri apurka burua yaten eutson bizien bildurgafia osatu eutson; beste baten leoi-kume bateri onetsiaz bakarrik itsukeria kendu eutson.

Atsekabe gustiak igarotearén Belente ariotar zñ- ausleak ugarte batera erbestetu eban eta ango ziñesgeak kistar egiten ebazalako bariro atara eban. Olantxe igaro eban bizitza, bere deuntasunagaz gustiak afitzen zitualarik, 99 urtedun 394'en urtean il zan. Bere lotatzai yaraitu ezin dautsogun ezker deuntasun onetzaz geldu gaitezán, eta bere onoi men apur bat eskatu.

### LIRTAÑILA 3

#### Genobebe deuna (512)

Genobebe deuna Paris'uri nausiko zaindari ta aldezlea, uri onen inguruko Nautere deritxon basurian yayo zan. Saspí urtedun ondiño zala, Jerman Auxere'ko gotzain deunak, bere gogo-ederitasuna ikusirik, neskatila au deun andi izango zala iragarí eban.

Gero bere gurari au betetearen Yosú-Kisto'ri opaldu eutson, ezaugaritza idunean gurutzatxo ipinten eutsolarik.

Neskatila onen bizitza gustia, onoi men arigariz inguratuta aurkitzen da. Amabost urtetik berogeta-maferañio eguen eta igandez bakarrik yaten eban. Bere alatz (mirari) ta iragarikiak Paris eta Parantze gustian ezagunak dira.

Afila, hunotaren bakalduna, berak esaten ebanez «Yaungoikoa'ren Zigoña», Paris ingurura eldu zanean biztanle gustiak bildur-ikaraz iges-egin gura izan eban, baña, Genobebe deunak artetu ebazan. Iñori ikuturik ezeutsola egingo iragarí eban eta esan eban lez gertatu zan.

Bein ugatzau (batiau) bako ume bat osin batera yausi zan eta itota egon aŕen deun onek berbiztu eban eta beste bein esku elbaŕidun bateri gatxa zearo kendu eutson.

Atila'ren gudariak Paris'en etzirala saŕtuko iragari ebanean, biztanleak soŕgintzat aŕtu eben, eta bizirik eŕetea erabagi be bai.

Baña berak esan eban lez gauzak gertatu zirala ikusirik, lengo goŕotoaren orde z biztanle gustiak itzal andiz begirutzen eutsoen.

Paris'tarak ogirik ezagaitik gudaldi baten laŕi aurkitzen zirala ikusirik, Genobeba, lagun batzuk aŕtuta etsai aŕtetik igaro zan, eta ontziak gariz beterik ebazala ibai erditik eŕira biurtu zan.

Ezautzen eben gustiak itzal andiz begirutzen eutson. Txilderiko bakaldunak kistaŕ izan ez aŕen maisun andia izan eutson, eta eriotz-epaipean egozan askori beragaitik parkatu eutsen. Simeon Stilita eritxon deun aŕigariak, Sorkalde urinŕetik bere izenean ikeŕtuteko orde zkoak bialtzen eutsozan, neskatila deun onen ospe ona, toki ain urinŕetara be eltzen zalako.

Larogeta bederatzi urtedun Urtaŕilaren 3'an il zan, eta andikiro obiratu ondoren Klodobeo ta Klotilde bakaldunak bere omenez eleiza eder bat iragi eutsoen.

## URTAŕILA 4

### Tito deuna Gotzaña (94)

Tito deuna guraso ziñesgeen semea, Paul deunak Yosukisto'ganatu eban, eta bere ikasle maiteenetariko ta bere lankide izan zan.

Paul deunak eutson maitetasuna idazki askotan agertzen dau. Bere anai maite, lankide zintzo ta gogozaletasun gaŕtsudun gizon lez aurkezten dausku.

51'gaŕen urtean Paul'eri Yerosolym'era lagundu eutson; beldu edo apostoluak bertan egin eben batzarean izan zan; eta Yosukisto'ren 56'gaŕen urtean bertako auzi ta kistaŕen artean soŕtu ziran asareak zuzentzeko Korinto'ra bialdu eban.

Bere lanak, arnari ederak emon ebazan. Asareak amaitu, auziak erabagi, eŕudunak damututea lortu eban, eta bertako kistaŕ txar bateri ezari zigoŕa parkatzeko Paul deunaganako bitaŕtekotzat autu eben.

Gero Kreta'ko gotzain autu eban, eta arazo goitaŕ onetan bere indaŕ eta alegin gustiekaz, Kisto'ganako maitetasuna zabaltzen alegindu zan.

Paul deunak, gotzain ona izateko arauak emoten idazki eder bat zuzendu eutson, urietan yaupari edo abade bañiak aututeko ta egiteko aginduaz.

Tifo deunak, bere deuntasun eta adimen zoliaz, Kreta ta inguruetako ugarite ilun artean argiak egiten daben lez dis-dis egin eban, eta bere bearkunak zearo betetako neke ta atsekabe asko igaro ondoren Yauna' ren besoetan, bere gogo dontsua ipinten ebalarik, larogeta amalau urtedun zala il zan.

Gotzain bikain onen gorpua, gotzain egin eben eleizan bertan 823'gañen urterarte egon zan.

Aldi onetan maumatañak urian sartu ziranean, burua bakañik aurkitu eben, eta Benezia'ra ekañita Markos deunaren eleizan ipiñi eben.

## URTAÑILA 5

### Simeon deuna, Padaña (462?)

Deun ospetsu onen bizitza, yañagari baño ari-gariago da. Zilizia'ko Lisan erian yayoa, amairu urtedun zala, eta etxeko abeltzaña, eleizan Goizpar-kiko itzok entzun zituan: «Zoriontsuak negar egiten dabenak». Itzok biotz bañeneraño sartu yakozan, eta bereala Eleiodoro deunaren lekaidetxean sartu zan. Bertan egin ebazan ildura ari-gariak zirala-ta, gustiak ariñzen azi ziran, bai ta batzuk iñartzi edo bekaitzez zer esanetan be.

Antxe amar urte igarota toki bakañagora yo eban, eta an ariñko esi bat egin eta ogei oiñ luzeko kate bategaz bere gorputza ari bateri lotu eutson, bertatik ez urtetzeañen. Melezio gotzain deunak lokariak kentzeko agindu eutson eta bereala kendu ebazan.

Gero lau oñeko ari esi baten gañera igon eban, bañero amabiko batera ta geroago ogetamaseikora. Astean bein bakañik yaten eban, eta beragana urera-zen zirana, biotz garñsuaz itz egiten eutsen obendi asko bide zuzeneratzen zitualarik.



Oñean zauri bildurgarri bat eukon eta osatzeko ardura barik neke miñik andienak eroapen andiz igaroten zituan. Eten barik otoi egiten eban. Bere deun ospea bazter gustietara zabaldu zan, alatzgile entzuteaz batera.

Eguzki, aize ta otz-beroak ezetarako estalki barik bere gain artzen zituan Atzeritar batek bein itandu eutson: Yauna'ren esan egidazu: Gizona zara ala gizon antzez yantzifako beste izakien bat? Deunak eskelara edo zurubi bategaz gora igoteko agindu eutson eta oñean eukon zauri ika'ragaria erakutsiaz esan eutson: Gizon naz, eta giza-gorputzaren zoritxarai lotuta nago».

Bere arizko abe azpian igandero yaupa edo mesa emoten eben, eta berak yauna'rtzen eban.

Milaka lagunak bere onuak entzuteko uferatzen yakozan, gexoak osasuna lortua eta agintariak bere otoi eta onuak eskatzen eutsoezan. Toki onetan ber-ogeta saspri urte inguruan bizi izan zan, otoi, laztasun, alatz eta gauza miragarriak egiten zitularik. Irurogeta bederatzi urtedun 462'gar'enean, otoi egiten egoala, belauniko, il zan.

Egun batzuetan gudariak bere gorpua zaindu eben, eta gero Antikoia'ra eroan eben bidean alatz andiak Yauna'k bere bitartez egiten zitularik.

## URTAÑILA 6

### Yauna'ren Erakuskundea ede E'regeen eguna



osu-Kisto ludi edo mundu onetan gizon eginda agertu zanean, bere yayotza aingeruen bidez artzañeri iragarri eutsen. Baña Yosukisto gizon gustiak gaizkatzearen gizon egin zalako, ziñeste bakoei be agertu be'ar yaken, eta oretarako euri egoki yaken ezaugarria autu eban.

So'rkaldean ixa' bakan bat agertu zan, argi berezia egiten ebana, eta e'rege yakitunak au ikusirik, zerbait esan gurako ebala-ta, ya'aitzeko asmo sendoa ar'ru eben. Eta iza' onek Bethleem' eraño eroan zituan. Gertaera au Matai deunak onantxe azaltzen dauku: «Yosu Yuda'ko Bethleemem, Erodes bakaldun zala, yayo zalarik, ara Aztiak So'rkaldetik Yerosolima'ra eldu ziran itanduten ebelarik: Non da yuda'ren e'rege yayo dana? Beren iza'ra ba, so'rkaldean ikusi dogu eta gurtuten eto'ri gayakoz.

Erodes bakalduna au entzunik artegatu zan, eta beragaz Yerosolima gustia be. Eta yaupari nagosi gustiak eta eriko yakitunak biltzen ebazalarik itandu eutsen: Kisto non yayoten da?

Eta arek erantzun eutsen: Yudea'ko Bethleem'en iragarleak alantxe idatzita dago-ta:

Eta zu Bethleem, Yudea'ko lurraldea, Yudea'ko nagosien artean txikiena etzara izango, nire erri Ixa'el yauriko daben buru edo nagosia zugandik urtengo dau ba. Orduan Erodes'ek azti edo yakitunei ixilean deituaz, eurekandik yakin eban iza'ra agertu yaken aldia.

Eta Bethleem'erantz bialduaz esan eutsen: Zoaze, eta umeatzaz arduraz itandu eikezue; eta aurkitu daizuenean, iragari egidazue, neuk be yoanda guritu dagidan.

Eta arek bakaldunari entzunaz bidean ya'ri ziran. Eta ara so'rkaldean ikusi eben iza'ra euren aur'etik yoyan, eldu zalarik umea egoan ganean gelditu zan arte. Eta iza'ra ikusi eben bere ama Miren'egaz, eta makurturik guritu eben, eta euren ondasuntegiak zabaldurik, emaitzak aurkeztu eutsuezan; ufe, kedatz eta mi'ra.

Eta amesez goi-gastiguz Erodes'gana ez biurtzeko iragari eutselako, euren lurraldera beste bide batetik biurtu ziran. (Math. II-1613).

## URTA'ILA 7

### Peñafort'eko Er'aimundo deuna (1275)

Peñafort'tar Er'aimundo deuna, kataluñara izan zan; guraso andikien semea. Bolonia ta Barzelona irakastolefan yakiturian gal'endu zan, eta Barzelona'ko kanonigo zala, bere lagunak ikasbide ede'akaz gogo-zaletu zituan.

Domeka deuna il da zortzi ilabete baru domekatar soñekoa deuna ar'u eban, Gau baten ikuskizun ari-garia euki eban, eta beronek lez, Nolasko Pedro ta Yakobo Aragon'eko eregek, eta goiko gauza zala iga'irik iruron artean Merzedatar'en Gopatza (Ordena), kistar' yopuak azkatzeko irasi eben. Gopatz irasleatzat Nolasko deuna etsifen dabe, gogo lez Er'aimundo deuna izan zan eta laguntza Yakobo bakalduna. Mairuen kaltez guda deuna iragari eta onura andiz egin ondoren, Doipuru edo Aita Santuak bere auto'rentzule autu eban, baita Eleiz legeak biltzeko agindu be bai, eta saritzeko Taragona'ko Gongotzain autu gura eban, baña apaltasunez eban mala ore-tara igon.

Bere lastasunakaz auldutako osasuna sendotzeko, España'ra bihurtu zanean, gopatzako azkenengo anai bat lez bizi izan zan. Onetan domekafaren bigarren nagosi orokor Yordan Koldobika il zanean, bera gustien nagosi autu eben, baña lekaretxe gustiak ikeritu ondoren arazo guren au itxi egin eban.

Aragon'go bakaldunaren autor-entzule zalarik, zuzen ez ebilelako egun baten kemen andiz esan eutson: «Autor-entzuleak esaten dautzuna egiten ezpa-  
dozu, autor-entzulerik ez dozu bear; eta gurago dot bakañik zerura yoan, biok gaiztokira yoatea baño».

Lanean ez zan nekatzen eta bere lana onuratsua izan zan, amañ mila ziñesge baño geyago onbideratu zituan ba.

Bere bizitzako azken urteetan, eregek Malorka'ra deitu eutson; baña deunak oartu ebenean bizikera txara eroyalak bakaldunak, Barzelona'ra biurtzeko erabagia artu eban. Bakaldunak ez eutson laga, eta itxasoá igaroteko batelik emongo eutsona be eriotzaz zematu eban. Orduan Eraimunda deunak kendu estalkia, bere esku makilari lotu eta bere gañean itxasontz baten lez, bost orduan beogeta amairu orduko bidea itxasoz egin eban.

Alatz andi au askok euren begiz ikusi eben, eta bere ospe ta entzuten ondiño zabalago egin zan. Bakaldunak berak, alatz onen argiz bere okera ezaguturik, bide txarrik itxi ta on bidean sartu zan bere autor-entzule zuzenaren menpean yafirik.

Ondiño urte batzuetan bizi izan zan, astirik geyena lagun-urkoari on egiten emonaz. Azkenez bere bizitza onbidetsuari zegokion eriotza deun baten ondoren, 99 urtedun zala, betiko zorionera iges egin eban.

## URTARILA 8

### Yustiniano Lorentzo deuna (1465)

Lorentzo edo Laurentzi deuna yatoriz sendi ospetsukoa Benezia'n yayo zan. Txikitatik zaren sentzuna agertu eban. Emeretzi urtedun zala, ikuskizun miraritsu baten bidez ludia itxi ta Yaungoikoari bere bizi gustia opaltzeko erabagia aritu eban. Yaunaren deyari erantzuteko eragozpen andiak azpiratu bea' izan zituan, batez be bere ama Kiriña'k neskati'a aberats bategaz eskontzea gura ebalako. Azkenean be, Alga' ko Yorke deunaren kanonigo lekaretxean sartu zan. Bere griñak eta aragi zalekeriak eziteko arigarizko laztasanak egiten ebazan, eta argala zalako bere osasunaren bildurez nagosiak baten baño sariago bere laztasanak leuntzeko agindu bea'ean aurkitu ziran.

Gustiz apal eta Yaungoiko zale utsa zan. Bein Gabon gabaz yaupa emoten egoala Yaungoiko-Ume edera bere begiz ikusi eban, eta konorgetuta gelditu zan. Bere senera etori zanean, yaupa laguntzaleari ifandu eutson: «Ain Ume edera'gaz zer egingo dogu?»

Lekaide buru zala IV'en Eukeni Doipuruak, Benezia'ko gotzain autu eban. Alegin gustiak egin eta

negai egiteraño eldu zan gotzaintza ori ez aritzeko baño azkenean menpetasunez burua makuritu bea'ean aurkitu zan.

Txiro landeren aita izan zan. Batez be txiro lotsatien poza, eta nayago eban, bea'izana ez eukonari nozbait emotea, bea'izana eukonari atzipetzeko bildurez, ez emotea baño. Iragarle ta biotzak aztertzeke emaitz arigarria Yaunak emon eutson Bein yaupa emoten egoeala goterki txadonan, gexorik egoan lekaime bateri, eleizatetik aldendu barik gure Yauna emon eutson.

Bere onbideak zirala-ta, Nikola V'ak Benezia'ko Patriarka egin eban.

Idazti edera'k eta asko idatzi zituan, bere adimeneko argitasun eta biotzeko maitasuna argiro agertzen dabenak. Deunen usain gozoa inguruan zabaladurik urtez eta irabaziz beferik, bere bizitza amaitu eban betiko bizitza aritzeko.

Gorpu deuna bere gurariz Alga'ko Yorke deunaren lekaretxean obiratu eben.

## URTARILA 9

### Julian eta Basilise deunak (307)

Yulen deuna, antikiatarā, guraso kistāren semea. Basilise deunagaz eskondu zan egunean bertan, bere emaztearen bayetzaz garbitasuna zaintzea erabagi eban, eta Yaunaren guraria aritu eben asmoa betetzen zanaren ezaugaritzat, euren gelan lařosa usain gozoā somau eben.

Gurasoak il yakezanean aberastasun ugarien yau-be egin ziran, bařa laster ezeuki ta gexoan artean zabaltzen asi ziran, bitartean kistar irakatsiak zabal-tzen gogoz alegintzen ziralarik.

Diokleziano ankerak eta aldi atan kistāren kaltez lege gogořak emon ebezan arēn, Basilise arapatzea ez eben lortu, eta bizi deun baten ondoren, gexoz il zan. Yulen arapau eben ta bere etxea eřeaz gařera, katez inguruturik txaidetik txaide erabili eben, eta gero espetxe ilun baltzean giltzapetu eben.

Epai egunean galdeak egiten ziarduen artean ziřes-ge batzuk ildako bat, biztuteko agindu eutsen. Esan eta egin Yulen deunak, Yosu-Kisto'ren izenean, ilda-koa guztien aurrean biztu eban, eta gustiz aritu ziran

batez be biztu eban gizonak, Yosu-Kisto autortzen ebala ikusi ebenean. Lendakari itsuak, yazokun ari-garia zoginkeriz egin ebala-ta egia autortu bearean, biztutakoa be zigorpetu eban. Suzko upel baten saritu zituan, eta su artefik ezertako kalte barik urten eben; gero abere basati artera yaurtirik, arek be ezeutsien ezer egin.

Azkenez, lendakaria lotsaz beterik kistar zintzo aren sendotasuna garaitu ezin izan ebalako, asarez beterik, burua ezpata mostuteko agindu eban.

Eta alantxe Yauna'ren besoetara Kisto'ren gudari adoretuok egaz egin eben.

## URTARILA 10

### Amarante'ko Gontzal deuna (1260)

Deun bikain au Braga'ko goter'kian dagon Tagilde deritxon base'ri baten yayo zan, 1187'ko urtean. Txikitatik yauparitzarako deya somau eban. Bere buru argi ta ontasuna'ren ikasle ta irakaslearen kutuna izan zan.

Yaupari eginda Pelajio deuneko txauburu autu eben. Bere bea'kunak gaztea izan a'ren zintzoro ta za'ren sentzunaz bete zituan. Urte batzuk igarota, bere biotz Yaungoiko zalea, Kisto gurutzalduaren maitasunean gar'futa eukon, eta gurari bizia eukon Kisto'k bere odolaz eskotutako Lu'f deuna ike'rtzeko, eta o'retarako loba baten ardurapean elizta'ak itxi eta Palestina'ra zuzendu zan. Bere biotza maitasun lokariak lu'f deunari lotuta lez euki eben, eta antxe amalau urte igari barik igaro yakozan. Ba'iro biu'rtu zanean atsekabez yakin eban eska'rtxareko lobeak, osabeak il zala-ta izpa' eta agiri guzu'rezkoakaz, txauburutza beretzako ar'tu ebala. Irain eta laidorik baltzenak eroapen andiz igaro zituan. Bere bizitza deunak biotz gustiak beraganatzen zituan, eta kista'ak emoten eu-

tsenagaz, Amarante'ko Tamaka eritxon ibai ertzean egoan lekaro baten, Miren Amaren aintzaz basatxano bat iragi eban, baka'rean biziteko asmoz, ba'ia bere ospea laste'f inguruak etxe bete zituan.

Ama Birji'ñaren onuz domekara'ren so'neko deuna ar'tu eban, eta ba'iro bere baka'rtoki maitera biu'rtu zan. Antxe gogoak zeruratzen, gogo osoz alegindu zan ikasbide ta irakaskizun ede'ren bidez.

Gizosteak bertarako bideak e'fartzutea'ren zubi bat egin eban, eta abitzak di'ño'nez, zer yakin ez eukenean langileak, berak deituta eskura e'fortzen ziran a'ra'ñe-kaz alikatzen zituan.

Antxe azken ordua eldu yakon eta onbidez eta irabaziz beterik deun eriotzaz azken arnasa emon eban, 1260'ko Urta'ila'ren 10'n.

Deunen izendegian III'gn Yulio'k ipi'ni eban.

## URTAÑILA 11

### Teodosi deuna, Lekaipurua (529)

Teodosi lekaide edo padañen aita deritxona, Kapa-dozia'ko baseñiko seme izan zan. Ikaste sakonak egin ondoren irakasten alegindu zan, eta onfasunean go-rengo malara eldu gurariz, Luñ deunak ikertu zituan.

Antiokia'ra eldurik, Simeon deun ospetsua abe ari baten gañen bizi zana ikeñtu eban. Bere onuak entzun eta osoan Yaungoikoaren maitasun bideari yañaitu eutson. Lekaideixe bat iragi eban, eta txiroak euren etxean lez bertan biltzen ziran. Asko batzen ziralako lekaide lagunak yatekorik ez ebela-ta, bialtzen asi ziran, baña Teodosi'k ezaban gura ori egi-terik, eta mirariz gustientzat beañ zan yanaria lortuten eban.

Bere inguru bildu ziran lekaide artean, yakitun, altsu, eta aberats asko aurkitzen ziran; eta zerbait adirazteko bere aurretik 693 il zirala yakitea naiko da. Oneitatik gotzain eta nagosi asko izan ziran.

Akefalos edo burubako eritxoen ziñausleen aldez egoan Anastasi bakaldunak beragantzeañen txindi asko bialdu eutson, eta berak txiroartean gustia za-

baldu ondoren erantzun eutson, ez berak ez bere menpekok ziñausleakaz añtueonik ez ebela gura, naiz ta ori egiñaz bizia galdu. Zañtuta egon añen, ziñausleen kaltez itzaldiak egiten eñirik-eñi ibili zan, eta Kaltzedonia'ko Eleiz Batzañaren kaltez ebizen ziñausleai egun baten bilduñ barik auxe esan eutsen: «Lau Eleiz Batzañak Goizpañkia lez aintzat añtzen ez dituezanak gaiztetsi ta doibazkatuak izan beitez». Orduan bakaldunak erbestetu eban, baña oñestu batek lasteñ bizia kendu eutson bakaldun gaiztoari, eta bañi-ro be aintzaz beterik biurtu zan.

Bere bizitza luzean mirari alatz asko egin zituan, sañitan ogia ugaritu eban, Antiokia ondatu eban luñ ikarea aurrezтик iragañi eban, eta irabaziz beterik bere burua eriotzeari makuñtu eutson, bere bizitzako eun eta bost urte eukozala.

## URTAÑILA 12

### Benito deuna lekaidea (702-620?)

Benito deuna, Nothunberland, Ingalateña'n yayo zan. Bakaldun inguruko andikien artekoa izan arien, sendiko aintza ta aukera gustiak ezetsita, gaztetatik Idazti deunak ikasteari ekin eutson. Ogetabost urtedun zala, ikasketa sakonagoak egiteko asmoz Eróma'ra yoan zan. Andik biurřuta, bařiro beste osterá bat egin ebanean Leiins'era etořita, lekaide soñekoa yantzi eban, eta uri onetan urte bian egon zan.

Erti yankintzetan oso aifua izan zan, eta zaletasun au sendoagotuteko Eróma'ra, ainbeste erti lan edeř gordetzen dituan urira beste osterá batzuk egin zituan. Andik etořita lekaretxe batzuk iragi zituan, euron artean Weremouth'ekoa eta Jarrow'eko ospetsua, irudi, margo eta iragikeran, Benito deunak eukon ertilari gogo ta yakintza agertzen dabelarik.

Gergoritar abestikerea berak Ingalanda'n sařtu eban, baita eleizkizun onen zalea zanez, beař dan itzalez egiteko arauak emonaz, idazti bat argitaldu eban, *Yai ospatzea* eritxona. Gexo ikaragari bat igaró eban, bere yaunamaitasuna gitxitu barik eroapen

andiz yasan ebana. Iru urtean elbařituta igaró zituan, eta gexo-aldi onetan berak ain zintzo betetan eban arautegia ondo betefeatzaz, onu edeřak bere menpekoei emon eutsezan.

Bere gogoko otzantasuna ta adimeneko argia erioztaldirarte euki ziruan, eta yakituri ta ontasuna ba-kařik ludi onetan zabaldu eban deun andi au irurogeta amasei urtedun, irabazi eben betiko saria ařtzeko donokiratu zan Urtañila'ren 12'an.

Bere gorpua Weremouth'eko lekaretxean obiratu eben, gero daniatařan bilduraz Glastenburgo'ra al-daturik. Ingalanda'k abeřtzale bat, erti-yakintza zaba-řtzale bat, galdu ba'eben, beneditařen gopatzak Deun bat irabazi eban, eta zeruak iñoz itzaliko ez dan izar bat.



## URTARILA 13

### Pelix deuna, yauparia (270?)

Kanpania'ko Nola'n yayo zan Pelix edo Peli deuna, eta txikitatik umezurtz gelditu zan. Bere ondasunak txiro, landaren artean bananduta, abadetzarako bidea artu eban. Peli yaupari egin zan aldian, Eleizaren kaltez bere etsayak ekaitz bildurgarria yaso eben, eta Nola'ko bakaldun-otseñak, Maximo, bertako gotzain zara arapatzeko, eldu ziran. Bere artaldearen maitasunaz mendi bakañ batera iges egin eban, eleiztarak Peli deunaren ardurapean itxita.

Baña Peli deuna be arapau eben, eta estuntzaz beterik tela zati zorotzez betetako espetxe ilun baten sartu eben, atsedean aldirik eta lorik euki ez eikian.

Bitartean gotzain gurgarria atsekabeturik, bere artaldea gogoan ebala, otz eta gose andiak igaroten aurkitzen zan. Baña deun biontzat pozezko eguzkiak laster argi egin eban. Yaunaren gotzon batek, Peli espetxetik afara eban, eta gotzain zara aurkitzen zan mendiraño eroan be bai. Peli deunak bere gotzaña aulduta lurrean aurkitu eban, eta besarkatu ta bere aldez otoi egin ondoren, urëan ikusi eban mats-mordo

baten uraz bere senera erakañi ebanean, lepoan artuta ixilean urira eroan eta atsotxo on baten ardurapean ekaitza igaro arte ipiñi eban. Bakaldun-otseñak bidean aurkitu baña ez eben ezagutu. Peli yauparia ezagutzen eben itandu eutsoen, eta berak arpegiz ez ebala ezagutzen erantzun eutsen eta ezeutsoen ezer egin. Baña gero an inguruan ebilela yakin ebenëan bere bila asi ziran, eta bera orma zar artean ostendu zan, eta inguruan ebiltzala Yaunak bapatean amaraunez estaldu ebalako ez eben ikusi.

Ekaitza apur bat baretu zanean, bañero bere eritarak adoretuten ekin eutson batez be onoinenerako bideak erakutsiaz. Onetan Maximo gotzain zara il zan eta gustiak ao batez bera aukeratu gura eben baña, berak adirazi eutsen Kinto eritxon yaupuru deun bat aukeratzeko. Yasarpen aldian ondasun gustiak kendu eutsoezan. Ondasunok legez beragandu leikezala esan eutsoen baña berak erantzun eban: «Yaungoikoak ez dayela gura izan, Yosu-Kisto'gaitik galdu dodana bañero eskuratzea». Eta alantxe txiro, baratzatxo baten, artzen ebanaz bizi izan zan, Urtarila'ren 14'an deun-tasun keterik il zan arteraño.

## URTAŖILA 15

### Paul deuna, lenengo padaŖa (342)

BakaŖzaletasun eta Yaungoikozko bizitzaren eredu bikaŖ eta ospetsu au, guraso aberatzakandik Tebaida'n yayo zan. Amabost urtedun umezurtz gelditu zan. Adin onetarako gerkaŖ eta egiptotaŖ eleŖtiak ikasi zituan.

Aldi atan Eleizaren kaltezko lege gogoŖak emon zituezan eta Paul baseŖi batera aldendu zan. BaŖa bere eskon-anai biotzgabeak kistaŖen etsayen eskuetan ipiŖi gura ebala ezaguturik, lekarora iges egiteko erabagia aŖtu eban eta mendi egaleko aitz zulo baten eskufau zan.

Toki aretan aingeru bizitza egin eban, palma oriak yantzi, bere igaliz yanaritu eta ura bakaŖik edanaz. Larogei urtean gizon bakaŖ bat ikusi eban, Andoni deuna, ainbeste padaŖen buru izan zana, eta Yaunaren deyez bertaratu zana. Maitasunik andienaz besaŖtetu ziran, lendik ezagun andiak izan ba'ziran lez, alkaŖi euren izanez deiturik. Itz egiten ziarduela, bela bat yatsi ta euren aŖrean ogi bat itxi eutsoen. Orduan Paul Deunak Andoni'ri esan eutson: Yauna

ainzaldua izan bedi! ekizu anai maite oŖek, bela onek irurogei urtean egunoro ogi erdi bat ekaŖi daustala, eta gaur zu etoŖi zaralako Yaunak ogi osoa bialdu dausku. UŖengo goizean bere eriotzea ur egoala adirazo eutson, eta Atanasi deunaren estalkia ekaŖteko agindu be bai, gordeta eukola bai'ekiala-ta, eta antxe bere gorpua biltzeko.

Agindu au betetan eban bitaŖtean bere lekaikideak bidera urten itandu eutsoen: Aita; non egon zara? Eta Andoni deunak erantzun eutsoen: Elias eta Yon Uguztalea lekaroan ikusi ditut eta Paul deuna donokian.

Anastasi deunaren estalkiagaz biurtu zanean, go-tzon eta deunen erdian Paul deunaren gogo dontsua zerura joaten ikusi eban, eta bakaŖtokira eldurik deunaren gorpua aurkitu eban belaunik otoi egiten iloŖzik. NegaŖez laztandu eban, eta obiratzeko zegaz il obia egin ez zekiala, bapatez lekarotik leoi bi urten ziran, eta euren erpaz zuloa egin eutsoen. Leoyok euren zeregiŖa amaitu ebenean, Andoni deunagana bere onespena aŖtzeko uŖeratu ziran. Eta Paul deunak esan eutson: Atanasi deunaren estalkiaz gorpua bildu ta obiraturik, toki bakaŖ aretatik aldendu zan.

## URTARILA 16

### Pulgentzi deuna, Gotzaina (630)

Gotzain goragari au Kartajena'n yayo zan. Leander, Isidoro, eta Plorentiñe iru deun andiren anai izan zan. Gerkera, iberkera, siriakera ta italera izkuntzak ikasi zituan, eta idatzi Deun ikasketan yakitun-yakituna izan zan. Yosu-Kisto'ren yaungoikotasuna aldezteko ariotarakaz ezpai gogarak euki zituan, eta bere yakituri az lotsafuta zer erantzun ezekiela saritan itxiten zituan. Au zala bide, Sebila'tik bere anai zan erege Leobijildo'k erbestu eban, eta neke, ta gose-egari asko Kartajena'ko espetxe baltz baten igaro bearean aurkitu zan. Alan da be, kistarak idazki bidez adoretuten alegindu zan, kistarak irakatsiaren alde odolerañokoa emoteko gertu egoteko esanaz. Batez be bere loba Ermenegildo'ri esaten eutson, bere aita ziñauslearen guzura ziñistu baño len, bizia galtzeko esaten eutson aitari baño Yaungoikoari men egitea beñego zala-ta. Eta Ermenegildo'k alantxe egin eban. Aita ankefaren aginduz bizia kendu eutsoen.

Aita azkenengo gexo aldian damutu zan, baña ez bere onerako, goitara damua ez zan izan da. Bere

seme Rekaredo'k agintza aritu ebanean gentza etori zan, eta erbestetuta egozan espaiara gotzaiak euren artaldeakana biurtu ziran, eta gustien pozaz euren artean Pulgentzi deuna. Rekaredo'k ziñausle ziñestea Toledo'ko Eleiz batzarean itxi eta katolikotaren aritu ebanean, kistara atzipetuak be katolikotara artaldera biurtu ziran. Pulgentzi deuna, Sebila, Ezija, Kartajena'ko gotzain arduratsu izan ondoren, on asko agiñaz, idatzi sakonak idatzi eta onoinenez beterik deunen eriotzaz azken arnasa emon eban.

Bere Gorpurkiñak Murzia'ko gotzain-txadon eta Eskorial'en aurkitzen dira.

## URTARILA 17

### Andoni deuna, Lekaipurua (356)



**D**EUN ospetsu au Egipto'ko Komo eritxon erian yayo zan. Guraso on eta andikien seme au, 17 urtedun umezurtz gelditu zan. Bein mezetan egola itz oneik entzun zituan: Deun izan gura ba'dozu, zoaz, daukozuna saldu ta txiroai emoyezu, eta donokian ondasuntegia

izango dozu.» Goizparikiko itzok, Yaunak berari zuzenduteko lez aitu zituan eta etxeratu zanean, bere afebari yoakona emon eta enparaua txiroen artean banandu eban. Lekaroan ziran artean deun andi bat eredutzat aitu eban, baña beste gustiak eukiezan onbide-etafik, erle langileen antzera onbide gozotasuna beragantzen alegintzen zan.

Gogoen etsaya bere auferapenak izaturik, alegin gustiak egin zituan deun andi oneri bakaftasuna itxi eragin, eta ludiko atseginetara biurtu eragiteko, batez

be lizunkerizko zirikaldi bildurgarriak begien aurrean ipiñita.

Onez gañera ikuskizun itzal eta zigortzez baita beste era askotara, bilduruta ipiñigura eban. Baña deunak, otoi eta ildura edo laztasunaz gustiak azpiratu zituan, eta, bakañik, ogei urtean, an zulo baten bizi izan zan.

Baña bere ikasle izan gura eben asko beragantzen asi ziran, eta lekaretxe ugariak egiteari ekin eutson, eta aldi gitxi bañu arigarro ugariturik lekaroa eri andi baten antzera etxe deunaz bete zan.

Kistañ asko airtuta Alexandria'ko espetxera eroaten ebezala yakiñik, Kistogaitik ilteko gurari bizia agertu eban, baña au Yaunak gura ez ebalako, beintzat besteak adoretuteko alegin aundiak egin zituan.

Alatz (mirari) aundiak egin zituan, eta 105 urtean bizi izan zan ludi gustia bere deuntasun eta onoinenakaz airtuten ebalarik. Bere ikasle biri agindu gorpua obiratzeke, baña non obiratuko eben inok yakiñterik ez eban gura izan eta pozez beterik bere azken arnasa emon eban.

## URTAÑILA 18

### Pedro deunaren irakastolea (48)

Eleiza Amak berariz ospatsen dau Kepa edo Pedro deuna bertafik gizadia zuzentzeko, Erroma'n sartu zan eguna. Yosu-Kisto'ren Yayokundetik 48'n urte inguruan gertatu zan.

Kepa deunak, goiko argiz, Yosu-Kisto Yaungoikoaren Seme ta gizadiaren Gaizkatzale autortu eban, eta Yosu-Kisto'k berak irasi eban Eleizaren oñaritzat autu eban. Kepa deunari donokiko giltzak emon eutsotzan, «berak luñean lotuten ebana, lotua eta azkatzen ebana, zeruan be azkatua izango zala» adiraziaz.

Toki onetatik ogetabost urtean gizadiari zerurako bidea irakatsi eutson, eta arézkero ogei gizaldi igaro diran arén, bere yarlekuak eta irakastolak Erroma'n dirau. Kisto da Eleizaren buru ta bizitza damotsona da, baña Erroma'ko Gotzaña ikusten dan buru ta bere ordeazko bakaña. Kisto gure Yauna'ren abintza da: «Gaiztokiko atea Eleiza iñoz ez dabela garaituko» eta abintza au batez be Doipuruari dagokio.

Kepa deuna Neron agintari ankeñaren aldian Erroma'ratu zan; txiro, yantzi urafuz, ortozik eta bidezti-

-makila eskuetan eroyala. Ez eukan indarrik, ez aberastasunik, ezta luñeko yakituririk be, eta alan da gusti be agintari altsuen indarrik, andikien aberastasuak eta luñeko yakitunak bere kaltez yagi ziran arén, eragozpen gustien gañetik garailari agertu da. Ogei gizaldi igaro dira, eta bakaldun eta agintari gustiak bata bestearen ondoren ondatzen diran bitartean, Kepa'ren irakastolak iñoz baño sendoago dirau.

Etsayak Eleiza obiraltzeko saritan gertatu dira, baña Eleizak ekaitz gustien erdian itxas-uin erdian arkaitzak lez zutik dirau, ludiari etsai gustien ondarena iragaritzeko. Zelan? Ez beintzat gizon indaréz au eziña da-ta, goiko indaréz baño. Eta toki orétan Kepa ludiko argi ta zuzendari izan dan lez, orain geure Doipuru gurgarí XI'n Pio da, eta ondorengo gustiak be olantxe izango dira ludiaren azkenerarte.

## URTARILA 19

### Kanuto deuna. Dinamarca'ko bakaldun (1087)

Kanuto deuna izen onetako laugarrena; bakaldun eredu eta deun izateko yayo zan. Txikitatik gudalburu azkararen gaitasuna agertu eban.

Itxas-lapuñen garailari izan zan, eta Serbia, Kurlandia, Stonia ta Smotijia'ko basatiak mendu zituan. Guda gustietan garailari izan zan. Gero, gustien onerako gogo osoz lanari ekin eutson. Lege zur eta zuzenak emon zituan, oiturak onduteko gaitasun andiko gizon zuzenak bere ingurura ekarri, ta txiroen onerako etxe eder asko iragitea izan zan bere ardura gustia.

Ordu osoak gure Yaunaren auréan igaroten zituan; eta Miren Ama garbiaren seme kutun lez bizi gustia igaro eban. Gauza gustiak zuzenduta eukozala, gogoen etsayak, ainbeste on yasan ezinik, gizon gaiztoak bere kaltezko itunben baltza egiteko bultzatu zituan. Uzkuetz (erlejiño) ta zuzentzaren etsayak itundu ziran ba, eta bein yaupa entzuten egoala, eleiza ingurututa bera ilteko latzaz uferatu yakozan. Bere burua iltzeko zorian ikusi ebanean, belaubikotu zan, eta bere

bizia Yaungoikoari itz oneikez opaldu eutson: «Nik Yauna, daukodan bizi apurra zeuri eskintzen dautzut; Zure Eleiza aldeztute añen ilten naz, arñu egizu nire opalbena, ni iltzeaz egiten daben obenatzaz neure etsayak damutu daitezala egizu; neuk biotzez parkatzen dautsedan lez zeuk be parkatu dayoezun». Itzok amaituak bere gogo dontsua betiko zorioneko saria artzeko donokiratu zan.

Deun andi onek alatz andiak egin zituan batez be, gexo txar batez Yaungoikoak Dinamarca zigortu ebanean. Deun oneri eskatzea zan osatzeko bide ereza. Kelemente X'ak deunen artean ipiñi eban.

## URTARILA 20

### Sebastian deuna (288)

Diokleziano, kistañen etsai amorañuaren gudañburu arteko izan zan Sebasten deuna. Espetxeak kistañez beterik ziran aldian, Sebasten'ek bere altasun guztiaz laguntzen eutsen, kistañen aldez egiteak bere bizia galtzeko ariskuan ipinten ebala yakin añen be.

Bere irakatsi ta ontasunez zinañesge asko kistañ biurñu zituan, eta laureuneraño ugutzau (batayatu) zituan. Euron artean Kromazio eritxon agintedun bat bere sendi gustiaz, yopuak (esklabuak) bañu zirala.

Baña deun bikañ onek ixilean egiten eban lana, goiz edo belu azaleratu beañ. Azkanean be, bakaldunaren añañan salatu eben, kistañ aldez gogor lan egiten ebala-ta, eta Diokleziano, mindurik kistañ irakatsiak bere yauregian be sañtu zituñalako, beste auzi barik azkonakaz ilteko agindu eban. Epai gogor au betefako, zugatz bateri lotu te zauriz yosi eben, iltzat bertan bera itxirik.

Emakume dontsu bat, gaba eldu zanean bere gorpu deunaren bila yoan zan, eta aritunik ikusi eban

oindiño bizirik egoala. Ixilean arñtu ta bere etxera eroan eragin eutsen lagun batzuri, eta zauriak osatu arte eskutauta euki eban.

Osatu zanean, burua eskutatzeke agindu eutsoen añen, gazte adoretzu au, bakaldunari aurkeztu yakon, eta bere ankerkeria aurpegira yaurtita kistañen aldez itz egin eutson. Diokleziano arñtuta gelditu zan Sebasten berbiztutzat etsi ebalako, eta alan da gusti be, bere biotz gogora otso amorañtu bat lez asañetu zan, eta yolastokira eroan eta zigorez erailtzeke agindu eban.

Eta Kisto'ren gudari adoretzu au onantxe il eben.

Kayo Doipuruak ugatzau ebanean esan eutsozan itzok ondo bete ebazan: Zoaz ordu onean eta bakaldunaren yauregian Kisto'ren aldezlari bikaña izan zaite». Bere gorpua kistañak maitasunez obiratu ez eikean uriko sastegira eroetako agindu eben baña Yaungoikoaren erabagiz Luzine emakume deunari agertu yakon amesetan eta agindu be bai, egur batefik zinzilika gelditu zala-ta atara ta Katakunbetan, Kepa ta Paul'en oñetan obiraltzeke; Emakume onek pozez beterik zintzoro agindua bete eban.

## URTARILA 21

### Ines deuna, neskuts eta ziñopa (304)

Ines deuna amairu edo amalau urtedun zalarik; Yosu-Kisto'ren ziñeste aldez bere bizia emon eban neskatiñ bikaña izan zan.

Erroma'ko yaurlariaren semeak bere emaztetzat gura izan eban, eta bereaz urtetako iñon diran adi-guri, eskintza ta baita zemakuntzaz alegindu zan.

Baña Ines deunak Yosu-Kisto'ri bere izate gustia eskini eutson, eta, bere biotzean ez eban gura Yaunganako maitasuna baño besterik.

Yaurlariak, Ines kistaña zala yakin ebanean eta egun bateko epea emon eutson bide bata ala bestea aukeratzeko: ala bere semearen emazte izan, ala nekerek ikaragarienen erdian bizia galdu. Gazte adoresu onek emon eutson erantzunak, artuta eukon erabagiren sendotasuna agertzen dau:—Ainbeste asti ez dot bear; askozaz obeto yatorf iltea, eta neure garbitasuna, ziñopa (martiri) burestunetz apaiñtzea». —Yaurlariak gaiztoak erantzun eutson:—Toki txarara eroango zaitugu, eta zeure garbitasuna galdu eragin. —Eta orduan Ines deunak erantzun eutson:—Orek

gaiztakeriok guzuzeko yainkoak bururatzen dauztuez, baño ez dauzet bildurik, nok zaindu bai daukot-eta.

Estuntzaz beterik yainko-izunakana eroan eban eta indarez kedatz luñuna opaldu eragitean kurutzea egin eban, eta beste barik, lizun tokira eroan eban. An baño Yaungoiko onak bere aldez urten eban; bapatean goiko argiz inguratuta aurkitu zan, gustiak izufuta gelditzen ziralarik, eta yaurlariaren seme gaiztoa bertan ilda gelditu zan.

Aitak izufuta bildurez beterik, bere semea biztuteko agindu eutson, eta Ines deunak bere guraria bete eban, ta baita biotzez autortu be, Yosu-Kisto egizko Yaungoiko zala. Mirari andi au ikusi añen au ziran gizon gaiztoak ez ziran onera biurru; orduan zorgintzat artu eban eta bizirik eretako agindu.

Suak baño ez eutson ikuturik be egin, eta yaurlariak eña Ines deunaren aldez yaikiko ete zan bilduraz, burua mostuteko agindu eban, eta alantxe betiko zorioneko ateak idigi eutsoezan.



## URTARILA 22

### Bizente deuna (304)

Ueska'n yayotako gazte goragari au txikitatik ikastun eta yaungoikozale izan zan. Balerio Zaragoza'ko gotzainak bera zara zalako, ordezko izlari autu eban.

Daziano yaurlari zala, kistañen gorotoz, Balerio ta Bingen deunak espetxeratu zituezan. Baleriano, erbestetuta Belenzia'raño eroan eben, neke ta loñez, gosez eta zigorez, eta Bingen deuna gogorkiro zigortzeko agindu eban. Burdiñezko atzazkalez bular-lepoak uratu eutsoezan, baña Bingen'ek jai enel bat, alaru bat egin barik, bere zigorizaleai esaten eutsen: ¡Ondo argalak zariel ¡Adoretuago etsiten izan zaituel!

Gero burdiñezko oe goñi baten ipiñi, ta bularak ere ondoren zauriak gatzaz igortzi eutsoezan, baña au gora bera Bingen'ek bere etsayei ixeka egiten eutsen. Orduan Daziano'k espetxeratzeko agindu eban. An goiko argiz eta gotzonez inguratuta aurkitu zan. Gudari-zaindaria iges egin ebala uste izan eben baña berak esan eutsen: Ez dot igesik egin ez; emen-

txe nago ta egongo naz, saftu zaiteze eta txastatu egizue Yaunak bialdu dausten poz apur bat, eta ortik ezagutu nik gurtzen dodan Bakalduna andia dala, eta egi au ezagututa gero, Daziano'ri neure izenean esan egiozue, oñaze bafiak gertau dagizala, ni osatuta gertu nagola, neke bafiak igaroteko.

Urrengo egunean Daziano'k zauri gustiak osatuta ikusi ebanean, oe bigun baten ipinteko agindu eban, eta deunak toki onetan agertu eban, aukeran nekeak baño min geyago emoten eutsela, bertan azken arnasa emonaz.

Bere gorpu deuna, txakurari lenen emon eta gero itxasora yaurti eben baña Yaunak alatzez zaindu eban, ete kistañak uri ondoan obiratu eben, eta gerora toki atan bere omenez eleiza edera iragi eben.

## URTARILA 23

### Ildepontso deuna (669)

Ildepontso deuna bere amak, Miren Ama deunari, yayo baño len, opaldu eutson; Amak ardura-arduraz asi eban. Sebila'ko gongotzain, Isidor deuna irakasle ebala, amabi urtean ikasketa eta yaungoiko zaletasunean aurrerapen andiak egin zituan, eta ondoren beneditaren lekaretxean sartu zan. Bere aitak indarrez atera gura izan eban baño eskutauta bertan gelditu zan.

Yakituri ta ontasunez gustien eredu zalako nagosi autu eban, eta bere osaba Eukeni il zanean, osaba deunaren ondorengo ao batez Ildepontso Toledo'ko gongotzain autu eban. Nai ez da negar egiteraño eldu zan arren azkenean be, Yauna'ren naya zala ikusirik burua makurtu bearean aurkitu zan.

Arazo aztun aretan bere azkaritasun eta ontasunak dis-dis egin eban. Artaldeak aita lez maite eban, eta itzaldiak egiteko eukon gaitasun andia zala-ta «urrezko aodun» deitsen eutson. Irakasle lez bere idazki ederetan Ama Birjiñaren aldez egoki baño egokiago idatzita, ziñausleak garaitu zituan. Garaitza onen sariz Leokadi deunak ilobitik yagi ta eri gustiaren aurrean

esan eutson: «Ildepontso, zugaitik nire Eregiñaren aintzak erian dirau». Berak Rezesbinto bakaldunaren ezpateaz, agertu yaken deunaren estalki zati bat ebagi ta gorde eban. Beste egun batez, Ama Birjiñak, agertu ta kasula edo yaupa yanzki eder bat emon eutson.

Azkenez, irurogei urtedun zala gongotzain deun au il zan, artalde gustia tamalez beterik itxiten ebalarik. Bere gorpu deuna, Leokadi deunaren eleizan obiratu eban, eta mairuak sartu ziranean, kistarak Zamora'ra aldatu eban eta antxe maitasun andiz zaintzen dabe.

## URTAŖILA 24

### Timoteo deuna, gotzain eta ziñopa (93)

Likaonia'ko seme au, aita ziñesge ta ama yudařa-kandik yayo zan. Paul deunak Listria'ra yoan zanean Yaungoikoagandu eban. Barnaba ta Paul belduari bere gurasoak ostutua emon eutsen, eta euren semea laguntzat emon be bai. Mutil argia ta izakera onekoa izan zan, eta Paul deunak bere ikasletzan artu ta seme kutun lez izan eban. Paul deunak idatzi zituan idazki edeřetan, *Yaunagan anai kutuna, Yaungoikoaren otsein eta Goizpařkian bere lankide* deitzen dautso. Idazki batzuetan bere idazkide bai'litzan auxe idazten dau: *Paul eta Timota Yosu-Kisto'ren otseñak*, itz oneik agertzen dauskue beste barik, Paul Beldu bikañaren kutuna izateko, bere deuntasuna aundia zala.

Apala ta nekezalea zanez, argaldu zan eta Paul deunak bere osasunaz arduratuta, urdaleko argaltasunen ardao apur bat arizeko agindu eutson.

Mazedonia, Grezia, Akaya, Palestina ta Erroma'n, Paul deunaz goizpařkia zabaltzen lan gogor egin ondoren, Yon deunaren urfengo Epeso'ko gotzain autu

eban. Arpegia estaldu ta ankeřkeriak egiteko oitura txaragaitik agiraka egin eutselako, ango ziñesgeak asafetu yakozan eta amoruz oratuta arastaka eroan eben eta erdin-ilean itxi. Kistařak beraganatu ziranean azken arnasetan aurkitu eben, eta bereala il zan.

Bere gorpu deuna Pion eritxon fokian maitasun andiz obiratu eben, eta antxe egon zan Kontantzi bakaldunak belduan aintzaz egin eban eliza batera eroan ebazan arte. Geroago Yustiniano Bakaldunak edeřtu ta apaindu eban. Bere deuntasun ospea andia izan zan, lñaki deunak Piladelfitařai idatzi eutsen idazki atal onetan ikusi geinkenez: Timota deuna, garbitasun eta deuntasunez bizitza igarorik gizon deun-deunen artean zenbatu beař zala».

## URTAÑILA 25

### Paul deunaren denokundea (35)



AULO, Kistafen etsi gogoña izan zan, eta goiko eskañez oneratu zanean Paul deun eta Beldu edo apostolu aintzagarria izan zan. Egun onetan Eleizak ospatzen daben donekundearen bari, *Actus Apostolorum* deritxon idazti deunak IX'gn. atzalburuan era onetan

azaltzen dau: Aldi atan; ondiño Saulo, Yaunaren ikasleen kaltez zemakuntz eta eriotza arnas-oska ebiñela, yauparien Nagosieri aurkeztu yakon, Damasko'ko sinagogetarako idazki eske, kistañ bizitza eroyen gizon eta emakume, aurkituen zituan gustiak, Yerosolym'era lotuta ekañteko.

Baña bidez yoyala, Damasko ondoan auxe gertatu zan: Bapatean zeruko argi batek inguratu eban, eta luñeraturik, oyu bat entzun eban iñotsona: Saulo, Saulo; zer dala-ta yasañtzen nozu? Eta berak itandu

eban: Yauna, nor zara? Eta Yaunak erantzun eutson: Ni, Yosu naz, zeuk yasañtzen dozuna: gauza gogoña yatzu akuñuari ostikoka egitea. Eta Saulo'k, ikañaz izufuta, bafiro itandu eban: Nik, zer egitea nai dozu ba?—Yaunak esan eutson:—Yagi zaite, urian sañtu eta antxe zer egin beañ dozun esango yatzu. Bere otsein-lagunak itz egiten eutson oñsa entzun, eta notinik ikusten ez ebelako arituta gelditu ziran. Saulo, luñetik yagi zan eta begiak zabaldu añen, ezeñ ez eban ikusten eta eskutik arituta Damasko'n sañtu eben, eta ikusmen barik yan eta edan barik iru egunean egon zan. Aldi atan urian egoan Ananias eritxon ikasle bati Yaunak agerpenez bere izanaz deitu eutson, eta berak «Yauna emen naz» erantzunik esan eutson: Yagi zaite ta zoaz Rekto deritxon kalera eta Yudas'en etxean aurkitu egizu Saulo, Tarsotaña deritxona.—Yauna—erantzun eutson Ananias'ek—askori entzun deutset gizon oñek zenbat kalte egin deutsen, Yerosolym'en zeure deunai, eta yauparien nagosiek esku-bideak emon dautsezela, zeure izena aitatzen daben gustiak arapatzeko. Baña Yaunak yardetsi eutson: Zoaz, auxe da ba, neure izena, ziñesge, eñege ta Ixañelgo semeai eroateko autu dodan edontzia-ta, eta berari eskierki adiraziko dautsot, nire izen añen zenbat yasan beañko daben. Onegaz Ananias yoan zan eta Saulo egoan etxean sañtuta: eskuak buru-gain ezarñaz esan eutson: Saulo, anaya; etofi zaran bidean agertu yatzun Yosu Yaunak bialdu nau, ikusmena

bañiro euki eta Goteunaz betea izan zaitez. Une atan begietatik ezkata antzeko batzuk yausi yakozan eta ikusmena etoñi yakon; eta yagirik ugutzaua izan zan eta ondoren, yan eta sendatuta gelditu zan.

Damasko'n egozan ikasleakaz ondiño egun batzuetan egon zalarik, eten barik sinagogetan azaltzen ziarduan Yosu Yaungoikoaren Seme zala. Entzule gustiak arifuta esaten eben: Ez ete da berau, Yerusalem'en kistañak yasartzen zituana eta arifuta, espetxetuta yauparien nagosiekana eroateko asmoz etoñi zana?

Baña Saulo'k, ondiño sendotasun, adore, geyagoz itz-egiten eban, eta Damasko'n bizi ziran yudañak nastuta ipinten zituan, Yosu, Kisto ta itxaroten eben Mesias zala esanaz».

## URTAÑILA 26

### Polikarpo deuna, gotzain eta ziñopa (160)

Polikarpo deuna. Beldu edo Apostoluen ikasle izan zan, eta batez be Yon Goizgilearena. Belduak bere onoiñen andiak ezagututa Esmirna'ko gotzain autu eben, eta irurogeta bi urtetan gogo osoz ta yaunzaltetasun garñfuz bere artaldea zaindu eban.

Ziñestearen aldeze sutsua zanez, Doipuru aldez ta ziñesausleen kaltez gogoñ egin eban. Gotzain eredu izan zan, eta kistañai eutsoen maitasunez eta itza bidera urtenda soñeko egalai mun egiten eutsen.

Bere eleiza arduraz zaintzen eban eta baita Asia aldeko gustiak be. Larogei urtedun zala, Erroma'ra zuzendu zan Anizeto Doipuruari eleiz araudiko gauza batzutzaz itz-egiteko. Egun baten Marzion ziñausleak bidean aurkitu eta esan eutson: Ezagutzen nozu? Eta Polikarpa'k erantzun eutson: Bai, txerñaren seme nausia zara.

Gozain guren au Kisto'k bere aldez odola ixuriko ebenen arterako aututa eukon. Larogeta sei urtedun zala bere eleizara biurñtu zanean, kistañen etsayak arapau eben. Esmirna'ko yolastokira eroan ebenean

ziñesgeak Polikarpa'ren eriotza eskatu eban, bereala ekañi ebenean goiko abotsa entzun eban, Kisto'ren aldez bizitza emoteko adoretuten ebana. Epaikariak itandu eutsonean Kisto'ren yaungoikotasuna autoñesan eban: Larogeta sei urte da, Yosu neure Yauna otseintzen dodala, eta iñoz gaxik egin ez da egunero eskañ ugariak egin daustaz, zelan ba, nai dozu nik bera gaiztetsitea? Ni kistaña naz, eta neure biotzeko ziñesteari ukorik iñoz be ez dautsot egingo».

Orduan yaurlariak abere basati artera yaurtiko ebala esan eutson, agure adoretu onek erantzun eutson, Yosu-Kisto'gaitik bere odola emotea pozik andiena izan litzakela.

Bereala yolastokian leoi bat yaurti eutsoen baña, deun oneri ikuturik be egiten ez zan asañtu. Au ikusirik gudari batek burua moztu eutson, eta bere gogo dontsuak donokira egaz egin eban.

## URTARILA 27

### Yon Krisostomo deuna, gotzain eta irakasle (407)

Yon deuna, izlari bikaña izan zalako Krisostomo edo *urézko agoa* deitzen yakona Antiokiataña izan zan. Ikasteak Atenas'en egin zituan, eta bere gogo goi-argia bete ebanean leiza baten otoi eta laztasun bidez girñak ezita, Plabiano gotzañak yaupari egin eta izlari arazoa emon eutson.

Bere itzaldi sutsu, añañiakaz uri gustian oitura txarñak zuzendu zituan.

Konstantinopoli'ko gotzaña il zanean, Krisostomo aukeratu eban, baña deunak araso aztun au ez bera-gantzeko iges egiteko asmoa eukala yakinik bakal-dunak gudari bidez ez eutson laga. Gustiak txaloka añtu eban eta gotzain egin eban. Kisostomo'gotzaintzarako aukeratzean zuzen egozala laster bere yainkozaletanak agertu eban. Bere itzaldi sutsu bardinba-geakaz uriko oiturak goikoz-bera aldatu zituan. Eunomio, Añio ta montanotañ ziñesleen aurka kemen-tsu yaiki zan, eta bere yakituri andiaz ziñausleen guzurézko irakatsiak ezereztu be bai.

Bere deuntasun argiak minduta etsayak ugaritu zituan batez be andiki ta yauparien artean. Eta bere kaltez yaikirik batzar baten, gotzaintzatik kendu ta erbestetuten erabagi eben, baina erbesteurantz urten zanean, lu' ikara andi batek Eudoxia eregiña izututa, bañero erakarriko agindu eban. Andik ile bira, bakaldun-emaztearen omenez, egoki ez ziran yai batzuk egin ziralako itzaldi gogora egin eban, bañero Arameña'ko eritxo batera erbestetu eben. Bidean igaro eragin eutsoezan neke ta lo'arak aulduta gelditu zan. Yaungoikoak bere aldez beso altsua luzatu eban. Konstantinipoli'n ikaragarizko onestari-arizko ekaitz andi bat yausi zan, kalte andiak egin zituana. Bakaldun-emaztea bapatean il zan, eta baita bere etsai gustiak goiko zigora artu eben.

Bere etsayak erbestea gogorago eragiteko Arabisse'ra aldatu eban, eta andik Bitias lekarora, inok beragaz artu-emonik euki ez eikian, eta antxe gudalburu bien ardurapean, egiten eutsoezan gogorakeriakaz aulduta, igari bere azkar ordua uferatu zala. Eriotzarako gertatzeko zuriz yantzi zan, eleizan gure Yauna artu ta bere gogo dontsuak erbeste onetatik betiko zorionera iges egin eban.

## URTAÑILA 28

### Yulian deuna, gotzaina (1208)

Yulen deuna Burgos'tara izan zan. Guraso onbidetsuen seme au, Yaunak gotzain izateko aukeratuta eukola yayotzatik mirai batek ugaztu eban. Ugututzen egozala, aingeru bat gotzain yantziakaz agerturik esan eban: Yulen bere izena izango da.

Bere txiki-aldi ta gaztearen aingerua batek igaro zituan, eta yaupari egin ondoren Toledo'ko kanonigo lenen eta gero Kuenka'ko gotzain egin eben.

Mesa emotean agertzen eban azkua (debozioa) ikusirik saritan entzuleak maitasunez negar egiten eben. Yaunmaitasunean garitutako biotza eskuetan ebala itzaldiak egiten zituan, eta gustiak arituta esaten eben: Onek lez inok ez dau itzik egin. Bizitzarik apalena eroyan. Bere yauregian laguntzale bat bakarrik eukon, eta beronek idazkari etxeko nagosi, banakari lanak egiten eutsozan. Mairu asko kistar biurtu zituan, eta eurok uri askotan oituretan egin zituezan kalteak zuzendu be bai. Bere irabazi gustiak txiroentzat ziran, eta biziteko bea ebana otzaratxoak egin eta eleiztarai zalduta ataraten eban. Geideatzazko eukon maitasu

au saritzeko egun baten Yauna agertu yakon, te bere aizkide deitu eutson, eta txiroentzat eukozan aletegiak bein baño geyagotan alatzez bete yakozan.

Azkenez larogei urtedun zala, bere azkena eldu zala igaririk gotzain apainkiakaz yantzi, ikuñton edo sakramentuak añtu; burukotzat ari bat ebala luñean etxun zan. Era onetan egoala Ama Birjiña gotzonez inguraturik, bere gogo dontsua zeruratzeko agertu yakon.

Il da 310 urte geroago bere gorpua oso-osorik eta soñeko bañi-bañiakaz aurkitu eben. Beste toki batera aldatu ebenean alatz ariagarriak egin zituan.

## URTAÑILA. 29

Sales'tar Pranzizko, gotzain eta irakasle (1622)



LEIZAKO irakasle andi au, Sales'ko gasteluan yayo zan. Txikitatik lera onak agertu zituan. Bere ama kondeseak emoten eutsozan yolaserako yostalauak, txiroai emoten eutsezan. Kaskondu zanean ikasketak Paris'ko yosue aunen irakastetxe baten egin zituan. Zortzien bein yaunartu, eta astean iru bidar zurdatza erabilten eban, eta bera garbitasuna, Ama Garbiari eskini eutson. Lenengo ikastetak egin ondoren, Legeak ikasteko Padua'ra aldatu zan.

Bein baten bere ikaskide gaizto batzuk, emakume zafar baten etxera eroan eben, eta gaste kementsuak, zirikaldirik iges egiteko ilinti bat arpegira yaurti eutson.

Gero yaupari eginda izlari autu eben, eta lenengo itzaldian irureun obendari zuzendu zituan. Baseñirik-



-baseñi txabolarik-ixabola, otz, bero, ekaitz, yasarpen eta irain gustiak azpiratuta, gogoak Yaunaganatzen alegindu zan.

Otso artean dabiñen bildotsa lez beti ibiñi zan, baña bere otzantasunak otsoak ardi biurtzen zituan. Tonon'era eldu zanean saspì katolikotaf baño ez ebazan aurkitu, eta aldi gitxi baru sei milaño egozan. Ger, Terniar, Gailak eta Txablais'ko protestantefarak onbideratzen alegindu zan eta lortu be bai.

Teodoro Beza ziñausleen buru zanak be egia aurtu eta negar agin eban baña geroagorako gustiz biurtzea itxi ebalako bidekatuta il zan. Parantzi'ko bakaldan IV'gn. Enñike'k gotzaintza ta yanzkoñduntza (kardenaltza) eskiñi eufsozan, baña bere erantzuna ezetz garbia izan zan. Gero be Jinebra'ko gotzaintza artzeko Doipuruaren agindua bear izan zan. Bere menpeko eleizak saritan eta gustiak, bere bizia galtzeko zorian ipiñi beara euki añen ikertu zituan. Izlari bikañenetakoa izan zan, gogo-arazoetzazko idazlari gorengoa, Doipuruak, eta urte onetan bertan be (1923) XI'gn. Pio agurñariak bere aintzaz iragañi daben idazki eder baten gustioi diñoskunez.

Bere idazti mamintsuak gogo-zale diran esku gustietan dabilz onura andiak eguten dabezalarik. Oñez ganera Eleizako irakasle ta Idazle katolikotafaren zaindari Eleizak autua izan dan ezkeru gai onetzaz emen goraldtu beañik ez daukogu.

Ziñez apala eta otzana, ez bere izakeraz, bizia zan ba; baña bai onoinenez eta egiz esan geinke, Yosu' ren itz gozook zintzoro bete zituala: Biotz otzan eta apaldunak izaten Nigan ikasi egizue». Beronek irasi eban Lekaime Gopatz edo Ordena «lkerkundekoa» deritxona, eta lan asko egin ondoren deunen eriozaz 1622'gn. urtean il zan.

## URTAÑILA 30

### Martiñe deuna, neskutz eta ziñopa (230)

Eñoma'n yayo zan eta bere aita iru aldiz aldun edo konsul izan zan. Txikitatik kistañ-ikasti ta oiturak ikasi zituan, eta kistañ zalako Alexander Sebero'n aldian salatu eben. Epaikariak ia gurutzalduta il zan yudañ bat zer zan esan eutson, eta ezetsi ta Apolo zergaitik gurtzen ez eban itandu eutson. Orduan Martiñe'k erantzun eutson: Apolo'n eleizara eroan nagizue, eta ikusiko dozue zuok gurtzen dozuen txerena zelan auts biurtuko dodan. Eroan eben ba, eta guzurrezko yaungoikoa ikusi ebaneko otoi au egin eban: «Yosu-kisto neure yaun oñek, eñi itsu onen aurrean alo-roduna zareala agertu egizu». Itzok esanez batean, gustiak añitu zituan lur ikara bat soñtu zan, eta eleizaren zati bat eratsi ta Apolo'ren irudia zatitu egin zan.

Baña ziñesge zitalak egia autortu beafean, zorginkeriz egin ebala zabaldu eben, eta neke oñaze ikaragariak igarotera bialdu be bai. Lenen makila latzez zigorñtu, bere aragi edeña burdin zorotzez uratu eutso-enean goitañ-argiz inguratuta ikusirik, bere boñeruak beleunikatu ta kistañ egiten zirala autortu eben. Len-

dakari ankeña baña, ez zan biurñtu. Kistañ egindako gudariak burua moztuteko agindu eban, eta Martiñe tatañez Diana'ko eleizara eroateko.

Eldu zaneko txerena ots ikaragariñaz iruditik urten eben, eta irudia biñinduta yausi zan. Lendakariak, buruan sorginkeriak eukozala-ta soilduteko agindu eban, eta gero yolastokira eroanda leoi andi bat zatitzeko asmoz yaurti eutson Baña, igauza añigariñ! Leoia oñuaka azi zan, eta ezer egin barik ureratuta oñak miatzkatzen asi yakon. Orduan Martiñe'k esan eutsen: Ez dozue ikusten Yaunaren aingeruak, leoyak otzandu egiten dituala? Au ikusirik epaikariak leoya kayolan sañtzeko agindu eban, eta bidean yoyala Limeneo bakaldunaren senide bat zatitu eban. Gaste adoresu oneri beste oñaze ikaragariñak igaro eragin eutsoezan, eta gustietatik garailari urtetan zala ikusirik, burua kendu eutsoen eta bere gogoa donokiratu zan.

## LIRTAÑILA 31

### Pedro Nolasko deuna; aitorle ta irasle

Nolasko deuna Langedok eñkian yayo zan. Bere ama alargunduaz lenengo urteak igarota. Simon Montfort gudalari ospetsuaz, albitař zinausleen kaltezko gurutza-gudan ibili zan, baña Muref'eko guda-ketan aita il zalako, Yakobo ondiño ume zala bakaldun egin eben, eta bakaldun txiki au menduteko ardurea emon eutsoen.

Orduxetik Eskardun Ama Birjiñak deitu eutson, yopu geratzen ziran kistařak azkatzeko. Nolasko'k bere autor-entzule Eraimundo Peñafort'eri dei au ager-tu eutson, eta beronek be agerkunde bardiña izan ebala entzunik, biok bakaldunagana euren asmoen bafi emotera yoan ziran. Bakaldunaren yauregira eldu ziranean arituta entzun eben Yakobo'k aotik berak be ikuskizun berbera euki ebala.

Eraimunda deunak, deun Laurentzi egunez, Barzelona'ko gotzain eleizan itzaldi baten, euki eben agerkundea azaldu eban, dei oneri erantzuteko langutza entzule gustiei eskatuaz. Gotzañak mesetan bertan, gopatz (ordena) bafiko soñeko zuria emon eutson,

eta gure Yauna aritu aurretik, txirotasun, garbitasun eta menpetasun abintzaz gañera, gopatz onetako laugañen egin eban eskintza au da: Kistařak mairuen menpetik azkatzeko txindia eskatzeko, eta bear izana egoanean, euren burua besteak azkatzearen emoteko.

Gero Balenzia ta Granada'ra yoan zan eta laureun kistař azkatu zituan. Ondoren Berberia'ra an espetxetuta egozan kistařak gaizkatzeko yoanik, bera euren orde z estuntzaz beterik espetxe ilun baten gelditu zan.

Azkatsuna lortu ebanean, Barzelona'ra biurtu zan, apaltsunez Gopatzako nagositza itxi gura eban baña, laguntzale emotea baño ez eban lortu.

Parantze'ko bakaldun Koldokika'k Luř Deunetan egozan kistař-yopuak azkatzten yoateko asmoa agertu eutson, baña Yaunaren asmoak beste batzuk izan ziran, eta eriotza deun baten ondoren bere ondora Gabon egunez deitu eutson.

Bere gorpua il ondoren usain gozo ta argitasunez beterik gelditu zan, eta bere bitartez Yaunak alatz aundiak egin zituan.

## OTSAILA 1

### Iñaki deuna, gotzain eta ziñopa



RAYANO-K, Eroma'ko efegetza aritu zuanean, Antiokia-ko gotzain, Iñaki deuna zan. Juan deuna-ren ikasleri izanik, bere oitura onak eta deuntasuna ikusita, Antiokia-ko gotzain egin zuten.

Trayano-k, bere efegetzako bederatzigarren urtean, eskistaren kaltez egin zuan gudan garaile izan ondoren, kristauen kaltez asi ezik bere efegetzari eutsiko ez ziola-ta, kristauen aurka ekin zion. Antiokia-tik igarotzean, efi aretako kristauen buru, Iñaki zala esan ziotenean, bere aufera eramateko agindu zuan. Eta eraman ondoren, Trayano-k esan zion: I, gogo-txař (deabru) ori, gure legeak puskatzen ditukan ori, nor aiz?

Iñaki deuna-k: Teoporori, gogo-txařa iñork ez zio deitzen. Yainkoa-ren mirabeegandik deabruak

iges-egiten diate. Beayei kalte egiten diedala bai zekiat, ta ořegatik deabru izenez gaizki deitu nauk. Nik, efegetzat, Kisto zeukat, ta deabruen asmoak ostiko-petzen dizkiat.

Trayano-k.—Teoporo-k zer esan nai dik?

Iñaki-k.—Biotzean Kisto daramana.

Trayano-k.—Ta gure etsayen kaltez laguntzale izan dizkiagunak biotzean etzezkuagu ala?

Iñaki-k.—Deabruak yainkoa dirala uste dek? Gezurā siñesten dek. Yainko bat baño ez zio, luřa ta ortzia egin zituana, ta Bere Seme Yesukisto, ta Espiritu Santua.

Trayano-k.—Yesukisto ori, Pilato-k gurutzean ipiñi zua?

Iñaki-k.—Ber Bera. Pekatua ta pekatu asmatzalea gurutzean ipiñi zizkiana, gezurēzko yainkoei gurēgitea ontzat aritzen ez dikena, baña Bera biotzean daramana bai.

Trayano-k.—Euk, bada, eure bařuan Kisto daramak?

Iñaki-k.—Bai.

Trayano-k.—Ba, bere bařuan Kisto daraman, Iñaki ori, aberei botatzeko, gudariekkin Eroma'ra eramatea erabaki det.

Iñaki deunak au entzun zuanean, Yainkoa-ri eskeřak egin zizkion, Bere maitasuna ongi agertzen ziolako. Gudariak lotu zuten, bada, eta Eroma-ra bidean asi ziran. Esmirna-ra eldu ziranean, Poli-

karpa, erri aretako gotzaiña berakin batera Jon deuna-  
ren ikasle izandakoa ikusi zuan, eta ikusteaz, ezfun-  
tzez lotuta zegoalako, pozez beterik agur egin zion.  
Esmirna-n zegoala ango kristauak, bera Erroma-ra  
yoanik an gertatuko ziranagatik atsegabefuta ikus-  
teak, Erroma-ko kristauei beste ainbeste gertatu ta  
ziñopa izateko zabaldua zeukan atea ez ixtearen,  
idazki edef bikain bat idatzi zien. Idazki edef bikain  
onetan, berari Yainkoaren alde bere odola ixurtzen  
ez eragozteko, ta oñaze ta eriotza eramateko Yauna-ri  
eskerak eskatzeko esaten zien. Arenka, eskatzen di-  
zutef, zion, zuen niganako maitasuna alperekoa ez  
izatea; ni abereak yaten utzi nazazute, onela Yainkoa  
irabazteko. Yainkoa-ren garia naiz eta abere-ortzak  
iyoko naute, onela ogi zuri egingo naiz-ta.

Gero Troya-tik ta Mazedonia-tik zear Erroma-ra  
eldu zan, eta beriala Trayano-ri, Iñaki eldu zala gaz-  
figatu zioten. Bere aurean zanean onela itz-egin  
zion:

Trayano-k.—Zer dala-ta Siria-ko guziak kristau  
egin dituk?

Iñaki-k.—Eu ere gezurzko yainkoen siñisteefik  
atara al izan ezkerot!

—Nere aizkide izan nai ba-dek, utziyok ofi, ta  
yainkoei gur-egiek.

—Lurá irabazi aren, gogoá galtzen ba diat, onik  
zetorkidak ala?

—Sentsu onekoa itzala uste nian, baña nere eske-

rak utzirik nere goñtoa irabaziko dek, yainkoei es-  
keintzarik ez diek egin-ta.

—Ik nai dekana egin zak, ni yainkoei eskeintzarik  
egitera ez niñoak-ta.

—Iltzeari uitzi ta bizitzari eldu eyok.

—Erege, ondo esan dek, befiko iltzea utzi ta amai-  
gabeko bizitza lortzeko.

—Zer, bada? Zenbat bizitza zeudek bada?

—Bi, bat aldikoa, bestea betikoa; ta bi bizitza ere,  
bat gutxi irauten duana ta bestea betikoa.

—Laster yainkoei eskeintzen ezpadiek ez diat  
barkatuko.

—Barkatu? ezta nai ere. Baña agintzen didakana  
ere ez diat egingo.

Eta beriala bere eskuak zabaldu eta su goria ipiñi  
zioten, bere alboak ererik. Ala ere Iñaki Yainkoa-ren  
siñismenean gogor zegon, eta eregeak esaten zizkie-  
nari Kisto-ren ikasle ta kristauen gotzaiñari zegokion  
bezela erantzuten zion.

Trayano Iñaki-ren erantzunak entzunik sutu zan,  
eta espetxean sarturik iru egunean yateko ta edate-  
korik eman gabe euki zuten. Baña ala ere Iñaki-ren  
biotza Yauna-gan zegon, eta erege anker arek, il  
zezatela agindu zuan.

Oretarako yolasketak, buñukak eta kristauen erio-  
tzak izaten ziran enparantza zabal batera eraman  
zuten, eta abere goseti amoñatuak beregana bofa  
zituzten. Orduan Iñaki deunak, enparantzan zeudenei

onela itz-egin zien: Erromatarak, buruka au ikusteko zai zaudetenok, ez det alpefik lan egin, gauz auek ez ditut gaiztoa naizelako eramaten, ona naizelako baño. Yainkoa-ren garia naiz, eta abere-ortzak iyoko-naute, orela ogi zuri egingo naiz-ta.

Au esanda beriala, bi legoek Inaki-ri eraso zioten, eta il eta ezur lodienak yan zituzten.

Yainkoa ainbeste maitatu zuana, ta bere sinismenaren alde bere gorputza abere ortzaz Yainkoa-ren ogi-zurie egitea nai zuana, onela il zan, 10<sup>g</sup>. urtean.

Erroma-n zeuden kristauak bere ezufak baturik poz eta ardura aundiaz leku berezi baten eortzi zituzten eta gero bere efira eraman eta aintz (gloria) aundi ospetsua dutelarik an daude.

## OTSAILA-REN 2

### Andra Maria-ren Garbikundea

Andra Maria-ren Garbikundea ta Bere Seme Yesukisto eleizan Aurkeztea nola gertatu ziran; ona emen Ebangelioa-k nola edesten dizkigun: «Andra Maria garbitzeko, Moises-en legeak aginizen zuanez, berogeingaren eguna eldu zanean, Umea Yerusalenera eraman zuten, Yauna-ri aurkezteko, Yauna-ren legean idatzita dagon bezela: Lenen yayotzen dan gizakunea Yauna-ri eskeiniiko zayo, eta opatzat emateko, Yauna-ren legean aginduta dagonez bi usano ala usakume bi. Eta orduan Yerusalen-en bai zan izentzat Simon zuan gizon bat, eta gizon zuzena ta Yainkoa-ren bildufekoa zan onek, Israel-en atsegifia itxoiten zuan, eta Goteuna (Espiritu Santua) beregan zegon, eta Goteuna-ren bidez, Yauna-ren Bidalia ikusi baño lenago eriotza ez zuala ikusiko, yakin zuan. Eta gogoak txadonera (eleizara) erakafi zuan, eta Yesu aurá Bere aitamak, arentzat legeko araura egite aren, eleizan sartzean, berak ere besoetan artu, ta Yainkoa onetsi ta esan zuan: Orain, Yauna, Zure otsein au, gentzaz uzten dezu, zure itzaren araura,

nere begiak zure osakuntza ikusi dutelako, efi guzien aurrean gertu dezun au arotzei agertzeko ta Israel-go zure efi au goratzeko argi au.

Umearen gurasoak, Beretzaz esaten ziranagatik afiturik zeuden. Eta Simeon-ek onetsi zuan eta Umearen Ama-ri esan zion: Ara Ume au, Israel-en askoren erorkundetzat eta yasokundetzat ezarita dago ta yarki-ikuña izateko, ta zure gogoia, ezpata batek igarok du, biotz askoren oldozkunak agertzeko.

Ta Asre-n erkiko Panuel-en alaba bat bai zan, eta urte askoduna zan, eta bere neskutzarotik saspi urte bere senarakin bizi izan zan. Alarguna zan eta larogei ta lau urteduna, ta eleizatik ez zan alderatzen, gau ta egun, barua ta aŕen egiñaz. Beronek, aldibertan Yauna onesten zuan, eta Israel-en beferospen zai zeuden guziei Beretzaz itz-egiten zien.

Eta Yauna-ren arauz guziak egin zituztenean, Galilea-ra, Nazaret-eko beren urira itzuli ziran. (Luka Deuna-ren Ebangelio-tik II atalean).

Andra Maria-ren Garbikundea ta Yesu-ren Aurkezkundea nola egin ziran ikusi degu, baña Andra Maria-ren Garbikundea zer zala-ta egin. ¿Soŕtzetik garbi-garbia ez zan ala? Bai, noski; eta garbi-garbia zalako ez zan egin beaŕ, baña ala ere beste emakumeak bezela agertu nai izan zuan. Batetik, beregan gertatu ziran mirariak iñork ez zekizkielako, ta bestetik Yudaŕen lege zaŕaren aginduz egin nai zualako.

Yesu ere Yainkoa dalarik, Bere Aita-ri eskeñi beaŕfik ez zegon; baña gizonen lenena bezela, Bere Burua Betiko Aita-ri eskeñi nai zion, gero, bere bizia gizonen alde emango zuanak.

Gerteara auk aŕigaŕizkoak izan izarañ. Andra Maria soŕtzetik garbi-garbia zana beste emakumeak bezela agertu nai izan zuan, eta Yesu ere, gauz guzien Yaun eta Yabe danak, apaldasunez beterik Bere burua eskeñi zuan.

Gertaera auetan zer ikusi asko degu, gizonak askotan aŕokeriz ta aundiustez beteta gabiltza-ta.

Antxiñatik egun onetan argizaiak onesteko (bedeinkatzeko) oifura dago. Oifura edeŕa, ta gure gogoen argitzat Jesu eraman beaŕ dagula adierazten digu.

Gañera gertaera onetan gogalkoŕa dan beste gauza bat bai dago: Simeon-en iragarkia (profezia). Gizon zuzen eta Espiritu Santu-z beteta zegon enek, Yesu bere besoetan zualarik, Ume aura askontzat osakuntza ta beste askontzat erorbidea izango zala esan zuan, ta bi gauza auek nola bete diran, edestian (istorian) garbi ikusten da ta luŕaren azkenerarte ere oŕela izango da.

Ene irakurle ori: Gutzat beñepein, Yesu, orain eta beti gure gogoen osakuntza izan dedila!

## OTSAILA-REN 3

### Blas Deuna, gotzain eta ziñopa

Linizio Erroma-ko errege zala, kristauen kaltez guda gogofa asi zan, eta eraso ankeñ aretan, Kisto-ren alde bere odola eman zutenen artean ospetsuena Blas Deuna, Sebaste-ko gotzainia izan zan.

Blas Deuna gotzain izan baño lenago sendalari zan, eta arantzaleak belduak egin zituan Yauna-k, Blas ere soñeko sendalari izanik gogoen (animen) zaintzale egin zuan. Apaldasun aundikoa, itzetan egizale, gorputzez garbi, biotzez erukitsu. Oituretan ona ta guzien eredu zan, eta auegatik Sebaste-ko kristauak gotzain gabe zeudelarik, ao batez, Blas gotzaintzat aukeratu zuten.

Baña kristauen kalteko eraso gogofa beriz bai zetoñen, eta Blas mendian eskutatuta, ta otoitz egiziaz ta gaxoak sendatzen egon zan. Alako baten eiztari batzuk toki ayetara yoan, eta Balasi Deuna bere leize baruan otoi-egiten topaturik, eri aretako yauriari (gobernadoreari) esan zioten, eta onek bere aurera eramatea agindu zuan.

Yauriaren moñoiak ondo artu zituan, eta pozez beterik esan zuan: Guazen bai Yauna-ren izenean. Nitzaz oroitu da. Orain bai, Yainkoa-gana yoateko aldi ona dedala! Bart irugarenez agertu zait Yauna, esanaz: Yaiki adi, ta besteetan bezela eskeintzat egizkiek. Orain, ene semetxok, etoñi zerate eta aginduona dakañdazute.

Eta bidean zijoaztela, Balasi Deuna zeramatemala yakiñik, erietako ume ta gaxo guziak kale ta enparantzetara irteten ziran, eta Balasi Deuna-k umeak onetsi ta gaxoak sendatzen zituan. Ayetako eri baten seme bakara zuan emakume bat zegon, eta umea arai yaten ari zala ezur bat irentxi ta eztañian zuala gelditu zan. Al egiznak egin eta ezurik afara ezin, eta ume gaxoa iltzen zegon.

Onetan Balasi Deuna eri aretatik igaro zan, eta umearen amañ yakin zuanean, umea artu ta beragana yoanik, arenka, bere umea sendatzeko eskatzen zion. Balasi Deuna erukitu zan, eta umearen buru gañean eskua ipiñi, bere eztañian gurutz bat egin eta Yauna-ri otoitz egiziaz umea sendatu zuan.

Sebastera eldu zanean, espetxean (kartzelan) sartu zuten, eta urengo egunean epaikariagana eramaneñ, gezuñezko yainkoen siñesmenera eraman nai izan zuan, ta ezin zuala ikusirik, zigofu eragin zuten. Baño ala ere, gogofki zigofua izan añen, bere arpegirik ez zan aldatu eta zurbildu ere ez, ta epaikariari onela esan zion: Oñazeak eta eriotzak berak, Ye-



sukisto-ren maitasunagandik ez nau aldenduko. Laguntzaletzat, nere Yaun eta Gaizkatzale dan Yosukisto daukat.

Zigoñlariak, Balasi zigortzen nekatu ziran, eta epaikariak ezertxo ere iritxi ez zuala ikusirik, beñiz espetxean sartzeko agindu zuan. Andik aterata burnizko orazi bateaz gorputza uraru zioten; oñazelariak erukiturik zeuden, baña Balasi Deuna pozik. Ala ere epaikariaren biotz gogofa ez zan bigundu ta beñiz espetxean sartu arazi zuan. Epaikariak beñiz deitu zuan, zigortu ondoren espetxean egon zanean bere asmorik aldatu zuan ala ez yakiteko, baña geroago ta bikañago zegon bere baitan, eta epaikari ankerak osin batera botatzeko agindu zuan. Baña Balasi Deunak gurutzaren atza egiñik lur gañean bezela ibili zan, eta osin erdira yoanik esan zion: Zuen yainkoak alik badute osiñera etofi eta ni lugarñean ba-ñego bezela, zuek ere egoten zeraten ikusiko degu. Au entzunik berogei gizonek osiñera murgil egin zuten, baña guziak ito ziran. Orduan Yauna-k argitasunez betetako aingeru bat bidalirik Balasi deuna-ri esan zion: Osiñetik irten eta ire saria artzeko gertutu adi.

Irtenik, bada, epaikariak asefeturik, beste bi ume-kin batera burua ebaitzeko agindu zuan. Eta efi are-  
tako kristauen artzaia, Kisto-ren alde ainbeste ta ain-  
beste lan egin ta, neke eraman zituana onela il zan  
316-gañen urtean.

## OTSAILA-REN 4

### Korsino tañ Andres Deuna. (Gotzain eta autorlea).

Andres Plorentzia-ko Korsino-tañen sendi ospetsu-koa zan. Bere aitamak, añenka, Jaunagandik iritxi zu-ten, eta yayo zanean Berari eskeñi zioten. Gero nola-koa izango zan, Jaunak irudiz agertu zuan. Bere ama izofa zegolarik, beragandik otso bat irten, karmel-  
daren eleizera yoan eta bildots biurtzen zala ikusi zuan.

Umearoan Yauna'ren bildurpean ardura aundiz  
azi zuan, eta gero galbidera ziyoala ikusirik, bere  
amak sañi akartzen zuan. Baña Yauna'ri eskeñita ze-  
goala yakin zuanean, eta bere amak bera soñtu baño  
len izan zuan irudia esanik, ta Yainkoaren maitasu-  
nean beroturik, Karmeldafetan sartu zan. Deabruak  
zitzaldi ta erorbide asko ipiñi zizkion, baño etzuan  
bein ere gariatu. Gero Lutezian ikasketak egin, ira-  
kasletza (doctorado) artu, bere eñira biurtu, ta Etruria-  
ko Karmeldafen buru egin zuten.

Bitartean Piesole'ko eleiza gotzaigabe gelditu ta  
Ander gotzaintzat autu zuten; baña gotzaintzarako

gai etzala oldozturik, luzaro eskutatuta egon zan; Yaunak ordea itz-egiten etzekien ume baten bidez nun zegon agerturik, uri atean topatu, ta Yaunaren naien aurka ez egite-aren, gotzaintza artu zuan. Nausitza ori artuta ere, beñi apala izan zan, ta bere gotzain lanetan, landerenganako erukia ta esku-zabala, ta otoi zaletasuna ta beste Yainkorekiko ekandü asko agertu zitun. Igarlea ere izan zan eta edonun bere deuntasuna ospatzen da.

Urbano V-gaŕenak auek yakiñik, Bolonia-ko erian zeuden gofotoak zuzentzera bialdu zuan. Lan onetan neke ta atsekabe aundiak izan zitun, baña iltzerañoko gofotoak kendurik, beñiz etxeratu zan.

Andik laster, ainbeste lan ta neke eraman; eta bere soña gogor zigoŕtzen zuala-fa, indarĝabeturik, Andra Mariak esandako egunean, anei (mila) irureun ta irurogei ta amairugeŕen urtean, irurogei f'amar urte zituala, il zan.

Urbano VIII-gaŕenak bere alatzak (milagroak) ikusirik Deunen artean ipiñi zuan. Bere gorputza Plorenzian, Karmeldaren eleizan dago, ta kristauen artean izen ospetsua du.

## OTSAILA-REN 5

### Ageda Deuna. (Neskutz eta ziñopa)



AGEDA, neskutza, Sizilia-n yayoa, aundiki sendikoa (familikoa) zan.

Guztiz eder eta garbitasun aundikoa zalarik, Kintiano Sizilia-ko epaikariak Ageda maitatu zuan. Baña alegin guziak eginda ere, Ageda ezin bereganatu zuala ikusirik, kristau zala-fa, Aprodisia emakume galdu bateri, eman azi zuan. Emakume galdu onek, ordea, Agate-k zuan siñismena ezin zuan kendu, ta bere garbitasuna ere ezin zuan loitu, ta ofegatik Kintiano-ri, Agate-gandik ezin zuala ezer iritxi esan zion. Augatik Kintiano-k beregana deiturik esan zion: Aundizki sendikoa (familikoa) zalarik kristauak duten mofoyen bizikera apal ofeaz etzera lofsatzen ala? Ta Agate-k erantzun zion: Kistauen apaldasuna

ta moroitza, eregearen aberastasunak eta eregeen aundiustea baño altsuagoak dira. Au entzunik, epaikariak, yaungoikoei gur-egin (adoratu) ala oñazeak eramateak nayago zuan galdetu zion. Baña Ageda, bere siñismenean gogoñ zegon, eta zigorñurik espetxean (kartzelan) sartu zuten; eta urngo egunean aurēnako asmoak yaraitzen zituala ikusirik goritutako burni-orñiak ezarñirik, oñazkiñan oñazetu zuten. Orduan bular bat ebaki zioten, ta zaurituta zegoalarik, Kintiano-ri esan zion: Gizon anker gogoñ ori, eure amagandik artu uana, emakume bati ebakitzen ez aiz lotsatzen? Gero beriz espetxean sartu zuten, eta gau aretan, Kistoren apostolua zala esan zion agure batek zauria sendatu zion. Beriz epaikariaren aurera eraman, eta bere siñismenean bikain zegoala ikusirik, lapiko-zati zorotz eta ikatz gori gañera bota ta beren gañean biraka ibili zuten.

Bitartean erñ guzian lur-ikara aundi bat izan zan, eta ormak eroririk epaikariaren bi adizkide il ziran. Augatik erñ oso bildurñu zan, eta Kintiano-k erñan yaso zan izkanbilaz bildurñurik, Agate erdi-ñla zegoalarik, espetxera ixilik eraman azi zuan.

Gero Yauna-ri onela otoi-egin zion: Zeorēk, ni aurarotik zaitu, lurēko maitasunetik aldendu, ta nere zigorñariak baño bikain eta altsuago egin nazun Yau orēk, nere gogoñ (anima) artu zazu. Ta otoi au egiñik zerura yoan zan. Egun aura 251-garēn urteko Otsailla-ren 13-garēna zan, eta kristauak bere gorputza lurperatu zuten.

## OTSAÏLA-REN 6

### Tito deuna, gotzian eta autorlea

Tito deuna Kreta-ko Gotzaiña izan zan. Paul Deunak Kisto-ren siñismeneko egi ta gauz guzietan yakituna arkitutik, eta orduan asieran zegon Eleiza bere deuntasunaz argi-egiten zuala ikusirik, bere lan-kide artean artu zuan. Kristo-ren siñismena zabaltzeko laguntzat arturik, Yainko-Semea-k irasi zuan Eleiza zabaltzen zaletasun aundiaz lan egin zuan, eta Paul Deuna-k Troade'n topatu ez zuanean atsekabe aundia izan zuala esaterañoko maitasun berezia zion. Eta gera Mazedonia-runtz zijoala, Tito-ri zion maitasuna itz auez agertu zuan: Apalak pozten ditun Yainkoak, Tito-ren etorñeraz ere alañtu nau.

Auegatik Paul Deuna-k Korinto-ra bidali zuan, eta Jerusalem-en landerñak ziran kristauei laguntzeko arazo ongi bete ez ezik, Kisto-ren ziñismenean eutsi berotu ta Paul Deunaganako maitasunean berotu zitun ere. Eta Paul Deuna-ri lagunduaz Kisto-ren siñismena zabaltzen zebilela, itxasoz ta legorñez ibilñirik Kreta-ra eldu ziran. Eldurik bada, erñ aretako kristauen gotzaintzat ipiñi zuan toki oneri dagozkion ara-

arazoetan trebea zala ta yakintzan, zuzendasunean eta zuritasunean guzien eredu izango zala zekian noski-ta.

Aunela, bada, gezurézko siñisteen ilunpetan zeuden artean, argi bizia egiñaz, Kisto-ren siñismena zabaldu zuan, eta lan auetan bere bizia igarorik, larogei ta amabi urte zitualarik il zan, eta kristauak gotzain zaneke eleizan eortzi zuten. Bere izena Krisostomo Juan eta Jeronimo Deunak ospatu zuten, eta IX-gaŕen Pio Aita Santuak bere egunean Kristau guzien eleizetan ospatzea agindu zuan.

## OTSAILA-REN 7

### Eřomualdo deuna, lekaipurua

Eřomualdo deuna, Eřabena-ko dukien semea zan, eta artean gaztea zalarik, luřeko atsegin eta erokeri guziak utzi eta Benita Deuna'ren lekaidetxe baten sarřu zan.

Bizikera onetan iru urte igarota gero, Benezia aldean bere deuntasunaz ospatsu zan Marino bakarzale battegana yoan eta irakasletzat ařturik, deuntasunean asko auřeratu zuan.

Luzipeř-ek guda gogořa egin zion Eřomalda-ri, baña Luzipeř-en gudan eta luřeko gizon gaiztoen zitzaldietatik beti garaile irteten zan. Beti otoizketan igarotzen zitun goiz eta gauak, eta geyenetan ezertxo ere yan gabe egon-ařen arpegi alaiaz egoten zan, eta ikusten zutenak, bera pařez-pařez zegoala ikusirik, berak ere paře egiten zuten. Bere itzaldiak entzun, eta galbidean zeudenak, onbidera yoan eta beren bizikera aldatzen zuten, eta onbideratu ez zuan biotz gogořik gutxi izan zan. Luřeko aberats eta aundizkiei ere beren obenak (pekatuak) ezagutu arazirik, beren biotzak Yainkoa-gana biurřten zituan, eta eřegeagan-

dik asifa, aundizki ta aberats guziak itzal (erespetu) aundia zioten ta aundizkietatik asko bere menpean lekaidetzat (praletzat) gelditzen ziran.

Erromalda deuna-k, Benita deuna-ren araudiko (ereglako) komentu asko zuzendu, beste berri asko irasi eta guziak gizon burutsuen menpean ipiñi zituan.

Larogei urte zitularik, gau batez, Apenino mendian zegoala, Yakob-en antzeko amets bat izan zuan: luřetik zerurañoko maladi baten gora zuriz yantzitako lekaideak ikusi zituan, eta amets onetan Yainkoa-ren naija ikusirik toki aren yabeari luř aura eskatu ta lekaidetxe (komentu) bat egin zuan, eta an gelditu ziranak, bakařik bizi, ardaorik ta aragirik ez arřu, itzik iya egin gabe egon ta bizikera gogořa egiteko eskeitza egin zuten, eta gelditu ziran toki arek Kamalduli izena zualako, lekaide auek Kamaldul-dařen izenez ezagutzen dira Toki onetatik, Kastro izena zuan aranera yoan eta an ere beste lekaidetxe bat yaso zuan.

Azkenik urteak bañio Yainkoa-ganako egikun ge-yago zitularik, 1027-gařen urte an il zan. Bere lekaidiak toki askotara zabaldu ziran, eta Alexander II-gařenak beren araudia (ereglak) ontzat arřu ta onetsi zituan.

## OTSAILA-REN 8

### Juan deuna, autorle ta iraslea

Mata-řar Juan deuna Probentza-ko Franko erian yayoak, txiki-txikitandik bere burua, Andra Maria-ri eskeñi zion. Bere ikasketak egitera Paris-era yoan zan, eta irakasletza (doktoradoa) arřu ondoren, berak nai ez zualarik, Paris-ko gotzaiñak apaiz egin zuan, guttiz on eta yakintsua zala eta eri aretakoentzat eredu (modelo) izango zala zion-da. Eta bere lenengo yaupa (meza) eman zuanean arigařizko gauza bat gertatu zitayon: zuriz yantzitako aingeru bat ikusi zuan, bada, bere bulař gañean gurutzu goři-urdin bat zeramala ta bere eskuak, alde baten zituala, kristau eta moro gañean zitularik.

Agerkunde onetatik, siñesten ez zuten nagusien menpetik kristauak azkatzeko lanetan bere bizia igaro bear zuala ezagutu zuan, baña obetoago ezagutze-ařen Balois-řar Peli deuna zegoan tokira yoan zan. Eta an zegolarik, bein iturri ondo baten itzegiten ari zirala, orėin bat, adar artean gurutz goři urdiña zeramala ikusi zuten, eta orduan Yainkoaren naija obetoago ezaguturik, Erroma-ra yoan, eta Aita Santuagandik

ziñesgepean zeudenak azkatzeko arandia onestea nai zuten.

Aldi aretan, Doipuru (Aita Santu) Inozentzi zan eta abegi ona egin eta beren asmoak yakin zitun, baña, ala ere, zalantzaka zegon. Onetan III gañen Ynozentzik ere, jaupa ematen ari zan goiz baten, zuriz yantzita bular gañean gurutz goñi-urdir zeraman aingeru bat ikusi zuan, eta orduan Juan eta Peli-ren naja egiñik, ziñesgepetutako kristanak azkatzeko araudia onetsi zuan, eta yantzizat, agertu zitzaion aingeruaren antzekoa eman zien.

Aitu Santuak beren asmoak ontzat arñtu, ta arandia onetsi bezin laster Prantzi-ra yoan eta beren lenngo etxea yaso eta Peli deuna bertako buru gelditurik, Juan Erroma-ra yoan zan. Gero Apirkara sarñtu zan, eta an ziñesten etzuten menpean zeuden kristauen siñismena sñtu ta indarñizen zuan, ta gero etsaien menpetik ateratze zitun, ta kristanen truke zer emateko etzuanen bere burua eskeintzen zuan. Lan auetan neke ta oñaze asko eraman beañ izan zitun, kristauen etsai ayek zioten goñotoaz.

Bere bizia lan auetan igaro, ta Italia-n, Prantzian eta España-n bere araudiko etxe asko yasota gero, irurogei ta bat urte zitualarik, 1213-gañen urtean il zan.

## OTSAILA-KO 9

### Zirilo deuna, Alexandria-ko gotzian, autorle ta irakaslea

Zirilo deuna Alexandria-n yayoa, uri aretako gotzaiñaren iloba, gero gotzaintzan bere ondorengoa izan zan. Artean gaztea zalarik, uzkurtzeko (Erreligioeko) gauz guzietan yakituna izate-aren, Yerusalenera yoan, bertako gotzain Juan-gana eta 403-gañen urtean beñiz Alexandria-ra itzuli, ta bere osaba il zanean, bere ordekotzat autu zuten.

Alexandria-ko gotzain egin zutenetik, kristauen siñismena indarñizen eta Yainko-ganako maitasuna berotzen lan asko egin zuan, baña batez ere Yesukistoren siñismena garbi eukitzen, eta aldi aretan siñeskintzaren egiak gezuñez loitu nai zituztenen kalte, bere bizi ta indar guziak erabili zituan. Aldi aretan, bada, Nestorio, Kostantinopla-ko gotzaiñak, Andre Maria Yainkoa-ren Ama ez zala esan eta idatzi zuan, eta au yakin bezin laster, Kuiril (Zirilo) deuna, siñismenaren kaltez zijoan gezuñta txartzat eman eta Aita Santuari idatzi zion. Au zala-ta, Kuiril deunak, Nestorio ta bere lagunagandik irain lotsa ta atsekabe asko

eraman bear izan zituan, baña Yesukristo-ren siñis-  
menagatik poz-pozik eta atsegiñez eraman ere.  
Nestorio-k, éregea ere Kuiril deunaren aurka ipiñi  
zuan, baña Yainkoa-ren alde egin ezkeru, éregearen  
asaéragatik ez zitayon ayolarik.

Orduan Aita Santua-k, Kisto-ren siñismena oso-  
rik eta érugabe eukitze arén, Epeso-n gotzain batzara  
egitea agindu zuan, bere ordekotzat bi gotzain bida-  
lirik, Nestorio-ren gezurak gaiztetsi (kondenatu) eta  
bere gotzaintzatic kendu, eta Andra Maria Yainkoa-  
ren Ama zala onetsi zuten.

Auegatic, Nestorio ta bere aldekoak, Kuiril deuna-  
ren kalte al zutena esan eta idatzi zuten, baña berak  
Yainkoagatic ta bere siñismenagatic guzia apaldasun  
aundiaz eraman zuan.

Bere bizian, siñesten ez zutenen kalte, kristauen-  
tzat eta Idazti deuna (Eskritura Santua) eta siñeskin-  
tzaren egiak argitzeko asko ta ondo idatzi zuan, eta  
auegatic Eleizako irakasletzat (Doktoretzat) auke-  
ratu zuten.

Azkenik ainbeste lan eginda gero, 444-garén urtean  
Yainkoa-k Beregana eraman zuan.

## OTSAILA-REN 10

### Eskolastike deuna, neskutza

Eskolastike deuna, Benito deuna aréba, Italia-ko  
aundizki sendikoa zan, eta aurtzarotik, bere aitamak  
Yainkoa-ri eskeñi zioten.

Bere aldiko andere ederenetako ta aberatseneta-  
koa izan arén, bere soñeko ta sendiko ondasun gu-  
ziak Yainkoa-rentzat nai izan zitun. Eta augatic bere  
anai Benita Deunak Kasino mendian lekeidetxe bat  
egin zuan bezela, berak ere, emakumientzat, beste bat  
yaso ta bere bizitza igarotzera ara yoan zan.

Urtean bein bakañik irtetzen zan Eskolastike deuna  
bere lekaimetxetik (konbentutik) bere anaia ikusteko,  
eta Benita Deunak bere ikasliekin etxe ondoko toki  
baten artzen zuan, eta egun ayetan Yainkoa-ren gau-  
zetzaz itzegiten egoten ziran.

Azkenengo aldiz ikustera yoan zanean, zeruko  
gauzetzaz itz egiten gau guzian igaro nai zuala esan  
zión, Eskatu ziona bere anaiak ukatu zion, eta Esko-  
lastike Deunak orduan, maian besoen gañean burua  
yañirik Yauna-ri otoi egin zion. Gana ooskarbi zegon,  
izañak disdis egiten zuten, eta Eskolastike deuna otoi

egiten asi zanean aize gogoña yaso eta tximist eta oztots bildugariz ezaitz gogoñak eraso zion. Orduan Benita Deunak etxeratu ezin ziekela ikusirik, bere ařebari esan zion: Egin dedana Yainkoak barkatuko aldin; zer egin den? Eta bere ařebak erantzun zion: Nerekin gelditzea eskatu diat eta ez didak entzun, Yauna-ri eskatu zioat eta entzun zidak; orain bada irten alba aiz irten adi. Baña euria oso gogor ari zan, eta ezin irten zala ikusirik Yainkoa-ren gauzetaz itzegiten gauna igaro zuten.

Andik iru egunera, Benita deuna bere etzangoan (kuartoan) zegolarik, bere ařebaren gogoa (anima) gorputzetik irten, eta uso edeñaren antzera zerurantz egaz zijoalarik ikusi zuan, eta bere lekaidiei esanik, ařebaren gorputza arñu eta beretzat zuan ilobian ipiñi zuan. Onela beti gogoz batufa egon ziranak, il da gero soñez ere egon ziran.

## OTSAILA-REN 11

### Lourdes-ko Andre Maria



IX-GAREN Pio-k Andre Maria Bere soñzetik garbi-garbia ta erugabea izan zala erabaki ta siñestea agindu zuanetik lau urtera, Pranze-ñ Tarbes-ko eleiz-barutian, Gabe ibai ondoan, Masabiele izena duan Lourdes ondoko leize baten, Andra Maria neskatxo bati agertu zitzaion. Neskatxo onen izena Bernardetxu zan, txiroa oso, baña guziz on ta yainkozalea. Andra Maria, bada, saritan agertu zitzaion eta agerkundeetan arpegi gazte ta samurez, yantzi zuriz ta geriko urdiñaz, apainduta, oin-utsik eta oñetan lañosak zituala agertu zan. Lenengo agerkunde a 1858-garen Otsaila-ren II-an izan zan, eta bertan Andra Maria-k gurutze santuaren ondo egiten eta Agurtza (Erosarioa) otoiztera zaletu zuan, berak eskuntzetik dindili-ka zuan Agurtzaz



erakutsirik; eta beste agerkundeetan ere ori egiten zuan. Urango agerkundean neskatoak, deabruaren bilduraz, Andre Maria-ri ur onetsia (bedeinkatua) bota zion, baña Andre Maria-k iri-pahez arpegi samurago ipiñi zion. Eta irugañenez agertu zitzaionean, amabost egunean yoateko agindurik, Bernardetxu beregana yoaten zanean obendioen (pekatarien) aldeztotoitz-egiteko, luñean mun-egiteko, eta garbai (penitentzia) egiteko eta gero apaizei toki aretan eleiza bat egiteko ta yaletako ibilkundeak (prozezioa) egiñaz yoateko esan zion. Gañera artean luñpean, baña gero softuko zan ituritik ura edan zezala eta ur areaz bera garbitu zedila agindu zion. Azkenik Andre Maria-ren Deya-ren (Anunziazion) egunean ainbeste aldiz agerturik, Andre Maria-k eskuak, bular gañean tolestu eta begiak goruntz yasorik esan zuan: Ni eru gabe sortua naiz.

Aitz zuloan gertatzen ziranak ta gizonak izaten zituzten ontarteak toki guzietara zabaldurik, guzien Yainkozaletasuna berotzen zan. Onetan, Tarbes-ko gotzaiñak gertatzen ziran mirariak eta neskatoaren tolesgabetasuna ikusirik ta gertatu ziranak astiro epaituta gero, agerkundeak egizkoak eta zerukoak zirala eta Andre Maria toki aretan gurtu zezaketela erabaki zuan. Gero toki aretan eleiz bat yaso zuten, eta ordutik luñ guziko ereitatik gizon-emakume talde aundiak yoanik, Lourdes-ko Andre Maria-ren izena luñ guzian zabaldu zan. Bertan yayo zan ituriko ura

eraman ez zuten tokirik ez zan eta eri asko sendatzen zituan. Lourdes-ko Andre Maria-ri luñ guziko kristauak maitasun sutsu beroa agertu diote, an egin diran eleiza eta dauden ikuñin (bandera) eta apaingariak aitortzen dutenez. Andre Maria-ren yarleku berezia dirudin toki onetan, eleiz-yai eder ospatsuak ikusten dira eta batez ere gauetako ibilkunde atsegingariak kristauen biotzak Andre Maria-renganako maitasunean berotzen ditu.

Kristau ibilkunde auek Yainkoa-ganako maitasunean ain otzak ziran eunki aretako gizonen on asko ekañi zizkien, ta Kisto-ren siñismena aitortze onetan apaizak buru diralarik, kristauen toki deun aretara eramaten sayatu dira. Gotzaiñak ere safi ta asko yoan eta eleiz yaletan aurenak berak izan oi dira, eta askotan yanzkordun (kardenalak) ere apaldasun aundiaz yoan izan dira.

Aita Santuak Lourdes-ko Andre Maria-ri zioten maitasunaz eleiz oni eskeñ asko egin zizkioten. IX-gařen Pi-k here ordeko bat bidalirik Andra Maria burrestun (Koroi) eder berezi bateaz apainduta egotea nai izan zuan.

XIII-gařen Lon-ek Lourdes-ko eleizari eskeñ asko egin eta Andra Maria agertu zanetik ogeita bostgařen urtean barkapen asko emanik ospatu eta bere Meza esatea agindu, eta X-gařen Pi-k yai au eleiza guzira zabaldu zuan.

## OTSAILA-REN 12

### Saspi irasle deunak, autorleak

Amairugareren eunkian, II-gareren Perderika bakal-dunak (eregek) Eleiraren kaltez eraso ziolarik, Plorentzia-n saspi gizon aberats batu eta elkariganako maitasunean eredu izan zira. Eunki aretako 33-gareren urtean, bada, Bonaldi ta bere lagunak baturik, zituzten ondasunak landereren artean zabaldua gero, bein otoiketari ari zirala Andre Maria agertu zitzaizen eta bizikera deunago egitera poztu zituan. Andre-Maria-k agertutako naia betetzeko saspi aizkideak uri aretako gotzaiagana yoan eta beren asmoak esan zizkioten, eta gero soñeko lander zakarrez yantzirik basatxauno (ermita) batera yoan eta bizikera beña asi zuten. Yainkoa-k saspi aizkideaz aitu zuten bizitza, begi onez ikusten zuala adierazteko, mirari bat egin zuan. Plorentzia-n etxe etxe eske zebiltzelarik, bost ilabeteke ume batek (gero deun izan zan Benito-tar Pili-pa-k) ikusirik, Andre Maria-ren mirabeak deituz, saspi deunak goratzen asi zan, eta ordutik Andre Maria-ren mirabeak deitzen zieten.

Ordutik eña beren ondoren asi zan, eta bakarta-

sunean bizitzeko, mendi batera yoan eta gizonen baño aingeruen bizitza egiñez bizi izan ziran. Baru goña, ura eta bedarak yanaz bizi ziran, eta eguna beren soña zigortzen eta Yesukristo-ren eta Bere Ama Andre Maria-ren oñaze ta nekaustea (pasioa) gogaltzen (meditatzen) igarotzen zuten. Bizitza onetan zudela, Andre Maria beriz agertu zitzaizen, eta Berak gurutz-pean izan zituan oñaze-nekaustea gogoratzeke Bazkun bat egitea nai zuala agertu zien. Andre Maria-ren naia betetzeko Aita Santua-gana yoan ziran eta beren Bazkuna onestea iritxi zuten.

Ordutik, Italia-ko urietan, Yesukristo-ren nekaustea beren itzaldietan azaltzen eta Yainkoa-ganako maitasunean eña berotzen eta batez ere eñietako gofotoak eta ikusi eziñak kentzen lan asko egin zuten. Eta Italia bakarik ez ezik, beste eñietara ere yoan ziran, Yaunarentzat gogo asko irabazirik.

Azkenik Yainkoaren usai gozoa toki guzietan zabalduz, il ziran, eta bizi izan ziran beti batuta egon zirakak, il da ere, ilobi baten ipiñi zituzten, eta eñiak ere beti baturik ospatzen ditu.

## OTSAILA-REN 13

### Ritxi-taŕ Katariñe deuna

Ritxi-taŕ Katariñe neskutz ospatsua, Plorenzia-n, Ritxi-taŕen sendi aberats eta aundizkitik yayo zan. Ugutzatu (bafayatu) zutenean izentzat Alexandere ipiñi zioten, baña lekaideme (monja) egin zanean Katariñe izena artu zuan.

Amat urte zitularik bere aitak, areba bat zuan lekaidemetxera bidali zuan, Yainkoa-ren bildur pean asi nai zuan-da. Ta Katarinek bere biotza Yainkoaren eredura erutzen zuan, eta artean neskatxoa izan aŕen, bere yolasak utzi, gurutzean zegon Kisto-ren irudi baten aŕera yoan eta otoiketari egoten zan.

Amairu urte zitularik lekaideme yantzia artu zuan, eta gurutzean zegon bere maite Yesukisto-gatik min eta oñazeak eraman niaz zegolarik, Yauna-k bere naia bete zuan, gaxo gogor bat eta egunero sukar (kalentura) aundia eta gultzurunetako miña bidaliaz. Gaxo ta min auek guziak pozik eraman zituan eta gaxotu zaneŕtik bi urtera gaxoak gogorago eraso zion eta lorik egiten ez zion uzten. Onetan zegoala Deun bat agertu zitzaion eta bere gañean gurutz bat egiñik

zearo sendatu zuan, eta ordutik aŕera bere soña zigortzeko asmatzen ez zuan neke ta oñazerik ez zan. Yauna-k, Beregatik aŕtzen zituan min neke auetan asko pozten zuan, eta askotan soña luŕetik yaso eta gogoa Yainkoa-gan zuala egon oi zan. Bere bizian alatz (milagro) asko egin, gauza ilun eta yakingaitzak iragari, eta bere deuntasuneagatik oso ospatsua izan zan.

Bizikera deun au egiñaz bere urteak amaitu zituan eta irurogei ta zortzi urte zituala, bere lekaidemetxeko (komentuko) buru berogei ta bi urte izan da gero, Yainkoa-k, Otsaila-ren 2-an, Bereganatu eta il da gero ere, bere deuntasuna alatz eta mirari askoz agertu zan.

## OTSAÏLA-REN 14

### Balendin deuna, yaupari eta ziñopa

Klaudio Erroma-ko erege zala, kristauen kaltez gogor asi zan eta eraso aretan Yesukisto-ren alde odola eman zutenetako bat Balendin deuna izan zan.

Erroma-n zegolarik eregek bere aurera eraman azi zuan eta itz legunez esan zion: Nere aizkidetasuna utzirik, kristauen aizkide zergatik izan nai dek? Gizon zur eta yakintua aizela entzuten diat; eta bestetik txorakeriak siñesten ikusten aut. Eta Balendin deunak erantzun zion: Yainkoa-ren eskeña ezagutuko baukek, zori onekoa izango itzake, eta ire eria ere bai, ta gezurézko yainkoei utzirik Yesukisto benetako yainko bakaña dala siñetsiko ukek. An zegon legegizon batek au entzunik esan zuan: Gure yainkoak txar-etsi ditu. Baña ala ere Balendin-ek eregeari itz-egiten yafaitu zion eta batzuk Balendin-en erausiak eregea zerbait biguntzen zuala ikusirik, deadarña asi ziran. Orduan eregeak iskanbilaren bat gertatuko zalakoen bilduraz, Balendin deuna beste toki batera eramatea agindu zuan, bere burua aldezten ez ba-zuan zigortzekotan eta aldezten ba-zuan ez gaiztestekotan. Andik,

Asterio gudari-buruaren etxera eraman zuten, eta saritzean Balendin deunak esan zuan: Luřeko argia zeran Yaun ori, ilunpetan dauden ainbeste gizon emazume argitu itzafzu. Asterio-k au entzunik, esan zion: Diokan ori egi dan ala ez ikusiko diagu. Orain bi urte dirala itxu dedan alaba bai diat, eta ikusmena ematen ba-diok Yesukisto benetako Yainkoa dala siñetsiko diagu.

Neskatxo itxua ekañi zioten bada, eta begi ifsu gañean eskuak ipiñirik, ikusmena eman zion, eta neskatxoaren gurasoak kristau egin ziran. Asterio-k Balendin deunak agindutako guzia egin zuan, gezurézko yainkoak zatitu, gaizki egiten zietenei asketsi, eta espetxean zituan kristauak azkatu zituan.

Eregeak au yakiñik, Erroma-n zarata gogoña izango ote zan bilduraz kristauak oñazetzea agindu zuan, eta Balendin deuna zigortu eta gero bere burua ebakirik 270'g. urtean, Yainkoa-gana ziñopeen yantziz yoan zan.

## OTSAILA-REN 15

### Paustino ta Yobita deunak, ziñopak

Paustino ta Yobita, anayak, Breszia-ko sendi (famili) ospatsu aberatsekoak ziran. Paustino anai zarena zan, eta Apolonio Gotzaiñak Yaupari (apaiz) egin zuan, eta Yobita, yaupaltsein edo diakono. Bi anayak, bakoitzak bere tokian, Yauna-ren eta kristauen aldez gogoz ekin zioten lanari, eta Adriano eřegeak yakin zualarik, bere mendeko zan Italikori, anai biak lotu eta espetxean sartzeko agindua eman zion, eta bigunean edo gogorean Kisto-ren siñismena kentzeko. Baña Italiko-k, bi anayak beren siñismean gogor zeudela ikusirik, sendi aberatsenetakoak ziralak, Adriano eřegea bera Breszia-tik igaro arteraño ez zuan ezer egin.

Adriano, bada, Breszia-ra eldu zan, eta bi anayak bere aurera eraman azirik, eguzkia gurtzen (adoratzen) zuten eleizara yoan, eta eguzkia gurtu zezatela agindu zien. Yoan ziran bi anayak, bañan Yaunari otoi egin zioten, eta len disdiraka zegon eguzkiaren irudia ilun-ilun gelditu zan. Orduan eguzkiaren apai-zak, eguzki irudia garbitzen asi ziran, eta irudia, puz-

katu ta auts-egiñik gelditu zan. Adriano-k gertatu zana ikusirik, bi anayak leoi ta beste pizti zakaerei botatzeko agindu zuan, baña pizti gogorak bildots otzanak bezela deunen onetara etoririk geldi-geldi zeuden. Asafatu zan orduan Adriano ta sutara bota azi zitun, baña bi anayak oe bigunean ba zeuden bezela, atsegiñez Yauna aintzatzen (glorifikatzen) asi ziran. Ezer egin ezin zuala ikusirik, Adriano-k, espetxera sartzea agindu zuan. Goseak ilko zitualakoan zegon, baña aingeru batek yatekoa eramaten zien. Espetxetik beriz aterata, peun urtua aotik sartu zien, eta beren ondoan su ikaragañi bat egin ere bai, ta ala ere suak ezitun eretzen.

Mirari auek ikusi ziturten kristau ez ziranetik askok, Yesukisto benetako Yainko bakaña zala siñetsi zuten, eta Adriano-k au ezin eramanik burua ebaki azi zien.

Onela soin gogoz anaiak ziranak, egun baten beren siñismena odola emanez aitortu zuten.

## OTSAILA-REN 16

### Onesimo deuna, gotzain eta ziñopa

Onesimo Deuna, kristau egin baño len, Kolosa-ko Pilemon aberatsaren yopu zan. Pilemon-ek Paul Deuna-ri entzunik Yesukisto-ren siñismena ar̄tu zuan. Onesimo Pilemon-en mōoi zegolarik bere naguziari lapūřeta bat eginda gero, etxetik iges-egin eta Er̄oma-ra Paul Deuna ikusfera yoan zan. Paul Deuna espe-txean (kartzelan) eztuntez (katez) lotuta zegoan, eta Onesimo maiteki arturik, eta Kisto-ren siñismena erakutsi ondoren, ugutzatu (batayatu) zuan. Orduan Pilemongana bidali zuan, baña egin zuan lapūřefagatik ez gaizki ar̄tzeko esanaz, kristau zala-ta. Pilemon-ek asketsi zion bere mōoiari, ta bere menpetik azkatu-rik, beriz Paul deuna-gana bidali zuan.

Onesimo, Roma-ra beriz eldurik Paul Deuna-gana yoan, eta benetako zion maitasuna, gauz guzietan laguntzen agertzen zion. Paul Deuna-k egizko kristau zintzo sutsua zala ikusten zuan, eta ardurazko lanak berari ematen zizkion. Aunela, Tikiko lagun zualarik, Kolosense-tařei idatzi zien idazkia bere bifartez bidali zien, eta lanetan zintzoa, siñismenean bikaiña eta

siñismena zabaltzen sutsua ta langilea zala ikusirik, Efeso-ko gotzain egin zuan.

Kristau bakařik zanean, ona izanik, siñismenaren alde lan asko egiten bazuan, Paul Deuna-k Efeso gotzaintzat ipiñi zuanetik kristau ta yauparien eredu (modelo) izan zan; eta augatik Jerusalem-go gotzain lña-kik, Paul Deuna-ren idazkien arauz, gotzain ona zala ikusirik, bere bizitza ospatu zuan.

Onetan Efeso-n zegoala, Domiziano-ren eřegetza garaian, eztuntzen (katez) loturik Er̄oma-ra eraman zuten, eta an ařika ilik Kisto-ren alde bere odola eman zuan. Kristauak, ziñopen odolez apainduta zegon gorputz aura, Efeso-ra eraman, eta aintz (gloria) aundiz eortzi zuten.

## OTSAILA-REN 17

### Kapadozia-ko Julian deuna, ziñopa

Julian deuna Kapadozia-n yayo zan, eta, Eusebio edeslariak dionez, bere egikun guzietan benetako kristau zintzo ta Espiritu Santua beregan zegoala ageritzen zan. Pirmiliano-k kristau asko il zituan baten, Julian deuna Zesarea eñira etoñirik, ziñopen (martirien) gorputz eta ezurak luñean botata zeudela ikusirik, Kisto-ren gudari bikain ayei zien maitasuna bere buruan ezin eskutaturik ziñopen gorputzak zeuden tokira yoan, eta banaka banaka mun egin eta besartaku zituan. Toki aretan Pirmiliano-k ziñopen gorputzak zaitzeko gudariak ipiñi zituan, an lurperatu gabe eukirik añano ta beste piztiak yatea nai zuan-ta. Baña Julian deuna gudariak zeudela-ta ez zan bildurñu. Orduan gudariak, Julian deunak egin zuana ikusirik, añapatu, eztuntzez (katez) lotu eta epaikari gaiztoaren aurera eraman zuten, aura ere kristau zala esanaz.

Pirmiliano gaiztoa, ainbeste kristau il da gero, kristauen siñismena kenduko zualakoan zegon, eta Julian deuna bere aurera eraman zutenean asaretu, eta sutara-bota zezatela agindu zuan, eta Julian deu-

na-k epaikari gaiztoaren agindua poz pozik entzunik, Yauna-ri, Bere aldez bizia emateko bidean ipintzen zualako, Yainkoa-kin dauden deunakin noiz batuko ote naiz, zion pozen pozez. Eta gero sutara bota zutenean, Kristau bikañari zegokion bezela su-oñaze gogoña pozik eramanik, bere gogo edeña Yainkoagana yoan zan.

Epaikari ankeñak kristau bikañari bizia kendu arien ere naikoa ez zuala egin uste zuan, eta ziñopa deuna zegon tokian bertan utzi zezatela agindu zuan, ziñoparen gorputz eña pizti eta abereak yatea nai zuan-ta. Lau egun toki aretara bertan egon zan ziñoparen gorputza, baña pizti ta abereak ezer ez egiñik, kristauak gorputza arñu eta zegokion bezela eortzi zuten.

## OTSAILA-REN 18

### Plabiano deuna, Konstantinoplako erkaba (patriarka)



ko) ogi batzuk bidaltzen zizkien, Yainkoa-ren eleiza-

PLABIANO deuna yaupari eta, Kostantinoplako eleizaren ondasun eta pitxien zaintzale zala, eleiz aretako Proklo erkaba il zanean, kristau guzien poz eta atsegiñez Plabiano deuna bere ordekotzat aukeratu zuten. Baña kristauen etsayak beren atsekabea ezin estaldurik zebiltzen. Etsayen artean gaizto ta bildurgarientako bat Kirsapi, Todosi eregearen kolkokoa zan. Arek Todosi gaztearen naimena berak nai bezela erabiltzen zuan: eta Palben (Plabiano) erkaba egin zutenean, zerbait eskatu zezayola esan zion. Eleiz aretako oitura zan bezela, erkabak beren tokiko yabe egiten ziranean, eregeari onetsitako (bedeinkatuta-

kin aizkide zirala agertzeko. Palben deunak ere beste ainbeste egin zuan, eta Kirsapi-k beste zer-edo-zer bialtzeko agindu zian, baña erkaba deunak eregearen bildurik gabe, eleizako ondasunak Yainkoa-rentzat (pobrientzat) bakarrik zirala erantzu zion. Erantzun au aritu zuanean Kirsapi-k, su ta gar yafirik, Palben deuna-ri bere ordaña emango ziola zin egin zuan. Baña Palben deuna, eregearen aizkidearen asarearen asareak ez zuan bilduritu, ta gotzai batzar bat egiñik Kirsapi-ren aide izan are, Eutikes ziñauslea siñismenaren kaltez zebilelako gaizetsi zuan, eta orduan Eutikes-en aizkideak batuñik, Palben deuna bere tokitik bota naiez, bere gañera oldarka yausi, zigoñtu, ostikada ibili, ta zaurituta gero, Oigitora atzeñituta bidali zuten. Aldi aretan Aita Santu Lon deuna zan eta Palben deunari egin zizkietenak yakin zituanean, pozturik idazki bat igori zion. Baña Palben deuna idazki eder aura ez zuan aritu, egin zizkieten zauriak Oigoto-ra yoan orduko-ra yoan ordukotxe bizia kendu zioten-da.

Yainkoa-k bere aldez ainbeste lan egin eta ainbeste oñaze ta neke eraman zuanari Bere ondora otsegin, ta bere izena ospatu zuan. Etsayel oster, bere zigoña eman zien, Kirsapi-ri batez ere eregek bere albotik bota eta lotsagarizko gaitzaz il zan-ta.



## OTSAILA-REN 19

### Kordoba-ko Albaro deuna, aitorlea (konfesorea)

Albaro deuna Kordona-ko dukeen semea, artean gaztea zalarik Domeka-ta'eren lekaibaltzuan (Ordeanean) sañturik Jainkoa-ren bidean aurenetakoa zan. Baña bere ona bakañik ez zuan begiratzen, eta bes-teen gogoen aldez lan egiteko, edonon itzaldiak egin eta obendio (pekatari) asko Yainkoa-ganatzen zituan. Aldi aretan kristauak iru moltsotan zatiturik agertzen ziran eta au zala-ta, kristauen artean naspila ta go-ñoto bizia zeuden. Albaro deunak, bada, kristau gu-ziak Aita Santu baten mendean ikusi nairik, guzien batasuna ta aizkidetasuna lortzeko egin ez zuan lanik ez zan izan, España-n, Portugal-en eta Itali-n ibiliaz. Katariñe eñegiñak bere aitor-entzunlaritzat (konpeso-retzat) autu zuan, eta Aragon-en eta Kastila-n zeuden goñotoak kendu eta naspilak zuzentzen asko lagundu zion. Gentzatu (paketu) eta aizkidetu zituanean, Kor-doba-tik urëan yaso zuan lekaidetxean (komentuan) eskutatu zan.

Ordurarteko bere bizitza goyena bestien gogoen

aldez lan egin ba-zuan, andik au'era batez ere bere aldez egin zuan, bere soin gogoak Yainkoa-ren be-gientzat eder baño ederaoak izan zitezentzat. Beste gogo-iñarkunen artean garbai-zalea ta otoi zalea zan bereziki. Sañtan yantzia kendurik eta sorbalda-utsik zegoala bere burua gogor zigoñtzen zuan; beste asko-tan ere aldatz añitsuan gora belauniko igotzen zan.

Bein bere burua zigoñtu ondoren beroki otoi egin-da gero, bere lekaidetxerantz bilotsik zegoan lande'ñ gaxo bat ikusi zuan eta biotza eñukiturik lepoan añtu eta etxera eraman zuan. Etxean sañtu zalarik; lekai-deak (praileak) lande'ñ gaxoa yaizten lagundu ziote-nean gurutzen zegon Kisto-ren irudi bat zala ikusi zuten. Yauna-k egindako ontarteaz añtu ziran, eta Albaro deunak belaunikaturik gurtu (adoratu) zuan.

Onela bizi izan zan Albaro deuna irurogei ta amar' izan arte, Yainkoa-k Berregana eremateko garaia eldu zitzyonean poz-pozik, lu'eko gauzak utzik bere bi-zian benetan mañta izan zuan Kisto-gana yoan zan.

## OTSAILA-REN 20

### Eukeri deuna, gotzain eta autorlea

Eukeri deuna Orleans-eko urian yayoa sendi (famili) aberats ospetsukoa zan. Luřekoei atsegin izaten zaizkien ondasun, izen ospatsu ta adin ona baizitun, baña bere gogoaren ederťasuna bikaiñago zan oraindik. Aunela bada, luřeko gauzak eta atsegiñak alde batera utzirik, lekaidetxe (konbentu) baten sarťu zan. Bañan, ala ere, bere bizikera deuna guziak, ezaguturik Eukeri deuna gotzaintzat eskatu zuan.

Gotzaintzat aukeratu zutela-ta, Eukeri deuna-k izan zuan atsekabea, aundia izan zan, baña Yainkoaren naiz yařaiturik, bera ta lekaideak negarēz ari zirala Orleans-era yoan, eta uri guziak pozez eta atsegiñez arťu zuan.

Eriak bere gotzaintzat aukeratu zuanean zeukan itxaropena, Eukeri deuna ez zuan gezuřfatu. Guzien aita zan, eta bere ipiñi zuten tokion zegokionez, gaiztoak bide onera ekarťzen, gaxoak pozten eta beren landerťasuna zituan ondasunaz arintzen, ezin esan añako lana egin zuan.

Ala ere, neke ta atsekabeak izan zituan. Karla eregea, eleizako ondasunak erabali eta eleizako gauzeetan eskubiderik ez zualarik, sarťzen zala ikusi zuan, eta Eukeri deunak dei-egin eta akarťu zuan. Orduan eregeak, egin zitzyon uařa, txartzat arťurik, bere tokitik Kolonia-ko urira bota zuan. Kolonia-n abegi ona egin zioten, batez ere Dukeak, bere ondasunak landerēn artean zabaltzeko emanaz.

Gizona baño aingeru antz geyagoz, sei urten bizi izan zan toki aretan soña zigořtuaz ta gogoa, otoiketan beri ariaz, Yainkoa-gan zualarik. Aunela, Yainkoa-k noiz-baitean, bere benetako maite ta maitaria atzeritrik Beregana eraman, eta il ondoren Yainkoak bere izene alatz eta mirari askoz ospatu zuan.

## OTSAILA-REN 21

### Seberino deuna, gotzain eta ziñopa

Seberiano deuna, Palestina-n Esitopolis-ko gotzain zalarik, gogo-zain zintzo ta zunena zan guzien aúrean. Yaupariak (apaizak) eñiaren eredu izateko, bere mendekoei siñismeneko egiak erakusten, gaiztoak Yainkoa-ganatzen, eta batez ere aldi aretan siñismenaren kaltez edonun zebiltzen ziñausleegandik bere mendekoak uruti eukitzen lan asko egin zuan.

Martziano ta bere emazte Pulkeria deuna erege ziralarik, Kaltzedonia-ko gotzain-batzañean arñutako erabakiak, Palestina-ko gotzain eta lekaideak poz pozik ikusi zituzten. Batzañ aretan Eufiki-zaleak gaiztetsi (kondenatu) zituzten, Kisto-k, Yainko izanik gure gizatasuna ez zuala zioten-da. Baña beste ziñausle (ereje) bat soñtu zan, Todosi izentzat zuana, eta onek Palestina-ko lekaidetxeak naspildu nairik, Eudoxia eñegiña aizkide zuala, Yesukisto-ren eleizarren kaltez asi zan. Laster, lotsa gabe, Yerusalen-go gotzaiña bere tokitik bota eta bere burua ipiñi zuan. Gero ziñausle ta lapur askoren buruzagitzat yañirik, Yerusalen eta alboko eñi guzietan zeuden kristauei

gogor eraso zien. Eñi ayetan kristau asko il eta beste tokietana ziyolarik Seberen (Seberiano) deuna zegoñ tokira eldu zan, eta Todosi gaizto ta bere talde ankerak, Seberen deuna, gotzain deun eta eleizarren aldeko zala zekitelarik arapatu, eñian arastaka ibili, zigorñtu eta zauriz beteta bizia kendu zioten.

Il baño lenago, Yesu Kisto-ren antzera, bere iltzañeei egin zizkietenak asketsi zizkien, eta au guzia ikusi zuten kristau ez zira asko, kristau egin ziran.

Yauna-k onela Seberen deuna-ri zion maitasuna agertu zion, bizi izan zanean Yainkoa-reñ aldez ainbeste egin zualarik, il da gero ere, bere bizi ta iltzeak asko Yainkoa-ganatu zituan-ta.

## OTSAIĻA-REN 22

### Kepa deuna-ren Antiokia-ko Irakasletza

Eleizak gaurko egunean ospatzen duan yaia, antiñakoa da.

Yesukisto-k il baño lenago, Kepa deuna, kristau guzien eta Apostoluen buru egin zuan. Yauna donokira (zeruetara) igo ondoren, Kepa deuna Yesukistoren ordeko ta kristau guzien buru zanari zegokionez, Jerusalem-en izan zan lenengo Eleiz-batzañean, bera izan zan maipuruko (presidente) ta guziak bere esanari yañaitzen zioten.

Yerusalen-dik Siria-ra yoan zan, eta beste urien artean añaena Antiokia izanik, bertan gelditu zan. Asieran neke, oñaze ta irain asko eraman beař izan zitun, baña gero asko ta asko, zeuden ilunpetatik irtenik, Luñeko Argia dan Yesukisto-ri yañaitzen asi ziran. Eleiza bat ere yaso zuten, eta bertan Kepa Deunak siñismeneko egiak erakusteko Irakastola ipiñi zuan.

Au da bada gaurko egunez ospatzen dan yaia: Kepa Deuna-ren lenengo Eleiz-bañutia Antiokian ipintzea. Yesukisto-k esan zion: Zu zera Kepa, eta

aři (kepa) onen gañean Nere Eleiza yasoko det. Kepa deuna, bada, Yesukisto-k Berak esan zuanez, Eleiza-ko eustazpia da, eta orain bere ondorengoak.

Augatik, gaurko egunez, Kepa Deuna-ren Antiokia-ko Irakasletza ospatuaz, Aita Santua-ganako bereziko maitasuna agertu beař diogu, Kepa-ren ondorengo da-ta.

Kepa deuna zazpi urte egon zan Antiokia-n, baña ez andik irten gabe, kristauen ardura izanik beste tokietako kristau taldeak ikustera eta ez zeuden tokietako kristau taldeak ikustera eta ez zeuden tokietara Yesukisto-rentzat gogoak irabaztera yoaten zan-da. Andik Eñoma-ra yoan zan. Aldi aretan Eñoma luñeko buru bezela izanik, Kepa deuna ere Eleiza-ren buru zana, Eñoma-n bere Irakastola ipintzea egokia zan.

Yesukisto-ren Gurutz gañean Bakaldun (erege) zala, ibirkeraz, gerkeraz eta lateraz ipiñi zuten, eta Kepa Yesukisto benetako Yainko bakaña zala, lenbizi ibertañei, gero elenetañai ta azkenik laziotañei erakutsi zien, kristau guzien buru zala adierazteko, ta bere ondorengoak ere, bera bezela, Yesukisto-ren Ordeko ta kristau ta gozain guzien Buru dira.

## OTSAILA-REN 23

### Seren deuna, lekaide ta ziñopa



Seren deuna elenetaña zan, eta lu-  
reko gauz guziak utzirik, toki bakañ  
eskutu batera yoan eta Eli Iragar-  
learen antzeko bizikera egiñaz bizi  
zan.

Sirmio izena zuan erian, txabola  
antzeko estalpe baten zegon, eta bere  
yatekoa, luřetik, bertan ereiten zua-  
netik, ataratzen zuan. Eguna, bada,  
luřeko lanean eta batez ere otoiketari  
igarotzen zuan.

Bein, baratzan zegoala, eregearen  
aizkide baten emazte eder ta galdu  
bat sartu zitzaion, eta lore eder usain-  
tsu batzuk ikusirik, bereak ba ziran  
bezela artzen asi zan, nai zuana egi-  
teko eskubidea ba-zeukan bezela. Or-  
duan, Seren Deunak, bildurik gabe,  
bere nabarmenkeria ezagutu arazi  
zion, bera bezelako emakume bat bakañik eta garai

aretan etořtzean ongi ez zegoala esanez, eta gero  
baratzatik bota zuan.

Emakume galdu aura, lekaide deunak bere bara-  
tzatik bota zualako biziki asaretu zan, eta bere sena-  
řari idazki (karta) bat idatzi zion, lekaide aren garbi-  
tasunaren kaltez gezur loi bat asmatuaz. Senařa ere  
asaretu zan, eta eregearen auřera eraman azirik, le-  
kaide deuna gaiztotzat artzea nai zuan; baña Yauna-k  
lagundurik, lekaideak bere buruaren alde esan zitua-  
nak entzunik, bere erugabetasuna ezagutu ta aitortu-  
turik, bere bakartasuera yoaten utzi zioten.

Orduan emakume galduak, gizon bakařzale aura  
kristaua zala esan zuan, eta Masimiano-k, beřiz lotu  
arazi, ta beregana eraman azi zuan. Bere auřera era-  
man zuten, bada, ta gezurẽzko yainkoei gur egiteko  
esan zion, baña Seren deuna-k, gezurẽzko yainkoei  
bein ere ez zituala gur-egingo (adoratuk) erantzun  
zion, ta augatik bizia kentzea agindu zuan, erege  
ankeřak.

Onela Yainkoa-k bere maitariari ziñopeen ta eru-  
gabeen burestuna (koroia) eman zion.

## OTSAIĻA-REN 24

### Matias deuna Apostolua

Judas, Yesukisto saldu zuan apostolua, Yauna-ren ondotik iges-egin eta bere burua il ondoren, Yauna-k aukeratu zituen amabi apostoloetatik amaika bakañik gelditu ziran. Augatik Yauna donokira igo ondoren apostolo guziak baturik, Judas-en ordekoztat beste bat aukeratu zuten. Ona emen Apostoluen Egintzak nola edesten digun.

Aldi aretan, Kepa-k (Pedro-k), anaien erdian yai-kirik (Eta batutako gizon taldean eun ta ogeiren bat bai ziran), esan zuan; Anayak; Espiritu Santua-k Dabid-en aoz, Yesus arapatu zutenen buruzagi izan zan Juda-tzaz esan zuana bete beař zan. Ura gure artean zenbatua izan bai-zan, eta eginkizun auetan ere bere zatia izan zuan. Aura, bada, gaiztakeriaren saritik landa baten yabe egin zan, eta mustupilka eroririk, erditik lertu zan eta bere esteak bařeyatu ziran. Eta ori Yerusalen-go guzien artean yakiña zan, landa aura beren izkuntzan Akeldama esaten bai zioten, au da: odolaren landa. Salmoetako idaztian idatzirik dago bada; bere egoitza lekaro egin bedi, eta bertan

ez dedila an egon; eta: bere nausitza beste batek arřu bedi. Beraz Yesus Yauna gure artean sařtu ta irten zan epe guzian, Juan-en batayotik asi ta gure artefik goian arřu zuteneraño gurekin egon direnetatik. Aren (Yesus-en) Berpizkudearen lekuko izan dedin, bat gurekin beař da. Ta bi aurkeztu zituen: Jose, Barsabas deitzen zana, ta izen-ordekoz Zuzena, eta Matias. Eta otoi egiñaz esan zuten: Yauna, guzien biotzak ezagutzen dituzun Yaun orřek, bi auetatik aukeratu zenuana erakutsi eiguzu, Judas bere tokira yoateko sa-yestu zanaren eginbide ta bidalitzaren lekua arřizekostat. Eta zoriak eman ziozkatzen, zoria Matias-egan erori zan, eta amaika apostoluekin zenbatu zuten».

Matias deuna Bidalitzat (Apostolotzat) aukeratu zuten, eta lan egiteko Judea aldea eman zioten. An Yesukisto-gana gogo asko eraman ondoren, Etiopia-n sařtu zan. Eri ayetan neke oñaze asko eraman beař izan zituan, toki txar askotan zear ibiliaz, eta batez ere, kristauen etsayetatik zetořzkion atsekabeagatik.

Azkenik, Kistoren alde lan asko eginda gero, arřika eman eta burua ebakita Yauna-ren eta Bere Egia-ren alde, bere bizia eman zuan.

Bere gorputz deuna, Elene eregiñak Erōma'ra eraman zuan, eta ordutik bertan dago.

## OTSAILA'REN 25

### Aparizio'tar Sebasten zorunduna

Sebasten zorunduna, España'n, Galizia'ko Gudiña erian, 1502'an yayo zan. Bere aitamak ez ziran aberatsak, baña kristau onak bai, eta Yainkoa'ren bildurëan azi zuten. Artean ume zalarik, bere gurasoak ardi-zai ipiñi zuten, eta lan onetan zegoala, gaixotu zan. Bein oean etzanda zegoala, otso bat yoan zit-zayon eta aginkada bat eman eta egin zion zauritik, zorneak irtenik sendatu zan. Amabost urte zituanean, Salamanka'ra yoan eta sendi aberats baten mofoi sañtu, baña toki aretatik laster irten zan, sendi ayeta-koak Yainko-zaleak ez ziralarik, bere oitura onen kaltez zebiltzela ikusi zualako. Onela, bada, irabazteko toki ona izan ahen, bere gogoarentzat ez zalako, toki aretatik irten eta nekazari batzuekin mofoi yañi zan. An pozik egon zan, len aña ez irabazi ahen, bere kristau oiturentzat nai zuan azkatasuna topatu zualako. Bizikera onetan zortzi urte igaro zituan, eta gero Amerike'tan irabazten ziranak yakin, eta batez ere kristauen alde lan egin zezakela ikusirik, bertara yoatea erabaki zuan. Aldi aretan toki ayetara yoaten

ziranak, guziak kristau siñismena zabaltzeko ez ziran yoaten, eta augatik, Sebasten zorundunak ain ona eta yainkozalea ikusten zutelako, bidean, askoren irañak eta atsekabeak eraman bear izan zituan. Eldu zanean, ez zan, beste asko bezela, urë-meatokitara (urë-minatara) yoan, eta Mexiko'ra eldurik nekazaritzan asi zan. Gero, toki ayetako bideak gaizki zudela ikusirik, bidegileen buru yañi zan, eta leku onetan diru asko irabazi ahen ez zan bere gogoaren kalterako izan, irabatzen zuanetik lander (pobre) eta beartsuei asko laguntzen zien-da. Baña Sebasten zorundunak beste bizikera atsedentsuago bat nai zuan, eta lur batzuk erosirik, beñero nekazaritzan asi, eta zituan aberaskiak asko geitu zituan. Onetan, sendi batzutako gurasoak ain ona eta aberatsa ikusten zutelako, beren alabak berakin ezkondu nai zituzten. Luzaro ezkondu gabe egon zan, bere gorputzaren garbitasuna zaitu nai zualako, baña azkenik, ainbeste ahen egiñik, neska on eta lander batekin ezkondu, eta urtebetean, bere emazteakin bizi izan zanean gorputzeko garbitasuna zaiturik, alargun gelditu zan. Beñiz sendi aberatsenetakoak ahen ta ahen ezkontzeko esaten zioten, eta bigarenez, orduan aberats batekin, ezkondu zan, baña senar emazte artean beren gorputzeko garbitasuna zaitzeko asmoa egin eta deunak bezela bizi izan ziran. Urte batzuk onela igarorik, bere emaztea il zanean, gaitz gogor batek arapatu zuan, eta sendalariak uzte ez zutelarik sen-

datu zanean, bere ondasunak utzirik, Pantzeska-ta'fen Bazkuna'n sa'rtu zan. Orduan irurogei ta ameika urte zituan, eta za'ra izan a'ren, lekaideak bere deuntasuna ezaguturik beriala a'rtu zuten. Lantzat eskean ibiltzea ipi'ni zioten, eta, bera zegon lekaidetxean eun lekaide zeudelarik berentzat yatekoa bi'latzeko lan asko egin bea' izaten zuan; ba'ña bere ibilaldietan, aingeruak, beren aizkide bai zan, leku batzutatik besteetara eramana eta bidean edu' eta euri artean zaitzen zuten. Deabruak benetako yainko-zalea ikusten zualako, amaika min eta o'ñaze egin zion, ba'ña Sebasten zorunduna, Yainkoa'ren laguntzaz, beti garaile izaten zan.

Bizikera deun onetan, larogei ta amazortzi urtera'ño eldu za, eta Yainkoa'k berari zion maitasuna agertzeko, bere bitartez alatz (milagro) asko egin zituan, Azkenik, bere bizitzan kristau zintzo ona izan zana, Yainkoa'k Bere-gana eraman zuan 1600-ga'ien urtean, eta VI ga'ien Pio Doipurua'k zorundunen e'rez-kadan ipi'ni zuan.

## OTSAILA-REN 26

### Porpiri deuna, gotzai'ña

Porpiri deuna Tesalonika-n yayoa, sendi (pamili) aberats eta aukizkietakoa zan. Bere aitamak Yainkoa-ren bildu'rean azi zuten, eta ogeita bost urte zitularik Oigito-ra yoan eta andik au'rera Yainkoaren gauzetan bere bizia igaro nairik Eszete izena zuan lekaidetxe baten sa'rturik a'riga'rizko bizikera egin zuan.

Bizikera onetan bost urte igarorik, Yerusalen-go leku deunak ikustera yoan zan; eta Yesukisto ibili zan toki ayek ikusita gero, Kalbario mendira yoan zanean, Yauna agerturik, Bere ondoren ya'raitzeko inda' bika'ñak eman zizkion. Gero bere ondasun guziak lande'rei emanik, Yordan ibai ondoan bere bizi-tokia ipi'ni eta na'ru-ontzalekintza ikasi zuan, onela bere eskuko lanaz bizi izatekoa irabazte a'ren.

Onetan zegoalarik, bere bizitza deunaren ospea toki guzietara zabaldu zan, eta Yerusalen-go Gotzai'ña-k, yaupari (apaiz) egin zuan, bere yakintasun eta deuntasuna kristau guzien onerako izan zedintzat. Aldi aretan Gaza-ko gotzaintza utsik zegoan, guziak



Porpiri toki aretako aukeratu zuten, baña beronek nekez eta negařez toki aura arřu zuan. Beretzat mingarria ta neketsua izan arřen, kristaumentzat onurakořa izan zan. Guzien alde z lan egin zuan, baño batez ere Yainkoa-gandik uruti eta ziñausleak (erejeal) eleiz barřutira ekařtzeko. Auen alde bereziki lan egin zuan, asko ta asko beřiz eleiz barřutira ekařiaz, zituzten gezuřezko yainkoen irudiak puzkatuaz. Yainkoa-k bere otseiñaren deuntasuna agertu zuan, askotan itz bat esanik, gezuřezko yainkoak zatitu, gaxoak sendatu, eta ekaitz eta abereak gentsatzen zituan-da.

Askenik, bere soña ainbesteko neke ta garbaiaz indarř-gabetu zan, eta Yainkoa-k, beliko saria eman zion, irurogei ta zazpi urte zitularik Bere ondora eramanz. Erři guziak bere iltzeaz min eta atsekabe aundia izan zuan, bera bene-benetako aita ta guzien laguntzale ta poza zalako. Kristauak bere aita, gaxoak beren osasuna, eta kristauak ez ziranak, Yainkoaren bidea erakutsi eta Yainka-gana eramaten zituana galdu zuten.

## OTSAILA-REN 27

### Leandro deuna, Sebiřa-ko gotzaiña

Godotařak Yainkoa-ganetzeko ainbeste lan egin zuan, Leandro deuna, Cartagena-ko gizon aberats eta aundizki baten semea izan zan. Bere sendian (pamilian) bertan Yainkoa-ganako bidea ikasi ta asko aure-ratu zuan, bere anaiak, Pulkentzi, Ezija'ko gotzaiña deuna, Plorentiñe deuna ta Isidoro, Sebiřa'ko gotzaintzan bere onderengo izan zan gotzain deuna izan zitun-ta.

Luřeko ondasun eta izen ospatsua arřen, Yainkoaren gauzetan bere bizia igaro naiago izanik, lekaide-txe baten sarřu zan. Guziak bere bizitza deuna ta bere yakintasuna ezaguturik, ao batez, Sebiřa'ko gotzaintzat aukeratu zuten. Aldi aretan erege, Leobijildo kristauen etsai gogorř eta agiztoa zan. Aunen seme Ermenekildo kristau egin zanean, bere aita ankerak, al izan zuan guda gogorřena egin zion, eta augatik, bere menpekoak bi aldetan zatitu ziran, batzuk kristau ziranak, bere semearen alde, eta kristauen etsayak Leobikildo-ren alde. Ermenekildo deuna bere aitaren atzaparřetan erori zanean, espetxean sarř-

turik, bere aitaren aginduz Yainkoa'ren siñismenaren alde bere bizia eman zuan. Gero érege gaiztoak go-tzain katolikoak, beren tokietatik bota eta atzerira bidali zitun, eta guzien aurérik Leandro deuna. One-tan Ermenekildo deuna'ren bitartez Yainkoa'k mirari-ta alatz asko egin zituan, eta auek ikusirik Leobikil-do'ren biotza biguntzen asi zan, eta bere seme Éreka-redo'ri Leandro eta Pulkentzi deuna'k beren tokietara ekartzeko, ta bere aitatzat bezela eukitzeko agindu zion. Leandro deuna bere tokira etoñirik, bere lenengo lana, Érekaredo kristua egitea izan zan, eta gero éregeak berak Gotzain-Batzañ bat biltzea nai izan zuan, eta Toledo'n batu zan batzañ au Leandro deunak aurkeztu zuan, Yainkoa'k España'ri egin zion ontarte aundia azaldurik. Bere eskañaren bitartez éregea ta ériko asko ta asko kristau egin ziran-ta.

Yainkoa'ren aldez ainbeste lan egiñik, Bere-gana yoan zan, bere neke, atsekabe tan lan guzien saria arñzera larogei urte zitularik.

Leandro'ren iltzeaz éri guziak eta batez ere ére-geak min aundia izan zuten; eta España-ko éregea Yainkoa-rentzat irabazi zualako, guziak España'ko bidalien artean aundienetakotzat daukate.

## OTSAÏLA-REN 28

### Éroman deuna, lekaipurua (abad)

Éroman deuna Boñgoña'ko erkikoa zan, eta Yain-ko-yakintasunean, Sabin lekaideakin ikasita gero ya-kintzan auferatu zanean; luñeko gauz guziak utzirik lekarora yoan zan, bere bizia Yainkoa'ren gauzetan bakañik igarotzeko. Lekaroko baso abañtsu baten makal aundi bat arkitu zuan, eta bere abañ-pean bizi-tokia egin zezakela ikusirik, bertan gelditu zan. Makal ondoan ituñi bat ere bai zuan, eta ituñiko urak eta landereen zustraiak yateko lain ematen zioten.

Toki aretan, bada, gizonen baño aigeruen antz geyago zuan bizitza egiñaz egunak eta urteak igaro-tzen zituan, eta bertara bere anaia, Yainkoa-ren goi-argiz bera ikustera yoan zitzayon. Baña ikustera yoan ez ezik, berakin, berak egiten zuan bezelako bizikera egin nairik bere ondoan gelditu zan; eta biñaldeko biztanleak ere, ordutik, bera ikustera yoaten asi, ta asko ta asko, berari bere bizikeran yañaitzen zioten. Éroman deuna-k, bere antzeko bizikera egin nai zu-tenak ainbeste zirala ikusirik, lekaidetxe batzuk egin zitun, eta gizonentzat bakañik ez, emakume askok

ere Yainkoa'ren gauzetan beren bizia igaro nairik, berentzat ere lekaimetxeak ere yaso zituan-ta.

Yauna'k bere otseña benetan maita zuan, eta zion maitasuna eñari mirari batzuz agertu zion. Bein baten, bere lekaideak ikustera yoanik, etxeratu baño lenago gauak bidean arapatu eta beste tokirik ez zuala usterdunak (leprosoak) zeuden etxe baten gelditu zan. Sañtu zan bada, usterdunak eratu baño lenago beren oñak garbitu zitun, eta gero beren erdian oeratu zan. Onetan usterdunak lotan zeudelarik, bera otoi egiten zegon, eta beren alboan zeuden bi usterdunei ikuturik sendatu zitun. Alboko usterdunak esnaturik, beren buruak gaitzik gabe zeudela ikusi zituztenean, beren lagunei pozen pozez deitu, ta Eróman deuna'ri osasuna eskatzeko esaten zien; baño guziak esnatu ziranean bein ere gaitzik izan ez ba-zuten bezela beren buruak ikusi zituzten.

Eróman deuna-k bere bizi guzia Yainkoa'ri aintza (gloria) ematen eta bere ta bestien gogoaren alde lan egiñaz igaro zituan. Eta Yauna'k bere bizitza onaren saritzat, Bera ikustea eman zion, irurogei urte zitularik Bere ondora eramanez.

## EPALA 1

### Erósendo deuna, gotzain eta autorle (977)

Portugal'go bakaldunaren senide izan zan. Bere ama lldaura zoruntsuak, onoiemen eta Yaungoikoaren bildur osasungarían asteko alegin andiak egin zituan eta ez alpeñik. Zortzi urtedun, Duma'ko gotzaiñaren ardurapean ipiñi eben, eta deuntasun eta yakiturian egin zituan auferapenak andiak izan ziran.

Bera irakasle andia il zanean, yaupari ta eñiak ago batez, ondiño amatzorzi bakañik eukozala, Duma'ko gotzain autu eben. Arazo aztun a ez leporatzeko berak aitatzen eban gaztetasuna, ontasun eta zurfasun ari-gañiaz garaitu eban.

Egunoro itzaldiak egiten zituan, txiroentzat aizkide ta aita on bat izan zan, ondasun ugariak euren beañizanetan laguntzeko eralgiten ebazalarik.

Bere yaumaitasunaz goterñkiko oiturak onera biurtu zituan. Santxo bakaldunaren eskariz Konpostela'ko goterkiaren ardurea beragandu eban; bertan on ugari egiñik.

Santxo erbestean egoan bitartean Galizi ta Portugal'en mairuak saftu zirala-estutasunean gudaroste indartsu bat bildu eta arabetaok garaitu zituan.

Bakaftasun zalea zan, eta Zelanoba'ko beneditaren lekaretxea berak egin eban, eta bere etsai baten zemakuntzak zirala-ta, lekaretxe onetara yoateko asmoa artu eban. Bertoko lenengo lekaipuru Frankila il zanean, Erösenda deuna arazo aztun aretarako autu eban, eta au ikusirik bere menpean biziteko pozez, gotzain eta andiki asko eldu yakozan.

Yaunak alatzak egiteko eskubide andia emon eutson. Azkenez eriotzako ordua eldu yakola ikusirik, lekaideak noren ardurapen itxiten zituan itandu eutsoen. Berak negarez ureratu yakozan lekaideari auxe erantzun eutsen: Ene semeok; Yauna'gan itxaron eikezue; beragan zeuen uste osoa ipiñi; «berak umezurtz ez zaitue legako-ta. Yosu-Kisto'k bere odolaz erosiak zare; eta bereak toki onetan bildu zaitue, bere ardurapean lagatzen zaituet ba.» Itz oneik esanaz, gotzonez inguraturik bere azken arnasa emon eban, irurogei ta amar urtedun zala.

## EPALA 2

### Simplizio deuna doipuru (483)

Simplizio deuna gaur Tiboli deritxon Eröma'ko baserian yayo zan. Ilari deuren ondoren 467'n. urtean Doipuru autua izan zan. Aldi au Eleizarentzat ekaitzez inguratutakoa izan zan. Ziñausleak alde batetik eta gudari basatiak bestetik estutzen eban. Odoakro, Italiay yabetutako agintaria, ariota'a zan. Bandalota'ak Aprika'n nagosi ziran, gota'ak España'n yaube, eta Galia ondiño ziñesgekeri ilunpean egoan. Sorkaldeko bakaldun, Zenon eta Basiliko eutikita' ziñausleen alde egozan, eta ango patriarkaren andigureak ziñeusleak baño Eleizari kalte geyago egiten eutsen.

Gaitz gustiok baztertu, eta oke'ak zuzendu ta ziñausleak onbideratzeko Simplizio deunak egin zituan alegiñak andiak izan ziran. Basiliko'ri idaztiak zuzendu eutsozan, Doibatza'ren kaltez emon zituan legeak kentzeko eskatzen. Eröman Eleiz batza'ra bildu eban eta berton Eutikes, Dioskoro alexandrita'a eta Timoteo Eduro doibazkatu zituan. Akariori, Konstantipoli'ko gotzaintza Antioki eta Alexandria'koen gañetik ipiñi gura ebalako, gogo' egin eutson.

Bere ardurea eleiza gustietara eltzen zan, katolikotari onuz eta sorozkia, atsekabeetan poztuten zituan, eta txiroen aita zalako eleiz-ogasunak lau ataletan banatzeko agindu eban. Lenengo atala gotzaintzat; bigarrena yauparientzat; irugarrena elizarentzat eta laugarrena txiroentzat.

Azkenez amabi urtetan Doibatza artzainik onenak lez zaindu ondoren, neke ta lozez aulduta, bere gogo duntsua betiko saria artzeko Yaunaren besoatara yoan zan eriotza deun baten bidez.

## EPALA 3

### Emeteri ta Zeledoni deunak (257 ala 298)

Emeteri ta Zeledoni gudalburu baten semeak izan ziran. Gudari bulardeitsuak biak, Erómataren ikurri-pean luzaro ta adoretzu yokatu eben. Ziñesgeak izan ziran baña, goi-argiz euren itsukeria ta bakaldunaren gaiztakeria oarturik, bertan bera laga ta kistar egin ziran. Kaisar'en ikurriñak itxi ta Kisto'ren ikurri edo banderapean yari ziran, guzuriezko yaungoikoak laga ta egizko bakaña autortu eben. Bakalduna kistaren etsai amotua zan eta, berak gaiztakeritzat eukon egite goñagari au zigortzeko, estuntza aztunez bete ta espetxe ikaragari baten sartu zituan. An zigor ugariz batzuetan, eta beste batzuetan leusinkeriz eta eskintzaz, bide zuzenetik aldendu eragiten alegindu ziran. Alpeñik baña, Yaungoikoak adoretuta oñaze gustiak pozik igaroten zituezan eta.

Orduan agintariak bera azaltzen lotsatuten zan zigorkeaz bide onetik aldendu eragiten alegindu zan añen, ez eban ezer lortu.

Gudari adoretzu onei burua makuñtu eragiteko itxaropena galdurik agintariak bizia kentzeko agindu eban.

Erailteko fokira eroan zituezan, batak bere erestuna ta besteak ago-zapia gorantz yaurti zituezan, eta ureak dis-diska eta zapiak argitasunez beterik, zerurantz igon eben. Eraileak au ikusi ebenean amonuz beterik buruak mostu eutsoezan. Batzuk diñoe Leon'en erail ebezala, baña dirudienez Kalaorá'n euren odola Kisto'ren ziñeste alde zemon eben. Batzuk diñoe 257'en urtean gertatu zala; beste batzuk osterá 298'an, eztakigu gauza garbirik; baña bai Epala'ren iruan 3'en; ziñopa burestuna irabazi ebela.

Euren gorpu deunak Zidakos eritxon eferkatsoaren onduan obiratu zituezan eta gero, gotzain-txadonara aldatuak izan ziran.

## EPALA 4

### Kasimir deuna bakaldungaya (1414)

Kasimir deuna Polonia'ko III'gn. Kasimir eta Oseferita' Elisabete'ren seme izan zan. Yaungoikoaren bildur eta maitasunean asi eban, eta yauregui edereko andiki aukera gustiak laga-ta, lufean lo egiten eban, eta bere gorputza laztasunez nekatu Yosú-Kisto'ri yaraitzearen. Otoi luze ta bero-beroak egiten zituan. Saritan gabaz ixilean yagi ta ortozik otoi egiteko eleiz afarietara yoaten zan antxe gaba igaroaz. Miren Ama Garbiaren zale-zale ta kutuna izan zan, eta bere aintzaz laterazko olerki samurak egin zituan.

Zuzenzale zintzoa izan zala yasokun onetan ikusi geinke. Ungaritarak euren bakaldunaz ondo ez eben artzen, eta bere orde z Kasimir amairu urtedun zala bakalduntzat artu gura izan eben. Kasimir'ek gogorik ez eukon baña aitaran guraria betetearen, bere alde zko gudarien buru yari zan. Ungari'ko mugak igarotean yakin eban Matai bakalduna gudaroste andi bategaz polonitaran aurka etorela, eta IV'n. Sixto Doipurua bere alde z egoala, eta III'n. Kasimir'eri ordelariak bialdu be bai bere asmoak lagatzeko. Au

yakin ebanean, poz pozik bere asmoak okeñak zirala-  
ta, araso ori laga eban, eta Krakobia ondoan lazta-  
sunak egiten iru ñla bete igaro zituan. Andik auñera  
bere bizitzako amabi urte enparauak onoimenak sen-  
doizen igaro zituan.

Txiro zale, atsekabetuen poz, umezurtz eta ar-  
gunen laguntzale ta nekezarien bila beti ibiltzen zalako  
gustiak bakaldun egin gura izan eben, anai andiagoa  
euki arñen be, baña bere bayetza ez eben lortu, naiz ta  
ofetarako bere aitak eskontza ona eskiñi, guraro eban  
bere bizia galdu garbitasuna baño.

Bizitzako azkenengo eguna goi-argiz ezagutu eban  
eta ogetalau urtedun zala Vilna'n 1483'ko Epala'ko  
4'n. il zan, betiko saria arñzeko. Alatz ugariak egin  
zituan Yaunak bere bitarñtez eta deuntasun ospea  
berealaxe zabaldu zan.

## EPALA 5

### Nikola Fakoor deuna (1583)

Nikolas deuna Balentzitaña izan zan, guraso apal  
eta onen seme. Txikitatik gaxoakanako maitasun an-  
dia agertu eban. Amañ urte bakañik eukozala Elazañ  
deunaren erietxearen auñean usteridun emakume bat  
ikusi eban, eta yoanaz bere zaurietan mun egin eu-  
tson. Gauza ain iguingañiari zelan mun-egin eutson  
itandu eutson lagun batek, eta Nikola'k erantzun  
eutson, berak zauri iguingañiari ez eutsola mun-egin,  
Yosu-Kisto'ren zaurieri baño. Asiaz-asiaz ikastun egi-  
ten yoyan, eta oleñki edeñak egiten ikasi be bai. Oñez  
gañera erelari, abeslari ta margolari ona izan zan.

Bere aita eskontza asmoetan ebiñela Yaunaren  
deya somau eban eta Yosu'ren Miren deuna deritxon  
pantzezkatañ lekaretxean sañtu zan.

Bere anayak ontasun ispiñufzat arñtzen eben, Yau-  
nak itz-egiteko gaitasun andia emon eutson, eta mai-  
tasunez sañi konorgetuta geratzen zan luñeri be ikutu  
barik eta bere senera etofñen zanean gayari ekiten  
eutson. Oro bat gertatzen yakon yaupaldian, Yaunañ-  
tza ta autortegian arpegia arantz eta aragiak sutautu  
lez gelditzen yakozan.

Elazar deunaren lekaretxean, usteridunak ikeritu; zauriak garbitu eta oyak be egiten zituan maitasunez, zaurietan mun-egiten eutselarik.

Onantxe bizitza gustia igaro eban eta azkenez arigarizko onoiemenen ikasbide ederak emonaz, Yosu' ren izen gozoa agoan ebala, irurogei ta iru urtedun il zan. Bere gorpu deuna, bigun-bigun eta usain gozoa emoitzen ebala bederatzi egunean egon zan. Eta egiten zituan alatz arigariak ikusirik VI'n. Pio doipuruak zoriontsu arteko izendegian ipiñi eban.

## EPALA 6

### Olegari deuna, Gotzaña (1136)

Olegari deuna Barzelona'ko seme ta gotzain eta Taragona'ko gongotzain izan zan Gurasoak andiki artekoak ziran eta amatzat Yaunak Gilia emakume onbidetsua emon eutson. Txikitatik asiera ona aritu eban eta amari urteko mutikoa zala, Barzelona'ko kanonigo artean ikasle aritu eben.

Yaupari egin zanean izlari bikain lez galendu zan, trebetasun eta yakituri andia agertzen ebalarik. Baña danari laga-ta, Austin'dari kanonigo araudun Adrian deunaren lekaretxean sartu zan. Nagosi aukeratu eben eta araso aztun au ez leporatzearen Probentza'ko Rupo deunaren lekaretxera iges egin eban; baña bere apaltasuna Yaunaren guraripean ipiñi bearean aurkitu zan. Yaunak Eleizan argi egiteko aukeratu eban eta Probentza'n be nagosi aukeratu eben. Gero ago batez Barzelona'ko gotzain eta azkenez Doipuruaren bere-rizko agindua Taragona'ko gongotzaintza aritu eban. Il'n Kalisto'k bildu eban Lateran'go Eleiz Batzarrera yoa zan, eta Doipuruak Espana'ko *a latere* deritxon ordelaritza emon eutson. Klermon'teko Eleiz-Batza-



rean Anakelda Doipuru izena doibazkatuta egoala iragañi eban, eta Berenger eta Jenoba'n artean bakeak egin zituan.

Baita Aragon'go Erámir eta gastelako Alpontso bakaldunak aizkidetu zituan, eta oñez gañera, eleiza asko bañiztau; lekaretxeak iragi, auziak ebatsi, eta beti deun onbidetsu eta bakearen geznari bizitza gus-tian izan zan.

Egun baten konorgetuta otoi egiten egoala, bere azken ordua yakiteko eskaña Yaunari eskatu eutson. Eta lortu be bai. Eta ordu au ureratu yakonean, itzaldi bat egiten egoala, bere azkenengo itzaldia izango zala iragañi eban, eta alantxe gertatu zan.

Maitasun eta eraskun andiz eleizakoak arñu, eta Yosu ta Miren Amari itz oneik argiro esñn eutsezan: «Zeuen eskuetan neure gogoa ipinten dot» eta, irurogeta amasei urtedun betiko zerura igon eban. XI'n. Inozentzi'k deuni iragañi eban. Bere gorpu deunak, Barzelona'ko gotzain eleizan ondiño osorik dirau.

## EPALA 7

### Akino'tar Toma deuna (1274)



Akino'tar Toma, yakitunik aundie-netarikoa, Eleizaren aintza ta argia da. Akino'tar kondeen seme argi au, Napoles'en yayo zan.

Aurzarotik Ama Birgiña-ganako maitasun aundia agertu eban. Bein «Aguñ Miren» idatzita egoan ingitxo bat aurkitu eban, eta iñudeak iñondik ezin izan eutson kendu; eta azkenez bere amak kendu eutsonean, negarari emen autson beragandu arte, eta eskuetan arñu ebanean iruntsi egin eban. Bost urtedun zala Kasino'ko beneditarñen lekaretxera bialdu eben. Andik lenengo ikasketak egiteko Napoles'era bialdu eben, ondiño amar urte eukozala'ta amaulaugaz Domeka deunaren soñekoa yantzi eban.

Burubide ori kentzeko bere ama ta neba-arebak egiñalak egiten ebezala ikusirik, Paris'era

bialdu eben, baña bidean arapau ta etxeakoak Roka-seka'ko gazteluan sañtu eben.

Lekaidetzarako asmoak burutik kendu eragitearen neke asko igaro eragin eutsoezan, eta oñez gañera emakume gaizto baten bitartez txarbidertzen alegindu be bai. Baña, gaste garbizale onek itzak ezer-tarako etzirala ikusirik, ilinti bategaz bere auretik emakumea kendu eban. Garaitz onen ostean otoi egiten ziarduala, aingeruk bere geña garbitasun-lokariz inguratu eutsoela ames-egin eban. Areskerotik lizun-keri zirikadarik geyago ez eban somau. Yaunak bere zintzotasuna eskar onegan saritu eban.

Baña etsayak bañiro be ekin eutson. Bere asmo deunak burutik kendu eragiteko arebak etoñi yakozan; baña berak biurñu zituan; ludi gauzetzaz gitxiago arduratu eta gogo-arazoetan geyago arduratzeko erabagiaz bialdu zituan ba. Azkenez, gazteluko leyo batetik iges egin eta Napoles'rea biurñu zan. Andik Erroma'ra ta gero Paris'era domakataren buru zanak eroan eban, eta toki onetan Alberta Nagosia eritxon yakitun andia bere irakasletzat emon eutson.

*Pilosopi* ta *Teologian* galendu zan, eta ogetabost urtegaz, irakaslea ospetsu lez gustien txaloak irabazi zituan.

Ondiño ikasle zala, beti ixilik ibilten zaleko, gaitzizenez *idi mutua* deitzen eutsoen. Alberto irakasleak au yakiñik bere ikaskideai esan eutsen: «Zer dalata *idi mutua* deitzen dautsozue? Ba neuk diñotzuet *idi*

onen oruak mundu gustian entzungo dirala». Eta alantxe gertatu zan. Bere ospea bereala ludi gustian zabaldu zan. Bere itzaldi ta idazti sakon ederakaz gustiak arituta itxi zituan. Ikasten asi auretik eta ezpayetan beti otoi egiten eban. Bein otoi sutsua egiten ziarduala, gurutza baten aurean Yauna'k Kurutzatik itandu eutson: «Toma, Nitzaz ederño idatzi dozu. Saritzat zer nai zenduke?» Eta Toma deunak erantzun eutson: «Nik, Zeu Yauna, besterik saririk ez».

Yaungoiko zale ta yakitun andia zanez itz gitxitan gauza asko esaten ekian. Bein bere areba batek, zelan salbau zeitekean itandu eutson eta berak erantzun eban: *Nai izanda*; Beste bein, bizitza onetan zer geyen gura izan bear zan itandurik erantzun eban: *Ondo iltea*.

Apal-apala izan zan. IV'n. Kelemente'k Napoles'ko gongotzaintza eskiñi eutson, eta apaltasunez ez eban gura izan.

Azkenez X'n. Gergori'n aginduz, Lyon'go Eleiz-Batzafera yoyala, Fossa Noba'ko lekañetxean ta bertan 50 urtedun 1274'n il zan.

Idazti sakon, ederak eta ugari idatzi zituan, baña gustien gain bere *Summa Theologica*'k argi egiten dau. Saspi *gizaldi igaro diran aren, idazti* ori gairorñetzazko irakasle ta ikasle gustien artean Eleizaren aginduz dabil.

XIII'n. Lon'ek Ikastola Katolikotar gustien Zaindari autu eban.

## EPALA 8

### Juan de Dios deuna, Irasle (1550)

Portugal'eko Montemayor deritxon urian yayo zan. Txikia zala yaupari bateri ya'aitzearen etxetik iges egin eban. Gero artzain eta gudari egin zan, eta gudarizatik yaurtin ebelako bañiro artzaintzari ekin eutson.

Ludiko gauzakaz azpertuta Yaunagana biuritu zan, eta geideari on egiteko eukon gurariaz idazti ta idantzezki onak saltzen ibiltzari emon eutson. Umeai kistañ ikastia irakatzu ta obendioak oneraturten urte batzuk igaro zitualarik, egun baten ume eder bat bidan aurkitu eban, oso edera, baña soñeko zar eta uratuakaz eta ortozik. Erukituta bere sorbaldan artu eban. Lenegotan ariña eretxi eutson, baña gero bere bere aztuntasunak gustiz nekatu eban, eta ituri baten ondoan zerbait atsedentzeko lurrean itxi eban. Ure edaten yoyala, umeak auxe esan autson: Yon, zure kurutzea Granada izango da. Au esanaz Granada igali bat kurutza bat erdian ebala erakutsi eutson eta eskatua zan. Umearen esanari erantzuteko Granada'ra yon zan eta idaztitegi txiki bat ipiñi eban. Egun ba-

ten Abila zorundunaren itzaldiak entzutera yon zalarik, aren itzaldi sutsuakaz obenaren bildur aundi bat biotz bareneraño saftu yakon eta eri gustien aurean damutasunez beterik Yaun goikoari parka eske asi zan. Eriak zorotzat artu eban ta ixekaz eta arika erabili ondoren, apaldasunez egin ebala adirazorik, gexoak zaintzen asteko agindu eutson. Aldi gitxi baru «Gexo-zaiñen» Gopatz bari irasi eban eta ariagarizko gauzak gexo erukarien alde egin zituan. Egun baten Granada'ko eri-etxeak suak artu eban. Inor baru sartzen ez zan asartu sutan egoan ba. Yon bakañ bakañik baru sartu eta banan-banan gexo gustiak atara arte ordu erdian sutan ibili zan, suak ezer be egin barik.

Azkenez bizitza deun baten ondoren, 55 urtedun zala betiko zorionera saria artzeko yonzan, bere gorpua belaunbiko otoi egiteko eran geratzen zalarik. XII'gn Lon'ek getxo-etxe gustien zaindari autu eban.

## EPALA 9

### Pantzezke deuna, alarguna (1440)

Guraso onomentsuen alaba deunau Eromataña izan zan. Txikitatik garbitasun eta menpetasunean galendu zan. Amabi urtendun, bere bizitza Yaungoikoari osoan eskintzea aritu eban, baña bere gurasoen esana betetearen mutil aberats bategaz eskontzea lortu eban. Amasaspi urtegaz ume bien ama zan, eta bere gizonaren baipenas, aberats usaindun yantzi ta apainkiak kendu zituzan. Eta aurrerantzean ardura gustia, apaltasun, maitasun eta laztasun arazoetan ipiñi eban.

Otoi egiten ziarduala, gizonaren dei bat naiko izaten zan, bertan bere bereala lagatzeko, eta menpetasun onen saritzat, bein baten irakurten ziarduan idaztarian irakurtzeke itxi eban oña urezko izkiz beterik aurkitu eban.

Bere bearizanetan aldeztu ta zaintzeko, bederatzi urteko mutiko baten irudiz, Yaunak gotzon bat emon eufson.

Gora bera batzuk zirala bide, bere gizona erbestatu ta ondasun gustiak kendu eutsoezanean, eroapen

andiz atsekabe au aritu eban, eta biuritu zanaen, beneditaren lekaretxe bat iragi eban; eta senar-emazteok anai lez biziteko erabagia aritu eban. Alargun gelditu zanean, eurak iragitateko lekaimetxean Pantzezke deuna sartu zan eta laster bere onomenak, nagotsitzara yaso eban.

María Ama guztiz Garbia saritan Ume Yosu besartean ebala agertu yakon; yanari uriak saritan alatzez ugaritzen zituan. Bein baten lekaime-arebak euen egaria neguaren erdian zugatz baten bildutako matsmordakaz kentzea lortu eban, eta inoz eurite andiaz agirian otoi egiten egonaren, ezer be busfi barik etxeratzen zan. Gabon egun baten Miren Ama agertuta. Ume Yosu bere eskuetan ipiñi eufson.

Gustiak maite eban: lastasun eta otoya, ta batez be Yosu Ofenduaren eufean egitean pozik andiena izaten eban.

Olantxe bizitza deun bat egin ondoren, 56 urtedun zala, 1440'n, urtean betiko saria irabatezko eriotzeak ateak idigi eufsozan.

Bere gorputik usain gozo-gozoak urtetan eban eta Yaungoikoak deun andia izan zala agertu eban, bere bitartez alatz ugari-ugariak egiñaz.

## EPALA 10

### Meliton eta Sebaste'ko ziñopa lagunak (320)

Kapadozia'ko agintariak 319'n urtean kista'ren kaltezko yasa'pen bildu'garia iraga'ri eben. Be'rogei gudari kista' zintzoak, agindua au aintzat ez eben ar'itu gura izan, eta yaur'leri anke' gaiztoak euren kemena azpiratzeko ixoztutako osin batera eroan zituan. Bilos-tu ta bertara yaurkitekoko agindu eban, gabazko otz izuga'riagaz euren gogoak be otzituko ziralakoan. Osin ondoan ur beroa ipinteko agindu eban, otzari utsal ezinda kista' ziñestea ukatzeko gertatzen zira-mentzat.

Gazteok Kisto'n alde z edozer yasanduteko gertu egozan eta, kemen andiz uretan sa'rtu ziran, Yaunari azkenerarteko iraunpena emoteko eskari sutua egin ondoren.

Be'rogeitik batek uts egin eban. Oñaze ikaraga'riari utsal eziñik, kista' ziñestea lagatzeko gertu egoala adirazi eban, eta zaindaria berealaxe atara ta alboko ur epeletan sa'rtu eben, baña eruka'ria bereala il zan.

Gaberdi inguruan argitasun andi bat euren gain agertu zan, eta Yaunak bialdutako gotzon faldea ager-

tu zan, ogeta emeretziri ziñopa burestunak ipinteko. Mirari onek gudari bateri biotzean ikutu utsal, eta uraturik berak be kista' izan gura ebala danen aurean esan eban. Agintariak zigo'rtzeko besteak egozan osinean sa'rtu eben, eta goxean uretatik atara eben, eta gero maki'la anak apu'rtu eragiteko agindu be bai, beste gudariari lez, il artera'ño. Gero sutara yaurtitekoko agindu ebenean Meliton eritxon gazte sendo bat ondi'ño bizirik egoala ikusirik, bertan egaon amak eskuetan ar'itu eban, eta a'ren eskatu be bai, adore andiz sutan Kisto'ren alde z biza emoteko, baña esku artean il yakola ikusi ebanean, bere lagunen gorpuak egozan pi'loan ipi'ni eban, sutara yaurtitekoko asmoa eukela yakin a'ren be. Gustiak ere ebenezanean, agintari zitalak gorpu deunen autsak be aizetuteko agindu eban, lo'rtatik be geratu ez zedin, onda'ak ibai batera yaurtiaz, baña kista' alegin andiz eurekanatzea lortu eben, eleizetan banantzeko, eta alantxe egin eben, maitasun andiz kista' adoretuen gor'puzkin deunak zainduten ebezalarik.

## EPALA 11

### Eulogi deuna yauparia (859)

Yaupari ta ziñopa ospetsu au kordobatará izan zan. Uri au mairuen menpean egodarik, bakaldunak kistañen kaltez lege gogor bat emon eban, ankerkeri ta amoru biziáz al ba'eban kistañ izena be bazteritzeko asmoaz.

Ekaitz aldi onetan Eulogi deuna dis-dis egin eban argi izan zan. Bere ardura gustia argalari sendotasuna; yausita egozanai yaikiteko indara, eta yauspidean egozanari ez yausteko adorea emoten izan zan.

Bere egintza eder oneik zirala-ta mairuak amoru bizia artu eutsoen, eta erail gura izan eben. Baña batez be Leokrizi eritxon gaste bat guraso ziñesgeen alabea, onbideratu ta zaindu ebalako salatua izan zan, eta epaikariegana eroan eben.

Eulogi deunak epaikariari erantzun eutson, berak orétan gogoak gaizkatzeko eukon beařkuna baño ez ebala bete, eta ořez gañera, maomatañen irakaskizun galgañiak gořotatzen zituala adirazi eutson.

Orduan epaikariak burua mostutefo agindu eban, eta ilten eroyela, Maoma'ren kaltez itz egiten ziar-

duala ikusirik, betondoko bat emon eutsonean, berak beste alderdiak eskiñi eutson.

Izentaukako tokira eldu zanean, belaubiko yañi; gurutzearen ezaugafia egin, eta bere burua ezpataren azpian makurru eban, bere onoinena saritzat betiko zori ona aritzeko.

Lau egun baru Leokrizi deunari, eriotz bera emon eutson.

Yaunak, Eulogi deunaren ontasuna, alatz bidez ziñesgeen aurean agertu eben. Uréngo egunean kistañak bere gorputz deuna eskuratzea lořtu eben, eta 883'n urterarte Zoilo deunaren eleizan obiratuta egon zan, Leokrizi deunaren gorpuzkiñakaz batean. Urte onetan Obiedo'ra aldatu zituezan.

Ikastun andia eta idazle trebea izan zan bere idazti sutsuak argiro erakusten dabenez.

## EPALA 12

### Gergori deuna doipurua (604)



GERGORI deuna, ekaitzaren eta tximistaren erdian zutik dagon torea-ren antzekoa da. Berberau egin eban VI'n gizaldian, deun andi onek Eleizar kaltez yaiki ziran ekaitz bildurgarrien erdian. Doipuru au benetangurena izan zan.

Yayotzez eromatarā; andiki yatorikoa, ta bertako yaurlari izan zan. Baña bere buruaren yabe egin zanean, ludiko andikeri gustiak bertan bera laga ta berak iragitako lekarixe baten sartu zan. Pelagi II'ak bere gaitasuna ikusirik kardenal egin eta Konstantinopoli'ra bere ordelari bialdu eban. Aldi atan leorke ta zala ta soñtu zan izuri baten Pelagi il zanean, gustiak ao batez Gergori Doipurutzarako autu eban. Baña berak au yakin ebanean, arazo

aztun ori apaltasunez nai ez ebelako, salerosle yantziaz iges egin eban, eta leizetan eskutauta egon zan a'en, azkenez Yaungoikoaren gurariari burua makur-tu bearean aurkitu zan.

Amairu urte ta erdian Doipuru izan zan eta aldi onetan egin ebazan lanak ez da erez ezaetzen. Oitura txarak zuzendu; eleiz-abestiak batu; apirka ta Espana'ko ziñausleak sustarkatu, eri-etxeak iragi; idazti bikañak idatzi; ori gustiori bariz aldi luzeetan oyan egonda, eta beti gexotia izanda.

Txiroi bere maira deituten eutsen; eta Erōma ta inguruetako txiroan izenak idazti baten ipiñita eukiten zituan. Egun baten, txiro bat gosez il zala yakin enalako, artu eban damuaz, bere burua zigortzearen egun batzuetan mesa emon barik egon zan.

Bere apaltasuna arigarā izan zan. Lenengo aldiz, Doipuru gurgarā au asi zan bere idazkien burue ipinten: «Gergori; Yaungoikoaren otseñen otsein», eta oitura eder eta begiko onek gaur egunean be bai'dirau, Doipuruak ba, itz oreikaz, euren idazkiai asiera emoten deutse.

Azkenez bizitza arigarā baten ondoñen, Eleizari gorakada andia eraginda, bere neuribako lanen saria artzeko, betiko bizitza zorionekora yoan zan.

## EPALA 13

### Euprasi deuna neskutsa (450)

Euprasi deuna Konstantinopoli'n yayo zan. Antigono aldunaren alabea izan zan; aita il zanean emaztatzat andiki bateri eskiñi eutsoen. Baña andiki oreak Euprasi eskontz-adiñera eltzeari luze eretxirik, bere amagaz eskondu gura izan eban, eta orduan amak bere alabeagaz Egito'ra iges agin eban.

Tebaida'ko padañak (1) ikeritu zituan, eta azkenez 120 emakume onbidetsu egotzan toki en gelditu zan. Euprasi'k be sasaki urtedun zala bertan geldutu gura izan eban, baña nagosiak betiko izan ezin aritu zeikiala adiazit eutsoen. Orduan Euprasi'k kurutzat bat aritu, mun egin eta itz oneik esan zituan: Ni betiko eskeintzaz, toki onetako lekaiame Yosukisto'ri eskintzen nayako». Erabagi sendoz itzok esan zituan eta baita zintzoro bete be.

Egunean lein lekaiameakaz yaten eban, eta bere yanaria barazki ta ogia izaten zan. Zurdatza beti erabilten eban; etxea garbitu; urak ekañi eta zeregiñik apalena atsegina izaten yakozan, eta menpetasuna-

(1) Ermitaño'ak.

ren, ari aztunak toki batetik bestera eroaten ekiten eutson.

Bere onoienez minduta etsayak guda gogora egin eutson, gogo ta gorputz zirikatzin ebalarik, bat-suetan bizia kentzeko asmoz be bai: Bein osinetik ura ataraten ebilela bultz eginda barura yaurti eban, eta osinean buruz bera egon zan lekaiame lagunak atara eban arteraño. Orduan berak iribañez esan eutsen; Yosukisto'ri eskeñak eñok garaitako». Beste bein sabai batetik bera bota eban, eta lagunak il zala uste izan eban azen ezertako min barik yaiki zan. Egun baten eskatzean egoala, irakiten egoan lapiko bat yaurti eutson, baña Euprasi'k ur otza izan balitz baño min andiagorik ez eban aritu.

Elbañi gor eta itzgea zan bat ekañi eutsoen, eta kurutzearin egiñaz bakañik osatu eban.

Azkenez, bizitza onbide arigañiz beteriko baten ondoren 30 urtedun, bere gogo dontsua Yaunaren eskuetan ipiñi eban.



## EPALA 14

### Matilde deuna (967)



Teodoriko bakaldunaren alabea ta Enrike I'ren emazte izan zan. Bakaldunaren yauregian, lekaimetxe baten bezin onbidetsu azi zan. Eresi deunak buruz ikasi ta egunoro belaunbiko esaten zituan.

Eskontzeko adiñera eldu zanean, Endika bakalduna senaítzat aítu eban, eta gastetan gotzon bat izan ba'zan, eskontzan be, eskonduen eredu bikaña izan zan.

Yauregiko baster baten bizi izaten zan, eta esaten ziran mesa gustiak egunoro entzun ondoren, geidearen onerako lanean egun gustia igaroten eban.

Emakume txiroentzat bere yauregi ondoan erietxe bat iragi eban, eta berak egunoro ikertuten zituan, oyak egin; gelak garbitu, eta zauriak bere esku guriaz garbitzen eutsezan.

Etzerik-etxe be, gexoak ikeítzea atsegin izaten yakon, esku zabalaz lagundarik; eta bere maitasunak, ezautzen zituan zoritxaí gustietara egoak zabalitzen zituan.

Bere aginduz, bide ta zelayetan sutxaí andiak ixiotu eragiten zituan, txiroak berotu ta bideztiak galdu ezeitezen.

Bere otseñakaz oso maitekoía zanez, irakaskizun edeñenak emoten eutsezan.

Senaía il yakonean, berak irasitako beneditaíren lekaimetxean saítu zan. Antxe otoiketari bizitza igaro eban. Ol baten gañean lo egiten eban, eta zurdatza beti soñean ebalarik, biziteko lain bakaíik yaten eban.

Ilteko gatxorian egoala, bere birloba Magunzia'ko gotzañari, beste ondasunak ez eukola'fa, il-kutxa esaltzeko oyal bat bialdu eutson berak baño lenago beaíko ebala adiraziaz. Eta alantxe gertatu zan, Magunzia'ko gotzaña uíengo egunean il zan ba.

Azkenez ilteko ordua ezagaturik, eresiak abestuteko egindu eban. Baita bere gurariz luíean etzanda ipiñi eban; eta antxe bere eskuz buruan aítsa ipiñi ta eta kurutzeari mun egiñaz Yaunaren gentzaz beterik azken arnasa emon eban.

## EPALA 15

### Yulen deun ziñopa

Aita ziñesge ta ama kistañen seme izan zan. Aza-zerbo, Zizilia'ko urian yayo zan. Bere amak kistañ arauz mendu eban, eta bildur barik bere ziñestea agertzen ebalako, Ejea'ko yaurlari gaizto ta ankeragana eroan eban.

Deun onek argiro erakusten dausku, Yaungoikoaren eskañak sendatu ta adoretu ezkeru, gizon argalaren eroapen eta kemena noraño eldu leitekezan, eta baifa be, biotz gaiztoen ankerkeria girñak itsutu ezkeru, abereena baño be andiago dala.

Agintari gaiztoak, deun onen adorea, neke gogor ez baño luzez ezezago garaituko ebala-ta, bere aurera deitu ta ezetsi ta zigor artean, bañero espetxera bialtzen eban. Eririk-erik ta gustien baregañi ta ostikopean erabilteko agindu eban, lotsariz garaituko ebalakoan. Baña Yulen len baño kementsuago biuritzen zan, eta bere kurutz bidean kistañ-ikastia zabaltzen eban goetan onura asko egiten ebalarik.

Epaikariak amoru biziz, burdin zorotzez aragiak uratu eragiteko agindu eban, eta gero zauriak burdiña

goriaz ezezko agindu be bai, baña Yulen'ek gero ta adore geyago agertzen ebala ikusirik, adore goitañ onetan Yaunaren eskua ikusi bearean, girñaz itsuturik, oñaze bañiak asmetako bere adimena zofoztuten eban. Eta bai asmau be. Suge ta iraunsugez betetako saku baten sartu eban, eta lotuta itsasora yaurtiteko agindu eban. Zigor ikaragañi au gurasoak erailten ebezenai bakañik ezartzen eutsen, eta Yulen Kisto'ren gudari zintzoak, era onetan bere bizia amaitu eban, betiko bizitzan zorioneko izateko.

Gizonak baño eruki geyagoz itxasoak bere gorpu deuna basteñera yaurti eban eta kistañak artuta eraskun andiz Antiokia'ra eroan eban.

Deun onen bitartez, Yaunak alatz andi ta ugariak egiten ebazalako, beroneganako eraskuna basteñ gustietan laster zabaldu zan, eta Kisostoma deunak diñon lez bere aldian yaraitzen eban, eta gorpu deunaren aurera gaizkinduak erakañteko oituren zabal ebilen, beste barik, etsai galgañi onen menpetik urten eta azke geratzen ziaralako.

## EPALA 16

### Madrona deuna (300)

Madrone deuna, Mazedonia'ko Tesalonika'n yayo zan. Bere gurasoak, gaste zalarik, il yakozan, eta bere osaba baten ardurapean ya'iririk, onek Er'oma'ra eroan eban.

Ango kista'arak ixilean kista' irakaskizunak irakatsi eutsoezan, eta etsayen bildurpean egozan eleizetara sa'itan yoaten zan. Eta Kurutzearen maitasunez, Kisto'ren irudia eskatzen ebalako, kurutzea eskuetan dabela margotzen dabe.

Gero Tesalonika'ra biur'itu zan eta an, kista'arak go'rotatzen zituan andra alargun baten etxean mirabe sa'itu zan. Madrone neskat'ila zintzoa, al eban gustian eleizara yoaten zala, ugazaba gaiztoak yakin eban, eta beste barik zigo'rtu ta etxean lotuta eukiten eban. Bein olantxe egoala gotzon bat agertu yakon eta loka'riak azkatu ta bapatez eleizara eroan eban. Yuda'ar emakumeak au yakin eban eta ba'iro lotu ta iru egunean zigo'rtu eban ba'ña ba'iro be gotzonak agertu ta azke ipi'ni eban.

Orduan emakume gaiztoak, zigo'rkada gogo'arak

emon eutsozan, eta bizitzea kendu artean etzan asetu. Olantxe 300'gn. urtean mirabe zintzo onek bere bizitza amaitu eban, Yosu-Kisto'ren maitasunaren neke gus'tiak pozik igaro ondoren.

Bere gorpua kista'arak ar'itu eta obiratu eben. Gizaldi batzuk geroago pantzeta'ar batzuk gorpuzki'nak, eka'ri nai izan ebezan, ba'ña izugar'izko ekaitz batek bidean ar'tuta, Barzelona ondora eroan zituezan. An eleiza bat ikusirik, ekaitzetik gaizkatzen ba'zituzan bertan itxiko ebezala eskintza egin eben, eta batatean ekaitza baretu zala ikusirik pantzeta'arok eski'nitakoa bete eben eta oraindi'ño bertan aurkitzen dira.

Deun au i'ñoren menpean bizi diranen eredutzat Eleizak ipinten dausku batez bere menpetasun eta eroapen andiaren ikasbide ede'arak emon ebazalako.

## EPALA 17

### Patirzi Deuna, Gotzaña (464?)

Eskozia'ko seme bikain au irlandaren lenengo gotzaña izan zan. Deun onen bizitza guztiz arigafia izan zan, eta beronetzaz esaten dan gustia egia izan ez aŕen beintzat egi-sola esanda be gauza arigafiak dakiguz.

Amasei urtedun zala, itxas-lapur batzuk bere aŕebakaz batera aŕtu eta Irlanda'ra eroan eben. An gizon bateri saldu ta txari-zain ipiñi eban. Urte batzuk arazo onetan igarofa, gotzon batek bera gaizkatzeko bear eban txindia non aurkituko eban esan eutson. Eta esana eginda azke gelditu zan. Baña baŕiro ta baŕiro be espetxeratua izan zan, baita gotzonak bietan azkatasuna lortuteko bideak eŕeztu eutsozan.

Orduan Parantze'ra yoan eta gogo-arazo ta goiyakintzetan astia emon eban, Auxere'ko gotzain deun Amadoe eta German'en menpean. Baña Yaunak, irlandeari kistaŕtasuna irakasteko aututa eukon eta, dei oneri erantzuteko toki atara zuzendu zan, baña ezin izan zan eldu. Geroago Senior deunak yauparitu eban

eta yaunmatasuna zabalzeko eukon suaz, beste biritan zuzendu zan aŕen, baŕiro Parantze'ra biurtu bearean aurkitu zan.

Orduan Jerman deunaren onuz, Erroma'na Kolestin I Doipuruaren oneskuna aŕtzeko yoan zan, eta bere gaitasuna ezagaturik gotzain egin eban.

Azkenez Irlanda'ra yo eban, eta bere lenengo et-saya aztikeria izan zan. Eragospen au garaiturik, bertan guritzen eben, yainkoizun ikaragaŕi baten irudia, bere esku makilaz ikutu ta beste barik auts biurtu eban. Arigafizko laztasun eta otoi biziaz, irlandar eŕia Kisto'ren artaldean saŕtzea lortu eban. Korotize eritxon bakalduntxo bat, izenaz kistaŕa zana baña izanez ez, zirudienak egin zituan ankeŕkeriak zirala bide, deun ospetsu onek kemen andia agertu eban. Menpean aŕtu zituan kistaŕak azkatzeko idazki bat bialdu eutson lapurkeriz beragandu eban, atal bat beintzat biurtzeko eskatuaz. Idazki onek erantsunik ez eban izan. Orduan deun adoretzu onek beste idazki agiri bat zabaldu eban; adirazirik Korotize ta bere gaiztakerikideak doibazkatzen zituala, eta eurakaz aŕtu-emonik gustiak kistaŕai debekatzeko.

Patirki deunaren Garbitokia deritxon tokian arigafizko alatzak egin zituan. Zamaraño ur otzetan saŕtu ta otoyak egin; lur gañean lo; gau geyana otoi egiten igaro ta ilak biztu ta gexoak sendatzeko yaunak emon eutson almen arigafiaz Irlanda onbideratu aban. Iru-reun eta irurogeta amairu eleiza iragi zituon; amairu

miña yaupari egin eta ikastola ugariak iragi ta azke-  
nez lanean arítuta, onoimenez beterik, larogei urtedun  
bere azken arnasa emon eban, Irlanda'ko beldu ta  
Zaindari guren onek.

## EPALA 18

### Yerosolym'eko Kuiril deuna Gotzaña (386)

Yerosolym'eko gotzain ospetsu au, zuzen, yakitun  
eta zuñenatarikoa izan zan. Maximo deunak 345'n yau-  
pari egin eban, eta gotzaña il zanean Kuiril deuna bere  
tokian aukeratu eben. Bere gotzaintzako lenengo al-  
dian gauz bat gelgari gertatu zan. 351'ko Oriña'ko  
l'n, Golgota mendian argizko kurutze andi bat agertu  
zan. Ordu batzuetan ikuskizun onek iraun eban, eta  
berari begira eñi gustia arítuta egon zan. Kuiril deunak  
yasokun arifgari onen bari Konstantzi bakaldunari  
idazki edeñ bidez emon eutson, bertan adiraziaz ario-  
tar ziñausleak gogof ebizela. Ziñausle galgari oneik  
kaltez ekin eutsolako yasarpen ugariak igaro bearean  
aurkitu zan. Etsai amofatuok gotzaintzatik indarez  
yaurtiteraño eldu ziran. Konstantinopoli'ko Eleiz  
Batzañ Orokoñan, gotzañak bere alde urten eben,  
eta gai onetzaz Doipuruari eta sañkaldeko gotzain  
gustiei idazki bat bialdu eutsean.

Bere ziñeste sendoa, batez be, Yuliano bakaldun  
maltzuñaren aldian agertu eban. Yuliano'k bai'ekian  
Yosu-Kisto'k Yerosolym'eko uriatzaz iragari ebana:

uria zuzitua izango zala: eleiz nagosia eratsia, Ixařel'go eria sakabanatua, eta yudařak iřnoz lateri baten etzirala bilduko.

Yuliano ziřausleak, Yosu-Kisto'ren iragařkia gu-zurřatzeko asmoz; Yerosolym'eko uria bařiztau eta eleiza bařiztatzeko lanean asi zan, eta ořetarake yudař gustiei dei egin eutsen euren gaizkakunde ařoa ureratuaz yoyala'ta. Lanetarako txindi asko bildu, ta aurera yoyazala ikusirik; Kuiril deuna estutasun andian aurkitu zan, kistařak eurak be, bere itzak uste gitxigaz ta iřiz lez ařtzen ebezelako. Bařa berak ori gora bera, ziřespen sendo ta itxaropen osoz bai ekian, Yosu-Kisto'ren itzak utsak ezin zeikeala urten eta alantxe gertutu zan. Etsayak pozik andienaz egozalarik, luř ikara baten egindako lan gustiak ezereztu zituan eta ondoren luřetik urten zan suak lanerako tresna gustiak urtu. Kisto'ren etsayak lotsatuta bertan bera lan gustiak itxi beařean aurkitu ziran. Yazokun argi au; Marzeliřo, aldi atako edeslariak, ziřesge ta bakaldunaren aizkide izan ařen argiro autortzen dau.

367'n urtean Balente bakaldunak bařiro bere gortekitik yaurti eban, eta Graziano'n aldirarte ez zan biurřu. Ta eldu zanean artaldea bananduta idoro eban, ziřausleen lan galgařiaz, eta egiřalak egin zituan bake ta batasuna artaldera ekařteko. 381'n Konstantinopoli'ko Eleiz Batzař Orokařara yoan zan, Eleizarren alde lan edeřa egin be bai.

Gaste zalarik, Kistař-ikastiatzaz idazti edeř os-

petsuak idatzi zituan, Eleiza on asko egin dabenak. Azkenengo zortzi urteak bakean, lan egiten, onura andiz igaro ondoren, deun andi au 386'ko Epařa'ko 18'n il zan.

## EPALA 19

### Yoseph deuna Ama Birjiñaren eskona



Yoseba deunaren gurentasuna Andre Mari Neskuts eta Yaungoiko Semearen Amaren eskon izatetik sortzen da. Gizakume onimentsu au, Yaungoikoaren Amaren ezkontzat eta Yosuren Aita ordekotzat Yaunak Berak autu eban. Nok ba deun aundi one gurentasuna aztertu? Nok bea' dan lez azaldu?

Doibatzaren Zaindari au Yuda-yatorikoa izan zan, eta Dabi'ren sendikoa. Yoseba deunaren aita ordetikoa Yakob izan zan, eta legezkoa Eli.

Yaungoikoaren erabagiz Miren gure Ama, emaztezat artu ebanean, gizon egin eta sendoa zan, adin egokikoa, bere arazo deuna betetako; eta abitzak diñonez, Maria'ren eskentzat, esku-makila loratu yakolako autu eben.

Goizpargileak, gizon zuzena onbidetsua deitzen dautso, bera beste deun eta onik ludian ez egoalako.

Ama Garbiagaz eskonduta, bere zaintzale ta eusle egin zan eta Yaungoiko-Seme Gizonduaren legezko Aita. Zeregin oneik egoki ta osoro bete zituan, orotarako bea' zituan eska'rez Yaunak gonburu bete eban-eta.

Yoseba deunak Yaunagandik eska' bereziak artu zituan, batez be deun askok uste dabenez, yayotza auretik deundua izatea; onean sendatua ta txarerako lerarik ez eukitea.

Bere izate gustia, bere neke ta lana, bere ardura gustia Yosu ta Maria'ren onerako izan zan. Ortze ausna'rtu geinke Yoseph zorionekoaren deuntasunak noraño igongo eban.

Bere eriotzaren ba'irik ez dakigu; noiz eta zelan il zan ez dakigu-ta, ba'ia uste izan lei, Yosuk agiriko bizona asi auretik il zala, eta Yosu ta Maria'ren esku-etan bere azken arnasa emon ebala. A bai eriotza gozoa izan zan! Oréxegaitik, Doibatzak eriotza onaren zaindari aukeratu dau.

Kisto gure Yauna il zanean, goizparkiak diñon lez, ildako asko biztu ziran, eta ezpai barik ziñestu geinke euron artean Yoseba deuna be izango zala, eta baita bere emazte Miren gustiz garbiaren antzera, gorputz ta gogo donokiratua izan zala.

## EPALA 20

### Siena'ko Anbortzi deuna (1286)

Toskana'n Siena'ko urian yayo zan. Yayotzatik baltz eta itxusia izan aŕen ugutzau ebenean, ume gustiz eder biurtu zan. Mutil ona zetoŕen eta gastetatik onerako eukon makurtasuna sendotuten alegindu zan. Batez oso biotz bigun eta erukioŕa agertzen eban. Gastetxo zala be, bere poz gustia, txiro, espetxu ta gexoai laguntzea izaten zan. Txiroak beragana yoan beaŕik ez eban izaten, bera txiroen bila yoaten zan. Egite onen bekaitzez etsayak gaste onen biotz zintzoa okertuteko alegin andiak egin zituan, gustitariko zirikaldiak bialduaz, baña bere bide zuzenelik aldatzerik ez eban yaritxi.

Amasaspi urtedun zala, urtiziti ta beste yakidi asko ikasi ondoren, gurasoen baipenaz, eurak emondako ondasunik geyenak txiroen artean bananduta gero, Siena'ko domekataren lekaretxean saŕtu zan. Urte batzuk Siena'n igarota, Paris'era Alberto Nagosia'ren ikasle bialdu eban, eta laster yakidietan egin zituan auŕerapenak bere trebetasun andia agertu eban. Paris eta Kolonia'n irakasle izateraño eldu zan, eta

Doipuruak berak Erroma'ra, deitu eutson Urtiziti edo Teologia irakasteko. Baŕiro Siena'ra biurtu zanean, eria naspilduta ebilelako, Anbortzi deuna bakeak egiteko ta bitarteko autu eban.

Doipuruak saŕitan auzirik aztunetan bere eretxia eskatzen eutson, eta bere onuak yaŕaitu be bai.

Aldi atan toki gustietan oitura onak lokatuta, nasaituta egozalako, itzaldi bidez zuzentzeko erabagia artu eban. Izlari bikaña zanez sutsu egia azaltzen asi zan, eta egia beti lez askorentzat mingaŕia zalako, zemakuntza ta abar, bildurtzeko egiñalak egin zituezan. Bizitza galtzeko zorian saŕitan egon zan etsayak il gura ebelako, baña bera ez zan bildurtzen, eta au erantzuten eutsen «Zoritxaŕekoa ni, Goizpaŕkia ezpadot azaltzen; ala eriotzaren bildurez egitik aldenduko ba'nintz».

Eta Alemania'n eta Austria'n andiki ta bekoen gaiztakeriatzaz argiro itz-egiten eban, eta saŕitan itzaldi erdian konorgetuta gelditzen zan.

Apaltasun andia eukonez Siena'ko gotzaintza eskini eutsoen baña ez eban gura izan artu. Yaungoikoak bere bitartez alatz andiak egin zituan. Eta berak ainbeste lan egin aŕen, lekaide zeregiñak zintzoro betetan zituan neke ta lastasunak be itxi barik. Bakaŕ zalea zanez, lekaretxean aldi baten egotea lortu eban, baña Yaunak eriak zuzentzeko aukeratu eban eta baŕiro be itzaldiak egiteari ekin beaŕ izan eutson. Eta alantxe egun baten, Siena'n bertan aberatsen zikoiz-



kerietzaz itzaldi sutsua egiten ziarduela bularéko zain bat eten egin yakon eta itxi bearean aurkitu zan. Zerbait obetuta uréngo egunean bañiro asi zan eta bardin gertatu yakon. Orduan tamal andiz erí gustiak igarí eban azken ordua eldu yakola, eta samin andia agertu eban.

Bera bakañik egoan pozez, eta eleizakoak maitasun andiz aríu, eta Yaungoikoaren bere itxaropen gustia ipiñiaz, gentzatsu bere azken arnasa emon eban.

## EPALA 21

### Benito deuna lekaipurua (543)

Erkaba zoriontsu au, Nursia, Italia'ko urian gurason eta ondo eukian artean yayo zan. Lenengo ikastek Peli deun Doipuruaren ardurapean, Eróma'n bertan egin zituan, ikaste ta onbidean auferatze andiak egiten ebazalarik.

Bere ikaskideen ibilerak, ludiko galbideak begien auéan ipiñi eutsoezan, eta gizonaren zeregiñik bikañena bere betiko gaizkatzea zala ezagaturik, amabost urtedun zala, Subiako eritxon lekaretxean eskutau zan, Romano eritxon lekaide baten menpean yañiaz.

Leiza baten bizi izan zan eta lekaideak, alikatzeño bea' zituan ogi koskoñak emoten eutsozan. Gaste au bide onetik aldenduteko txerenak alegin andiak egin zituan, batez be Eróma'n ezagutu eban gaste baten irudipen eta gomutaz.

Ziltzaldi au azpiratzeko, egun baten soñekoak kendu ta arantzafte batera bere gorputza yaurti ta zauriz bete eban. Egite eder' au, Yaunari begiko egin yakon, eta gai orétan ziltzaldi txar'ik ez eban somau. Subiako'n urte batzuk igarota, Monte Cassino'ra

aldatu zan. An Apolo yainkoizunaren irudia birindu eban, eta bertan lenengo lekaretxea iragi, gero iragi zituan beste amaikagaz, deuntasun yakituri igaliak ainbat ugaritasunez ludian zabalduko ebezanak. Guraso askok euren semeak onbidean asteko eroaten eutsoezan, eta lan onurakor onek eta egin zituan alatz arigariak bere ospea toki gustietara zabaldu eban.

Tofila gotaŕen bakaldunak, Benito deunaren baŕi yakiniik, egia ete zan yakiteko asmöz, beragana eldu zan esaten ebena bere begiz ikusteko.

Onetarako bere otsein Riggo'ri, bere yantziakaz apaintzeko agindu eutson, eta ondorengo ugariakaz deuna ikertzeko. Baña Benito deuna bere gelan ikusi ebaneko esan eutson: «Ene seme yantzi ori itxi egik irea ez dok eta». Orduan Tofila bakalduna eldu yakon, eta bere auren belaunbikotuta ikusi ebanean, bere gaiztakeriak zirala-ta azkatasun andiz agiraka egin eutson esanaz: «Egite txar asko egiten dozuz, eta egin dozuz; laga egizu bada gaiztakeria. Eröma artuko dozu; itxasoa igaro be bei; beste bederatzi urtean biziko zara, eta amargarenean il».

Bizitza deun lanez betea, amaitzera yoyala, bere eriotza eguna iragari eban. Sei egun aurretik ilobia idigi eragin, eta seigaŕen egunean, eleizaratu, Eleiza-koak artu ta, irurogeta bi urtedun betiko zorionera yoan zan.

## EPALA 22

### Suezia'tar Katariñe deuna (1381)

Norizia'ko bakalduntxo eta Birgite deun ospetsuaren alaba izan zan. Begirakun andiz bere amak azi eban, eta txikitatik lekaike bateri emon eutson kistar aziera emoteko asmoz. Ezkon-aldira eldu zanean bere aitak, senara artzeko agindu eutson, eta berak garbitasuna zainteko asmoa eukon aŕen, Yaungoiko eta Ama Miren'ek zainduko ebela-ta, aita esana bete bete eban, Etghardo eritxon senar deuna artuta. Katariñek gura izan eban lez biok garbitasun-eskintza egin eben.

1348'n urtean senaraŕen baipenaz Eröma'ra yoan zan eta andik Bolonia'ra bere ama antxe aurkitzen zala yakin ebalako. Uri onetan gexoak ikeru ta atsekabetuei laguntzen astia igaroten eban, eta baŕiro Eröma'ra biuŕtu zanean bere senaraŕen eriotza-izpara izan eban. Arrezkerotik bere ama deunagaz bizitza igaro eban.

Bere amagaz ogetabost urte igaro zituan eta aldi onetan eruki-egitea bere zeregiña izan zan. Txiroak erietxetara eroan, zauriak bere eskuz osatu, eta geidearen alde alatz asko egin zituan, Yaunak onetarako

almen emon eutson-eta. Bein baten Tiber erekeak gañezka egin eta uria ondatu eban, eta gustiak uste izan eben uriaren azkena eldu zala, eta eritarak deun onetzaz gogoratuta, arén, gaitz zori aretatik gaizkatzeko esketu eutsoen. Katariñek apaltasunez ez eban nai, baña gizosteak indaréz eroan eban, eta uyolari bere ikutu eutsoneko, urak atzera egin eben.

Bere ama il zanean, Suezia'ra biurtu zan eta Badstein'go lekaimetxean sartu zan, eta laster bertako nagosi egin eben. Eta antxe bere azkenengo gexoa eroapen andiz, egindako uts-egiten ordez Yaunarik, betiko zorionera yoateko eukon pozak biotza asetzen eutsolarik, azken arnasa, 1381'n Epala'ko 22'n emon eban.

Katariñe deunaren obiraltzera gotzain eta andiki asko bildu ziran, eta Yaunak bere ilobia alatz askoz inguratu dau.

## EPALA 23

### Oriol'dar Yose deuna (1702)

Barzelonatar seme argi au, 1650'n yayo zan. Urte tertidun zala bere aita il yakon, eta bere aita ordekoak maitasun andia agertu eutson. Miren deunaren eleizako yauparien ardurapean lenengo ikasketak egiteko ipiñi eban, eta toki onetan, ikaste-auferapen andiak egin zituan batez be. Urtziziti edo Teologi gayetan. Ogetasei urtedun zala yaupari egin zan, eta ordurako bere ama bigarenez alargundu zan. Ama fxiro gelditu zan eta berari laguntzeko sendi on baten irakasletzat artu eben. Sendi onegaz egon zan bederatzi urteetan, deunaren bizitza egin eban. Egun batez yanari gozatsua artzeko eskua luzetuten yoyala, ezin artu al izan eban indar batek galerazi bai'leutsan.

Au iru bider gertatu yakon eta igari eban Yaunak laztasun bidera deitzen eutsola eta egun artatik egunoro barau egiten asi zan, eta zurdatz gogoña erabilten. Lo gitxi; ordu bi inguru; eta bera yarleku baten egiten eban.

1686'n bere ama il zan yakon, eta Erroma'ra yoan-etoñi bat egin eban. Toki aretan zortzi ilabete egin zituan, Inozenzi XI'k, Miren deunaren eleizako txauntsemide edo benefiziau autu eban, gexoak zaintzeko

ardurez. Ondo irabazten ebanaren txiro bizi izan zan, irabazten ebana txiroen artean banatzen ebalako. Egun gustia, txiroak ikertu; itzaldiak egin; kista-rikastia irakatsi ta autortokian igaroten eban.

Baña bere yaumaitasuna sutzara lakoxea zan eta geroago ta erikai geyago bear eban, eta bere bizitza Kisto'ren maitasunez ziñesge artean emon gurarik; ixilean Yerosolym'erantz urten zan. Baña lagun bik bidera urten eta arenka bañero biurtzea loñtu eben aren, bañero gauza gustiak gertau eta yanari, ur, eta txuriko barik Yaunaren babespean osterea egin eban. Egun baten berari lagundu eutson moñoi batek, Yo-seba'k ordainduko eutsolakoan yanaldia egin eban, eta txindirik ez eukolako, igali bat ataletan zatitu, eta diru biurtu zituan yanaria ordaintzeko. Marsela'ra eldu zanean gexo txar batek arñtu eban, eta Miren Amak agerturik bere lantegia Barzelona zala adirazi eutson eta bañero biurtu zan. Bidean yaso zan itxas-ekaitza baretu eban; eta konorgetuta lez luñari ikuru barik egoala itxasontzian eldu zan.

Eta sei urtetan alatz arigariak egin ondoren, apal-tasan eta menpetasunez gustiak aritzen zitualarik, azkenengo gexoa eldu yakon, Gexo aldiñ yaumai-tasan arigaria agertu eban; eta eleizakoak arñtuta, bere aginduz *Stabat Mater* abestuten eutsoela, 1702'n urtean bere gogo dontsua Yaunaren eskuetan ipiñi eban. X'n. Pio Doipuruak 1909'n. deunen izendegian ipiñi eban.

## EPALA 24

### Gabirel deuna, gongotzona (len 18'n.)

Gizona baño geyago, baña Yaungoikoaren otsein diran gogo utsei gotzon izenaz deituten dautsegu.

Euren izenaz dauken zeregiñetik arñzen dabe, eta iruren izenak beintzat dakiguz. *Mikel*, Luziperen aitxin ta Yaungoiko aintza aldez yaiki zana; *Erapel* Tobias sendatzeko Yaunak bialdu ebana, eta *Gabirel*, Miren gustiz garbiari, Yosu-Kisto gure Yaunaren gizakun-dea iragañteko Yaungoikoa autu ebana.

*Mikel'ek*; *Yaungoikoa lakorik nor?* esan gura dau. *Erapel'ek*: *Yaungoikoaren* sendagaia eta *Gabirel'ek*: *Yaungoikoaren sendotasuna* dikuñ, Yaungoikotasunaren sendotasuna gizatasunean iragañten etofi zalako.

Gabirel deuna Idazti Deunetan dakusgunez, Danel iragañleari agertu yakon, Mesias, gizadia gaiztezko etofiko zala iragañteko.

Zakarias yaupariari be agertu yakon, bere seme Yon Ugutzaria, Goteun ugaritasunaz yayoko zala, eta pozez abetaldia izango zala iragañteko.

Eta Azkenez Miren Neskutzari agertu yakon, Yaungoikoaren izenean, Seme Yaungoikoa bere sabel garbira yatsiko zala gaztigatzeko.

Iru agerkundeok asmo bakaña euken: Yaungoiko-Semearen Gizakundea iragañtzea. Danel'eri ba, giza-diak gurari biziz, itxaroten eban, Gaizkatzalea noiz etoriko zan iragañi eutson. Zakarias'eri, Yaunaren bideak gertutzeko yayoko zan Yon deunaren yayotzaren bañi emoteko, eta azkenez Miren deunari, Yosu-Kisto gure Gaizkatzale maitearen Gizakundearako, bere bayetza eskatzeko.

Gabirel deuna gotzon gorengoetarikoa dala, érez ulertu geinke, arazorik bikañenerako Yaunak aukeratu ebala gogaldu ezkeru. Yaunaren Gizakundea baño gertaera arigañi ta goragokorik ezpadago, gertaera bardingabeko onen bañi emoteko Yaungoikoak aukeratu eban gotzon bikañaren gurentasuna nok aztertu?

Auxe dala-ta Austin; Anbortzi eta Gergori ta beste Eleizako guraso ta yakitun askok, Gabirel daunari, Gotzonen Buru izentzat emoten dautsoe.

Auxe dala-ta, goraldtu beañ dogu, ospatu bere yaya, eta biotzez maitatu zeregin bikañenatarako Yaunak aukeratu ebalako.

## EPALA 25

### Gure Yaunaren gizakundea



Miren D. gure a. otortzi

Gizonaren adimenak ezin ulertu ta bere miñak ezin azaldu leiken, yazokunik arigañiena Yaungoiko-Semearen Gizakundea da. Yaungoikoa zeru-luñak egitean andi agertzen yaku, maitasun samuña, neuribakoa agertzen dausku; baña Bera gure maitasunez emakume garbi baten sabelera yatsi ta gure izate argalez batuteko agertu eban al eta maitasuna uleřgaitzagoak dira. Yazokun arigañi au Luka deunak azaltzen dauskunez onantxe gertatu zan. (1-23-38.) «Gabirel gotzona Yaungoikoak, Nazareth'era, Galilea'ko urira bialdu eban, Dabi'ren yatoriko ta Yoseba eritxon gizon bategaz eskonduta egoan Neskuts bategana, Neskutsaren izena Miriam zan. Eta bera egoan tokira sařturik gotzonen esan eutson: «Agur

Miren, eskañez betea. Yauna zurekin, donetsia zu emakumeen artean». Itz oneik entzunaz Neskutza ikaratu zan, eta agur'onek zer esan gura eukian ol-dotzen eban. Baña gotzonak esan eutson: Miren, ez bilduritu, Yaungoikoaren aurrean eskañdun zara ba; ara ba, zure sabelean soñtu eta seme bat izango dozu, eta *Yosu* izenaz deituko dautsozu. Seme au aundia izango da, eta Guren-gurenaren Seme, eta Yaunak Dabi'ren bere aitaren bakaulkia emongo dautso, eta Yakob'en etxean befiko aginduko dau, eta bere agintzeak (bakalduntzat) amairik ez dau izango. Orduan Miren'ek gotzonari esan eutson: Baña au zelan izango ete da, nik gizonik ez dot ezautzen ba-ta? Gotzonak erantzun eta esan eutson: Goteuna zure gain yatsiko da eta guren-gurenak kerizpe egingo dautzu, alan ba zugandik yayoko dana, Yaungoikoaren Seme izango da. Or dozu zeure aide Elisabete'k bere zañtzaroan seme bat soñtu dau eta sengetzat esten ebena orain soñtzarean seigañen ilabeteak dabil, Yaungoikoarentzat ezinik ez dagolako. Orduan Miren'ek esan eban: Ara emen Yaunaren mirabe au, zeuk diñozunez nigan egin bedi. Eta gotzona eskutau zan.»

Yaungoikoaren eruki-maitasun eta Ama Miren'en gurentasuna emen dager, baifa berari zoñ dautsogun maitasun eta eskañ-on sutsuaren sustaña.

## EPALA 26

### Braulio deuna, gotzaña (651)

Yakitun aundi ta deun ospetsu au, Zaragoza'n yayo zan eta bertako gotzain ogei urtean izan zan. Bere irakasle Isidoro deun yakintsua izan zan, eta izkuntza ta yakidi gustietan ainbeste auñeratu zalako, beronen eskariz *Etimologias* deritxon idazti mamitsua idatzi ebanean, utsak zuzentzeko Baurli'ri bialdu eutson. Eleiz-legeen maitale andia izan zalako gañaztasun andiak iruntsi izan beañ zituan, baña ori gora bera eten barik bere lanari yañaitu eutson.

Toledo'ko lau, bost eta seigañen Eleiz-batzañetan, lan asko egin eban, yakitunari lez ba entzuten eutsoelako arazo azfunenak leporatu eutsoezan.

Onori I, Doipuruari yakituriz beteko idazki bat bialdu eutson, gustiz goratua izan zana. Idazki onetan, ziñeste garbiaren alde, gotzain-agintariak egiten ebazan lanen bañi emoten eutson. Agintza arazoefan be sañitan eskua zori onaz sañtu eban, naspil asko zuzendu ta odol ixuritzeak galerazo zituan ba.

Rezesbinto bere aitaren ondorengo bakaldunatzat añtu eragitea lortu ebanean, gotzain deun au Pilar

deunaren txadonan bizi izan zan; Yauna ta bere Ama Garbi Miren deuna goraltzen astia emoten ebalarik gau eta egun.

Engartzi ta amazortzi lagun ziñopeei, baita zenbaitu ezin ebezan Zaragozako ziñopeei eleiza bat euren gomutaz yaso eutsen.

Azkenez, ogei urtean gotzain lan arazotsuak zintzoro betetan alegindu ondoren, eriotza on ta gantzatsuak betiko atsedenarako atea idigi eutsozan, bere ardurapean euki zituan kista gustiak atsekabez betirik itxiten zitualarik, irakasle yakintsu, aita on eta samura eta artzain maitekoia galdu ebelako.

Bere gorpua Pilar'go eleizan obiratu eben.

## EPALA 27

### Eruperto deuna, gotzaña (647)

Yatoñiz pantzetaia, Eruperto deuna, ontasun, maifasun, zulentasun, yakituri, zurtasun, apaltasun eta laztasunanen yañaitzale zintzoa izan zan.

Bestetik bere izakera on, eta neuritasunak, agertzen eban, mañarik gorengoetarako, gai zala. Eta alantxe, Wons'eko gotzaintza utsik gelditu zanean ao batez Eruperto deuna aukeratu eben, berak ez aitzeko alegin gustiak egin ebazan arien.

Bere ardurapean kista gitxi euki zituan uri atan geyenak ziñesgeak ziralako, eta bide zuzeneratzeko alegin gustiak egin zituan arien, biotz gogoreko arek, eskañ-txañik baltzenagaz zigoñtu ta laidotu ondoren uritik yaurti egin eben.

Urte bian eririk-eri ibili zan, eta Erroma'ra eldu zanean Aita Santua ikerñtu eban, eta abegirik onena egin eutson.

Urte bigarenean Todon Babiera'ko dukeak bere deuntasunaren bañi yakiniñik, bere erira goizparñkia zabaltzen yoateko dei egin eutson. Toki onetan alor ugariak lortu zituan, eta gaur Austria deritxon tokian,

duke ta andiki ta gudaburu asko ugutzatzea yaritxi eban.

Lortx'en egon zan artean lan asko egin, eta eleiza ta lekaretxe asko iragi zituan, eta Ill'n Lon Doipurua-ren aginduz Lortx'eko gotzaintza Salsburgo'ra aldatu eban. Toki onetan Kepa deunaren aintzaz eleiza edera iragi eban.

Teodon il zanean, bere seme Teodoberto'k aitaren loratzai yaraituz, asko lagundu eutson; eta langile gitxi eukozala ikusirik, bere aberirik amabi yaupari ekañi zituan, eta onein laguntzaz asko onera biurtzea lortu be bai.

Azkenez bere eriotza urean egoala igari eban, eta berogei eguneko gexo ondoren bere tokirako Bibal deuna aukeratu, neke gustiak eroapen andiz yasan zituan; Pasko egunez, yaupa emoteko adoretu zalarik mesetan eleizakoak artu ta eleizan bertan il zan.

## EPALA 28

### Yon Kapistrano deuna

Yon Kapistranotara, bere aldian lateriko lataririk ospetsuena iza zan. Ladislao Napoles'ko bakaldunak, ogetabost urte bakañik eukozala, Perusa'ko yaurlari egin eban. Gustiak maite eben; etorkizun edereña begien aurean eukon, eta Italia'ko andiki aberatsenak bere alabea emaztetzat eskiñi eutson...

Baña Yaungoikoak beste arazo baterako aukeratu eukon eta, ludiko uskeriak alde batera itxi, eta Pantzezka deunaren soñeko apala artu eban. Ondasun gustiak txiroen artean banandu, ta Bergamo'ko lekaretxera eldu zan, nagosiari lekaide soñekoa eskatzeko. Nagosia aritzen da, ta begien aurean eukona ez eban ziñestu gura, eta erabagirik artu baño len esan eutson: «Lekaretxeak luidiatzaz iguinduta dagozanentzat dira. Ludiko uskeriak osoan itxi daikezuzanean artuko zaitut». Orduan Kapistrano Perusa'ra biurtu zan, eta gizonen eretxiak ostikoperatzeko, apaltasun arigarria agertzen daben erabagia artu eban. Yaurlari izan zan uri atan bertan, asto garnean yañi, eta ingizko kapela bat bertan bere oben



gustiak idatzita eukozana ipiñi ta kaleri-kale ibili zan...

Au ikusirik bere aizkideak be zorotzat ar̄tu eben, eta askok irainduta ar̄ika erabili eben. Au yakiñik Marko zorundunak bere lekaide artean ar̄tu eban.

Guzuña ta naspila, ar̄okeria ta gorotoa ziñausleak bazter gustietan zabaltzen zituezan, eta gaitz gustiok garaitzeko Yaunak autu eban beldua Yon izan zan; Yon deunak Kisto'ren etsai gustiei arpegi emon eutsen. Ogetamasei urtedun, Yosu-Kisto'ren irakatsi ederak zabaltzen ekin eutson. Eñi andi gustiak bere eske ibiltzen ziran, saritan Aita Santuaren bitartekotazunaz eroaten ebelarik.

Bere itzaldiak entzuteko gizosteak eukon gañra adirazteko auxe da naikoa: itzaldia askotan ogei mila, beste batzuetan berogei mila, eta iñoz eun mila zelai andi baten bildu zirala. Itzaldiak, Italia, Austria, Ungari, Boemia, Silesia, Babiera, Sajonia ta Polonia'n egin zituan. Leipsig'en bere itzaldiak entzunda eun eta ogei ikaslek lekaide soñekoa ar̄tu eben. Biena'ko lekaidetxean ber̄eun nobizio edo lekaidegai bildu zituan, eta Krakobia'n eun eta ogetamañ. Belgrado'k turkar̄en menpetik urtetea berari zor̄ izan eutson, Mahomet II'na Yosu'ren izenean berak garaitu eban ba. Andik laster, Yaunaren aintzaz bere bizitz eta indara emon ebanak, Yaunaren eskuetan bere gogo zoriontsua ipiñi eban. Bere gorpua, egizko Eleizatik aldendutako Basilios deritxon lekaretxean, Balakia'n gur̄tzen dabe.

## EPALA 29

### Eustasi deuna (625)

Borgoña'ko seme gur̄gañi au, bere osaba Langres'ko gotzain izan zanaren ardurapean, yakituri ta ontasunean galendu zan. Bere osaba au Miet deuna izan zan. Bere sendiko aukerak itxita, Kolunbano lekaide irlandar̄ak iragi eban lekaidetxean sar̄tu zan, Luxeuil'en.

Eta Kolunbano deuna, Brunekilda bakaldemeari bere gaiztakeriak zirala-ta gogor̄ egin eutsolako iges egin beañean aurkitu zanean, Eustasi deuna Galo deunagaz Austrasia'ra yoan zan. Toki onetan aldi gitxi egin eban, laster ba, bertara Kolunbano deuna eldu zanean, Luxeuil'go lekaretxera nagosi-ardureaz bialdu eban, euron etxe au iñoren eskuetan yausi ez zedin. Eustasi'k zur̄tasun andiaz, etxe onetan bakean agatzea loñtu ebanean, gizon onbidetsu asko bere menpean yañi ziran. Izlari bikaña zanez, Yosu-Kisto'ren goitar̄ irakatsiak eririk-eñi onura andiz zabaltzen ibili zan. Baña deunen bizia, Yosu-Kisto'rena lez atsekabez inguratutakoa izan oi da-ta, Eustasi deuna be samintasan asko eramān beañean aurkitu zan.

Lekaide maltzur saltzale batek, Akilea'ko ziñausleen aldera makurtu eragiteko aleginak egin ondoren, bere alegiñak alpeñekoak zirala-ikusirik, aldi atan egin eben eleiz batzar batek Kolunbano deunaren araudia txarizat etsitea eskatu eben. Eleiz batzarak erabagirik aritu baño len Eustasi deunari deitu eutson, eta berak egin zituan itzaldi ederak entzun ondoren, Eustasi deunaren alde yañi zan, eta Agerstino lekaide maltzura beartu be bai nagosiari burua makurtzera. Eustasi deunak itxaron barik auferatuta bake-laztana bere etsyari emon eutson, aren biotzeko gofoa igituterik ez eban lortu, eta oker bidean bere lagun batzukaz yañaitu ebalako, deun andi onen biotzarentzat arantza zorotza izan zan. Alan be Yaunak bere alde urte eban, eta etsyak azken txara izan eban.

Neke samin andiak eroapen andiz bere bizitzako azkenengo ogetamar egunetan igaro ondoren 625'n. urtean il zan.

## EPALA 30

### Yon Klimako deuna (605?)

Dirudienez Palestiñ'n yayo zan, eta amasei urtedun zala bere ikasketak egin ondoren, Yosu-Kisto'ri oso-osoa yañaitzeko asmo zintzoaz Sinai mendiko bakartadera yoan zan. Martirio eritxon padañ onbidetsuaren irakatsiak yañaituki, gogo-arazoetan aurrerapen andiak egin zituan, bere menpean egon zan amar urtetan. Martirio il zanean, lekaide eskintza egin gurarik orretarako onua, Stratego abari eskatu eutson, eta onek gaste aren gañ ikusirik esan eban: «Auxe Yon, aldiaz ludian dis-dis ugingo daben argia izango da». Gero bakañ bizitza aukeraturik, Tola eritxon mendi egalean egoan bakañ tokira aldatu zan, eta antxe, otoizketako malarik gorengoenetara Yaunak yasoten ebalarik berogei urtean bizi izan zan. Lagunak, *Lekaroko Gotzona* deitzen eutsoen. Gero Yaungoikoaren gurariz bere basatxaunotik urten eta lekai-burutza artu eban, eta bere menpekoan eskariz *Scala Paradisi* deritxon gogo-idazti edera idatzi eban. Bertan, donokira igoteko ibili beañ diran ogetamar malak erarik egokienean azaltzen ditu, mala bakotxean bete

bea' diran onu egokiak emonaz. Idazti onetan diño Egito'ko lekaretxe baten 33 lekaide bizi zirala biotz eta gogo bat eukienak, eta andik uréan egoan *Espe-txe* eritxon tokia, utsik egiten ebanak bere gurariz laztasunik gogo'ekaz ordaintzeko.

Bere deuntasun ospea gustiz zabal ebilelako Ger-gori Nagosia deritxon deunak bere aldez otoi egiteko eskatzen eutson, eta Raytu eitxon abak zuzendu, eutson idazki baten auxe inotson: Gotzonen antzeko gizon gelgari, abaen aba, irakasle gurenari Yaunaren gentza.

Bizitzeko lain baka'rik yaten eban, lo gitxi ta laz-tasun andiak egin a'ren txerenak bakean ez eutson itxi, eta azpiratzeko zirikaldirik gogo'enenak eka'ri a'ren azpiratzea ez eban lortu, eta bu'ruka gustiok bere biotza Yaunagaz batuagotzeko ba'ño gauza ez ziran izan. Gizon eta lekaideen itunlari berau izan zan, eta bere goi-yakituria sa'itan agertu eban.

Egun baten bere ikasle bat aitz baten azpian lo zegoala, Yon'en deya entzunik esnatu zan, eta bere bila yoateko yagi zaneko aitz ika'aga'ria amildu zan. Beste bein, zitzaldiakaz naspilduta ebilela Yon'ek ikasle onen aldez otoi egin eban, eta geyagoko barik betiko kendu yakozan.

Olantxe irurogeta lau urte, igaro, eta larogei urtedun betiko zorionera yoan zan, 605 ala 606'n urtean.

## EPALA 31

### Saboya'ta' Amadeo zorunduna (1472)

Saboya'ta' Amadeo bakaldun artekoa izan zan. Bakaldun yauregiko aukeraen artean bere biotza garbi zaindu eban, eta bere izakera biguna zala bide inguru-koen biotz gustien yaube egin zan. Amasaspi urtedun, Parantze'ko Karla VII'nen alabeagaz eskondu zan, eta aitaren o'ñordeko lez bakalduntza a'rtu ebanean, onbide usain gozoa inguruan oparo zabaldu eban.

Turkota'eren kaltezko gudaldian garailari urten zanean, bere garaitzale adorea ba'ño leuntasun eta etsa-yakaz biotz zabala geyago agertu eban.

Ardura andiz semeak ontasunean asi zituan, eta Europa'n ez egoan bere lateria ba'ño, baketsu, zuzen eta onbidetasuagorik. Berarizko e'ruki egintzan bat egin barik egunik etxakon igaroten. Ondasun gustiak e'ruki-etxe ta bea'rsuei laguntzen eralgiten zituan. Auxe zala-ta berari *Txiroen Aita* eta bere yauregiari *Txiroen lorategia* deitzen eutsoen. Bein, uka'etan (limosnatan) la'egi eralgiten ebala esan eutsoen eta berak poz-pozik erantzun eban: «Diñozunaz asko poz-tuten naz, eta ementxe daukozu ordenako kola'ri ede'ra;

saldu egizu ta ataraten dozuna neure txiro maiteai emon egiosun». Beste bein, txiroei egiten eutsen emokun ugariekaz gudarostea sendotzea obe izan letzakela esan eutsoen, eta berak erantzun eban. «Zeuen ardurea onesten dot; baña gogaldu egizue, ezege batek txiroai egiten dautsezan laguntzak, la-terriaren gastelurik ederenak dirala, eta txiroak guda-rosterik onenak».

Eriotza ordua uferatu yakonean zere azken gogoa onantxe agertu eban: Txiroetzazko erukia gogoz eska-tzen dautsuet; zuen ukar edo limosnak, zuen anayen gain ugari bota egizue, eta onespen aguriak iaraba-ziko dituzue. Zuzenak izan zaiteze nogaz begiratu barik, eta zeuen ardura gustia katolikotar uskurta edo zinestea eta Yaunaren maitasuna zabaltzean ipiñi egizue.»

Eta bititza deun-deuna eginda, eleizakoak artuta, betiko donokiko saria artzera yoan zan.

Yaunak bere deuntasuna mirari ugari bidez agertu eban. Verzeille'ko gotzain argi batek eun eta ogeta-mazortzi zenbatu zituan.

Deun begiko au, aldiendun gexoen zaindari da.

## AURKIBIDEA

	Urtafitia	Oñaldean
Ume Yosuren Bilebaikunde . . . . .	1	5
Makari deuna . . . . .	2	7
Jenobebe deuna . . . . .	3	9
Tito deuna . . . . .	4	11
Simeon deuna . . . . .	5	13
Yaunaren Erakuskunde . . . . .	6	15
Peñafort'far Eñaimundo deuna . . . . .	7	17
Yustiniano Lorentzo deuna . . . . .	8	20
Yulen eta Basilise deunak . . . . .	9	22
Amaranto'far Gontzal deuna . . . . .	10	24
Teodosi deuna . . . . .	11	26
Benito deuna . . . . .	12	28
Pelix deuna . . . . .	13	30
Ilari deuna . . . . .	14	32
Paul deuna . . . . .	15	34
Pulgentzi deuna . . . . .	16	36
Andoni deuna . . . . .	17	38
Pedro edo Kepa deunaren Irakastolea . . . . .	18	40
Kanuto deuna . . . . .	19	42
Sebastian deuna . . . . .	20	44
Ines Deuna . . . . .	21	46
Bizente deuna . . . . .	22	48
Ildeponso deuna . . . . .	23	50
Timoteo deuna . . . . .	24	52
Paul deunaren Donekunda . . . . .	25	54
Polikarpo deuna . . . . .	26	57
Yon Krisostomo deuna . . . . .	27	59
Yulian deuna . . . . .	28	61
Sales'far Pranzizko deuna . . . . .	29	63
Martiñe deuna . . . . .	30	66
Nolasko'far Pedro deuna . . . . .	31	68